DBH Batxilergoa

9. idazlan koadernoa

GERNIKA-LUMO
2010 urtea

9. idazlan koadernoa

DBH eta BATXILERGOA

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Udaleko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Portadaren egilea:

- Oihana Arego Duque (DBH 3. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- Graficas Amorebieta.

2010eko edizioa.

Hitzaurrea

Heldu iezaiozu bederatzigarrenari, irakurle! Bederatzi baitira jadanik, Gernika-Lumoko ikasleek osatutako ametsezko abenturak batzen dituen koadernoak.

Zabaldu ezazu bederatzigarrena, irakurle! Hasieratik bukaerara, ipuin zoragarriak topatuko baitituzu orri mehe, baina aldi berean sendo hauetan.

Irakur ezazu bederatzigarrena, irakurle! Oheratzerakoan, amets goxoak egiten lagunduko baitizu hizki eta lerroen jolas honek.

Topa ezazu bederatzigarrenean zurea, idazle! Agian, bertan zure izena aurkituko duzu eta, irudimenaz osatutako lerro sorta aberatsaren atzetik idatzirikoa. Eta ez badago ere, segi irakurleon egunak, iluntzeak eta gauak alaitzen dituzten abenturak marrazten.

Goza ezazu bederatzigarrena!

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia

Aurkibidea

Maialen Uriarte Alegria	DBH 1. maila	*Jostailuen pare*	6
Malen Akordagoitia	DBH 1. maila	*Akats Bitxia*	*10*
Naia Omagogeaskoa	DBH 1. maila	*Lautaro*	*14*
Andere Aginaga Urrengoetxea	DBH 2. maila	*Afrikan bizitza latza da bizi*	*18*
Peio Aurre	DBH 2. maila	*Txutxumutxu zikinak*	*23*
Koldo Gezuraga Seijido	DBH 2. maila	*Urtarrilak 13…*	*27*
Iraide Rivas Calleja	DBH 2. maila	*Nire bizitza gogorra izan da*	*32*
Milia Ortiz de Pinedo	DBH 2. maila	*Estolda ikaragarria*	*36*
Iñaki Gabika	DBH 2. maila	*Bizitza sekretu baten truke*	*40*
Pablo Calleja Felipe	DBH 2. maila	*Abendu Santa honetan…*	*43*
Iraide Jaio Ormaetxea	DBH 3. maila	*Azken eskaria*	*48*
Ane Miren Arejita Abaitua	DBH 3. maila	*Errekaren mozorroak*	*52*
Daniela Alcoba	DBH 3. maila	*Benetako Altxorra*	*56*
Alexander Uriarte Atxikallende	DBH 3. maila	*Basajaunaren eremuan*	*60*
Olaia Arana Vigo	DBH 4. maila	*Zoriontasunaren bila*	*66*
Beñat Zabaljauregi Basterretxea	DBH 4. maila	*Vasili Zaitsev*	*71*
Zihara Jainaga Larrinaga	DBH 4. maila	*Nori*	*76*
Aurora Isla	DBH 4. maila	*Amodioaren gezurra*	*79*
Ane Ramos Etxeandia	DBH 4. maila	*Aurpegiak*	*84*
Jone Irigoien Romanillos	DBH 4. maila	*Badaude aukerak*	*87*

Markel Amillategi Medikute	BATXILERGOA	*Izara arteko agurrak*	*93*
Irune Aberasturi	BT 1. maila	*Zorra obsesio bihurtzen denean*	*97*
Irati Seijo Diez	BATXILERGOA	*Areago pago uluak baino*	*102*
Jon de la Fuente	BT 1. maila	*Ustekabea*	*114*
Jon Bilbao Oar	BT 2. maila	*Testamentua*	*120*
Lexuri Gabiola	BT 1. maila	*Eusten eta itotzen nauen soka zara..*	*123*
Mikaela Freundlich Zubiaga	BATXILERGOA	*F-Gripea*	*127*
Pello Intxausti	BT 2. maila	*Apirilaren 27a, astelehena*	*134*
Haritz Bidaburu Gezuraga	BT 2. maila	*Poesia (gai desberdinak)*	*138*
Leire Batiz Undabarrena	BATXILERGOA	*Konpondu ezinezko akatsak*	*142*
Marta Gaspar	HHIko ikaslea	*Non ibili zinen atzo?*	*150*
Goizalde Zearreta	HHIko ikaslea	*Gau ilunak*	*156*

Maialen Uriarte Alegria
DBH 1. maila
"Etorkinak ez dira gure etsai, mundua denona da"

JOSTAILUEN PARE

Gizartea gorabeheratsua da. Arraza edo azalaren kolorearen arabera epaitzen zaituzte. Txiro edo aberats izan eskubide oso desberdinak dira: bizitza gogorra edo erraza.

Hogei urteko mutiko bat naiz. Jeorge dut izena. Beltzarana naiz, ez naiz lodia, baina nahiko altua bai. Begi ilun tristeak eta sudur handia dut. Ezpain lodiak eta gorri-gorriak eta ile kizkur eta marroixka dut. Familia arlote batekin bizi naiz Saharan. Lehen mutikoa naizela esan dut, baina egia esateko, gizontxoa naiz, 12 urterekin hasi bainintzen lanean edo helduen gauzak egiten, hemen denek egiten duten bezala, gehienek behintzat.

Nire bizitzaren definiketa “gogorra” da. Nire bizitzak egiten nau naizen bezalako, nire bizitzak baino ez nau harro sentiarazten.

Baina egia esan, bizimodu honekin nazkatuta nago, zuriak bezala bizi nahi nuke, bizitza lasaia izan, ikasketak egin, tripa asetzeko jana eduki eta lo egiteko toki beroa. Ez nituen polizia beltz haiek pasatzen nituen momentu triste haietan atzean izan nahi.

Saharatik Madrilera joateko plan bat prestatzen ari naiz, hobeto bizitzeko asmoz. Gurasoei txintik esan gabe alde egiteko asmoa dut, nahiz eta hori oso gogorra izan. Lana bilatuko dut eta familiari diru pixka bat bidali. Eta ni ere hobeto biziko naiz, hori uste dut behintzat. Une hori iristear dago, bi egun barru hanka egin beharra dut. Ez nintzen autobusez, motorrez edo kotxez joango, oinez egin beharko nuen bide gehiena, bestea itsasontziz. Gainera, ez nuen paperik eta polizia atzetik izango nuen; ez nuen beste irtenbiderik.

Eguna iritsi da, maleta astun hura hartu eta gauerdian abiatu naiz inork ez ikusteko. Ordu erdiz baino ez naiz ibili eta jada arazoak ditut. Poliziaren bat nire atzetik dabil autoz. Nire begi zorrotzez ingurua aztertu eta nekez aurki zitekeen zuhaitz eder bat aurkitu dut bazter batean, bertara igo eta bertan egin dut habia. Zakua jarri eta lo egiten jarri naiz, begiak itxiz eta “bihar beste egun bat izango da” esanez behin eta berriz.

Goizean goiz esnatu naiz bidea jarraitzeko asmotan, baina esnatu naizenean gela estu batean nengoen, kartzela edo horietako batean.

Ez nekien zer egin, handik irten eta nire bidean aurrera egiteko. Halako batean gauza batez oroitu naiz, orain dela urte batzuk amak esten zidan esaldi batez: *“Nahiz eta egoera kaxkarra izan...ez etsi!”*. Txikitan beti esaten zidan eta horrek aurrera egiteko kemena eman zidan.

Janaria ematen zetorren polizia engainatu, ekarri didan platerarekin buruan eman eta hanka egi dut ziztu bizian.

Berriz ere bidean naiz, baina halako batean, plaust!! Lurrera erori naiz konorterik gabe, ur faltan edo.

Harrituta nago neure burua etxe batean ikusteaz.

Pertsona bihozbera hark lurrean erorita ikusi eta bere etxera eraman nau. Konorteratu naizenean jana eta ura eskaini dizkit, baita dutxa bero bat ere. Ura barra-barra edan eta jan ondoren, dutxatzeko astirik ez daukadala esan diot bidea jarraitu behar dudalako. Horren ordez nahi dudana eskatzeko esan dit hark, nik lotsaturik zera esan diot:

"Paperik gabea naiz eta Saharatik Madrilera joateko asmoa daukat. Ibiliz egin behar dut bide gehiena eta gero itsasontzian ezkutaturik. Mila bider eskertuko nizuke Marokoko portura eramango baninduzu. Badakit oraindik ordu askoko bidea dagoela eta ilegala naizela eta..."

Amaitu orduko kotxearen kapotean ezkutatu nau eta bidea hasi dugu.

Inolako arazorik gabe heldu gara Marokoko portura eta diru pixka bat emanez, *"zorte on"* esan eta alde egiteko bidean jarri da. Baina, halako batean, kotxea gelditu eta hauxe esan dit zintzotasunez:
- *Damutuko zara!*

Nik ez diot oso ondo ulertu eta han gelditu naiz izkina batean bakar-bakarrik.

Denbora astiro joan zait, benetako lagun hura joan denetik, denetaz edo denaz ezkutatzen. Baina jada gauerdia da eta ontzian sartzera noa, baina aurretik dena ondo miatu dut eta ez dago inor ontzian. Ontzian eskegita dauden eskaileretara jauzi egin eta uretara erori naiz. Baina, berriz saiatu eta oraingoan eskaileretan gora igo, maleta artean ezkutatu eta lo seko gelditu naiz.

Goizean berandu esnatu naiz eta esnatu naizen aldi berean, irteteko txirrinak jo du eta Portugaleterako bidean jarri naiz.

Halako batean, leihotik begira nagoen bitartean, itsasontziko begiraleak etorri eta ostikoka uretara bota naute.

Pneumonia hartu dut, eta nire amaiera dela pentsatu dut. Baina, inmigranteak jasotzeko itsasontzi batek Portugaleraino eraman nau. Han, ospitale batera eraman naute, baina ondo sendatu aurretik inmigrazio sailera eraman naute.

Hemen nago pentsakor. Ez dut nire ametsa betetzerik lortu. Nuen esperantza bakarra. Kostata iritsi eta iritsi naizenerako inmigrazio sailera ekarri eta hegazkinaren zain nago berriz lehengo abiapuntura itzultzeko. Nire familiari tristura besterik ez diot ekarri, dirurik ez, ordea. Eta ni neu ere lehengo bizimodu gogorrera itzuliko naiz. Baina, ondo pentsatuz gero, nire ametsa lortuz gero ere, bizitza hobea izango ote nuen? Patuari ihes egingo ote niokeen? Jaiotzen garen hemisferioko puntuak betirako baldintzatzen al du gure bizitza?

Malen Akordagoitia
DBH 1. maila
"Euskararekin ez dago eragozpenik"

AKATS BITXIA

Orain dela hogeita hamar urte inguru, Hernaniko eskola batean, Jon izeneko ikasle bat zegoen. Jonek defektu asko zituen, baina Maialen izeneko ikaslearena, berriz, ez. Honek ez zekien "R" hizkia ondo ahoskatzen, baina berari horrek bost axola zion, bere "R" gustukoa baitzuen.

Bere lagunek errespetatu egiten zuten, baina Jonek ,berriz ez. Beti esaten zion berbera Maialeni:

-Zuk Euskal Herrian ez duzu zertan egon, euskaraz hitzegiteko "R" hizkia ondo esan behar baita; ez ondo ahoskatzekotan, joan zaitez Frantziara

-Maialeni hori entzuteak amorru handia ematen zion, berak ez baitzuen gureta egiten, eta esan zion-.

-Begira, zu ez zara inor nire bizitzan sartzeko. Bakoitzak bere akatsak ditu eta hau nirea, zuretzat entzuten duzun lehen aldia izango da, baina mundu osoan defektu desberdin ugari daude eta horietako batzuk zuk ere badituzu.

Maialenek esan beharrekoa esan eta lasai-lasai joan zen Bertsolaritzako gelara. Ausarta zela erakutsi zuen eskola guztiaren aurrean eta Joni irakatsi ederra eman zion, "*ez esan ezer inori, zuk ere entzutea nahi ez baduzu* ".

Bertsolaritzako ordua heldu zen. Maialeni asko gustatzen zitzaion bertsoak botatzea eskolako onena baitzen, bertsolari ikaragarria zen. Bere amari beti esaten zion berbera:

-Ama, Bertsolaritza asko gustatzen zait, oso trebea naizela bertsotan esaten didate eta bertso eskola batera joatea ez litzaidake gaizki etorriko.

Eta amak horrela erantzuten zion:

-Maialen, zuk ez duzu denborarik soberan, baina hala ere trebea zara bertsotan; horregatik, aitak eta biok asko pentsatu dugu horretaz, eta bai, bertso eskolara joango zara!

-Eskerrik asko bioi! Ikaragarriak zarete. Denbora ondo aprobetxatuko dut bertso eskolan!

Maialen oso pozik jarri zen eta hurrengo egunerako eskola osoak zekien berria. Bertsolaritzako irakaslea asko poztu zen Maialenengatik, etorkizun ona izango zuela pentsatu zuen.

Bertso eskolako lehen eguna heldu zitzaion Maialeni eta irakasleak bertso bat botatzeko esan zion lehenik, eta neskak, bere aurkezpena eginez, bete zuen bertsoa. Irakaslea harrituta zegoen eta beste bat osotzeko esan zion.

Txapelketa baten parte hartzea eskaini zioten eta Maialenek, nola ez, parte hartu zuen. Txapelketa eguna iritsi zen eta bertsoak botatzeko ordua ere bai. Urduri zegoen, baina baikorra zen. Alboan zituen bertsolariak bikainak izan arren, Maialenek haien aurka irabazi ahal izan zuen. Lehenengo saria irabazi zuen, TXAPELA!

Hurrengo egunean, herri guztiak, eskolak, bertso-eskolak eta auzokoek zoriondu zuten. Jonek, ordea, zortea izan zuelako irabazi zuela txapelketa hura esan zion; baina Maialenek ez zuen kontutan hartu Jonek esandakoa eta aurrera jarraitzea erabaki zuen.

Bertso-eskolara joan zenean, bertso bat botatzeko eskatu zioten. Bertsoa botatzean irakaslea

"R" hizkia gaizki esaten zuela konturatu zen eta bere jarduna bukatzean galdetu egin zion:

-*Maialen ez dakizu "R" hizkia ondo ahoskatzen*?.

Eta Maialenek erantzun zion:

-*Ez, baina, bertsolaria izateko ez dago arazorik, ezta?*

-Ez *neska, lasaitu zaitez. Zorte handia izango duzu beste bertsolariengandik desberdinduko zara-eta, gainera neska guztietatik zu izando zara famatuena.*

-Uff... eskerrak ez dagoela arazorik, ze bestela ez dut imajinatu nahi nire bizia nolakoa izango litzatekeen.

Beste txapelketa baterako prestatu beharra izan zuen. Hau garrantzitsua zen nagusien mailara igotzeko. Bertan zeuden bertsolariak lehenengo txapelketakoak baino hobeagoak ziren, baina Maialenek betiko bere gaitasuna erakutsiz, aurrera egin zuen irabazi arte eta, lehenengo saria lortu arte. Denak zeuden harrituta, telebistan ere agertu zen.

34 urte zituelarik, Andoni Egaña, Sustrai, Unai, Mendiluze, Amets Arzallus eta beste aditu batzuen aurka, txapelketa nagusi batean hartu zuen parte.

Abenduaren 15a heldu zen, txapelketaren eguna. 15.000 pertsonaren aurrean bota behar zituzten bertsoak. Makina bat bertso entzun ondoren, epaimahaiak Maialen eta Amets izendatu zituen finalista. Bi finalistek elkarrizketa modura bota behar izan zuten bertsoa.

Bukatu zutenean, aurkezleak irabazlearen izena esan behar izan zuen :
-*Eta irabazlea*.....*MAIALEN LUJANBIO*!!!!!

Maialenek kristoren poza hartu zuen, eta gainera, Jonek Maialeni barkamena eskatuz, bertso-afari bat prestatu zion.

Euskal Herriko bertsolari lehiaketa irabazi zuen lehenengoa emakumea izan zen. “R” hizkia ondo ahoskatzen jakin ez arren, ahoskera akatsa izanda ere, aurrera egin zuen txapelduna izan arte!

Naia Omagogeaskoa
DBH 1. maila
"Lagunekin dantza egitea, abestea eta musika entzutea gustatzez zait"

LAUTARO

Afrikako hiri txiki batean, Txad aintziraren inguruan, ile horidun eta begi urdin-urdineko neskatxa, Lautaro izenekoa, lagunekin primeran pasatzen zegoen. Hamabi urte eduki arren, dantzatzea, abestea eta lagunekin egotea gustoko zituen.

Den-dena izateaz gain, beti nahi zuen gehiago edukitzea, oso berekoia baitzen. Nahiz eta lagun asko izan, ospetsua izatea nahi zuen. Gainera, institutuan neska talde famatu bat zegoen, NOBET izenekoa , animatzaileak ez ezik, mutilen gustukoak ere zirenak eta Lautarok talde horretako kidea izan nahi zuen. Beti zebilen gira-biraka, harantz eta honantz , besteen aditasuna lortu ezinean...baina alferrik, ez zioten jaramonik egiten eta.

Egunak joan egunak etorri, ez zen nekatzen, helburua lortu arte, ekin eta ekin zebilen. Orduan, ospetsua izateko edozer egiteko gai zenez, bere lagun kutunak aspertuta zeuden zuen izakerarekin. Makinatxo bat aldiz aholkuak eman arren, haize bolada bat balitz bezala, gertatzen zen dena.

Hori guztia kontuan izanik, Lautarok bere buruari zera esan zion: *"Urtero, animatzaileen proba egiten denez, oraintxe bertan aurkeztu egin egingo naiz! Horrela, beraien konfiantza ez ezik, NOBETeko kidea ere izango nintzateke eta!"* –pentsatu zuen.

Proba eguna heldu zen. Beraz, hura bai zela, hura partaidetza! Bat, bi, hiru.....

Lautarok hori ikustean, indartsu, gogotsu, izerditan, ur-tantak dariola, blai-blai eginda probak egiteari ekin zion. Primeran egin arren, beste hiru neskatila trebe-trebeak zirenak ere, egoera berdinean zeuden.

Epaileek animatzailea nor izango zen aukeratzeko egun bat behar zuten. Lautarok, hori jakin ondoren, egun osoan pentsakor iraun zuen.
- Ni, neu aukeratu ote naute?
- Nor izango ote da?....ni, neu, ne...n,..

Bakarrik bere buruaren ardurarekin, eta bere bizitza osoko lagun kuttunak, non ote zeuden,? jaramonik ere ez zioten egiten eta? Batek jakin!

Orduak joan ahala, hurrengo eguna heltzear zegoen. Egun berriaren argia isladatzen hasi zenerako, partaideak elkarrekin erantzunaren zain irrikitan zeuden .

Bat-batean, NOBET koadrilako neskak etorri ziren eta Lautarorengana hurbiduz zera esan zioten:
- Parkatu baina...Bai,. Zu, zeu izan zara probak gainditu dituzuna!. Beraz, animatzailea izateaz gain, taldekidea ere izango zaitugu. Zatoz, zatoz!

Hori entzutean, Lautaro aho zabalik, sinistu ezinean geratu zitzaien.

Orduak joan , orduak etorri, nekea, itxaropena ...baina azkenean ametsak egi bihurtu ziren .

Egunak joan ahala, Lautaro bere bene-benetako lagunekin guztiz ahaztuta zegoen , ez zuen ezer esaten, eta bere buruan lema bakar-bakarra zegoen NOBETeko taldekidea izatea. Gainera, guztiz arroturik sentitzen zen, mutil guztien gustukoa zelako, tarteka-marteka euren artean eztabaidatxoak ere sortzen zituelarik.

Gau eta egun zebiltzan festarik-festa, "ospegabeei" adarra joten, ziria sartzen...txikitako laguntxo kuttunei pizza zatiak botatzen, besteen takiletan graffitiak egiten... janzkera ere guztiz desberdina zuen. Praka bakeroak eta kamiseta eramatetik, mini gona eta tirrina erakusten zuten kamisetak zeramatzan. Itxura fisikoa guztiz eraldatuta zuen; ilea ere, marroiz tindatuta ...eskolako emaitzetan ere, beherakada nabarmena...

Udaberriko egun batean, tipi-tapa, tipi-tapa etxerantz zihoala, haurtzaroko lagun batekin topo egin zuen.
- *Lautaro! –Lautaro!* - dei egin arren, Lautarok txitik ere ez zion egin. Ez zuen ospea galdu nahi eta.
- *Lautaro! Lautaro!* - jarraitzen zuen lagunak , baina alferrik.

Etxera heltzean, logelara sartu, atea itxi eta ohean eserita azken hilabeetetako izakera aztertzen hasi zen. Hausnarketa sakon-sakona egin ondoren, zera erabaki zuen: betidaniko lagunak ez zituela ondo tratatzen eta guztiz baztertuta zituela.

Hori pentsatzen zuen bitartean, bat-batean momentuan bizitzen ari zena zetorkion burura. Guztiz nahastuta zegoen , ez zekien zer egin....

Handik egun batzuetara, barkamena eskatu behar ziela erabaki zuen, gauza materialak erosiz oparitzeko, baina ez zioten onartu. Azken batean, bakarrik eurak ezagututako Lautaroren adiskidetasuna nahi zuten eta ez beste gauza materialik.

Egun batean, denda gune batean zegoela, bere lehengo lagunak etorri ziren eta zanba!, lehengo lagunak eta oraingoak elkarrekin topo egin ondo-

ren, Lautaro oso triste, goibel jarri zen. Ez zuen irribarrerik, ez, bere barruan ideia sakon-sakona zebilen eta: LAGUNAK, HARREMANAK...

Beti-betiko lagunak han zebiltzan, hara eta hona... eta ni hemen, momentu honetan deseroso, eurekin egon nahian... Zer egin?..

Bat-batean, lagun berriei etxerantz doala esanik, alde egin zuen eta lehengo lagunengana jo zuen, bihotz-bihotzez barkamena eskatzen.

Azkenean, konturatu zen, gauza materialek ez dutela baliorik, benetako balio sentimentala dutenak pertsonak direla eta, batez ere, pertsonekin ditugun harremanak, bene-benetan zaindu behar ditugula, guztiok sentimenduak ditugulako.

Beraz, betidaniko lagunak berriro onartu zutenean, Lautaro bizitzan zintzotasunez jokatu behar zela ohartu zen. Hau da harrokeria eta handikeria ez zirela lagun onak.

Andere Aginaga Urrengoetxea
DBH 2. maila
"Afrikako bizitza hemengoa baino askoz zailagoa da."

AFRIKAN BIZITZA LATZA DA BIZI

Nire bizitza latzaren pasarte tristeena kontatuko dizuet, baina lehenengo aurkeztu egingo naiz. Ni Enaira naiz, bihotza zauriz josita daukan emakume heldua; nire senarra izandakoa Lekram, gizon eskuzabal eta jakintsua zen, nire alaba gazteena Aihan da, neska samurra eta maitekorra, baina orain bihotza itsasoan galdua du eta nire alaba nagusia Aeren da, neska zintzoa eta xarmangarri, hala ere bere aurpegiak gorrotoa eta samina adierazten dituena.

Gu Afrikako herrixka batetan bizi ginen, txiroak ginen, etxola triste bat bakarrik geneukan. Gure alabek ez zuten eskolara joateko aukerarik izan, ez

baikeneukan dirurik. Gau eta egun lan egiten genuen arren, gure lan gogorragatik zentimo bat bakarrik ematen ziguten.

Gau ilun batean herrixkarako bidean gindoazela, argiak ikusi genituen eta oso arraroa iruditu zitzaigun, herrixkako biztanle guztiak txiroak baitziren. Nire hankak dardaraka hasi ziren eta ez zen hotzagatik; ez, beldurragatik zen. Ni ez nintzen pauso bat gehiago ere ematen ausartzen. Horregatik pentsatu genuen hobe izango zela Lekram zer gertatzen ari zen aztertzera joatea, eta gu bidearen ondoko aldapan ezkutaturik gelditzea.

Denbora asko pasa zen eta oraindik ez nuen Lekramen berririk, Orduña herrixkara begirada bat ematera joatea erabaki nuen, baina arinago nire alaba maiteak Salou usteaz arduratu nintzen. Herrixkara heltzean etxola baten atzetik ikuspegi beldurgarri hura ikusi nuen:

"Errebeldeak zeuden bertan. Etxolei su ematen eta herrixkako biztanleen ondasun guztiak hartzen zebiltzan. Gero, pertsonen kate bat ikusi nuen, eta kate horren Hertz batetan errebelde bat nire lagun eta auzokideei ebakitzen zegoen eta beste bat ezpata zikin batez zeharkatzen.

Nire tristura eta mina beldurra baino indartsuagoak, eta hazi egin ziren hiltzera bultzatzen zintuen ilara horren bukaeran nire senar maitea ikusi nuenean. Ezin nuen gehiago jasan, azkenengo segundo horietan nire bihotza milaka zati txikitan apurtu zidaten."

Buelta eman eta nire alabengana joan nintzen, eurak baitziren aurrera jarraitzera bultzatzen ninduten arrazoi bakarrak. Eskuetatik heldu eta basora abiatu ginen salbu egongo ginen leku baten bila.

Gau horretan zuhaitz eskuzabal baten azpian egin genuen lo, nire alaben besoen berotasun goxoak besarkatzen ninduen bitartean nire ametsean murgildu nintzen.

Hurrengo goizean eguzkiaren izpien dirdirak izartu ninduen, nire alabak nirekin batera izartu ziren eta bideari ekin genion. Kontu handiarekin ibili ginen, norbait handik bazebilen ez ohartzeko gu han ginela.

Bat-batean errebelde batzuekin egin genuen topo bidean, nire bihotza arindu zela sumatu nuen, nire alaben begiek beldurra adierazten zuten. Gu-

gana zetozen, beraien pauso amaiezinek min egiten zidaten belarrietan, ez nekien zer egin, nola erreakzionatu.

Azkenerako gure aurrean pausatu eta hizketan hasi zitzaizkigun:

- *Kaixo, hotzez zaudetela ematen du* - nik ezin nuen ezer esan, ez zitzaizkidan hitzak ahotik irtetzen.

- *Etorri* -esan ziguten- *gurekin ondo egongo zarete.*

Ohartu baino lehen euren atzetik gindoazen.

Beraien kanpamentura heltzean, errebelde bat nirekin hizketan hasi zen. Dena ondo zihoala ematen zuen, ongi portatzen zebiltzala, baina bat-batean zarta amaiezin bat entzun nuen eta momentuan konturatu nintzen, garrasi horren jatorria Aerenen ahoan zegoela. Ni segituan altxatu eta Aerenengana abiatu nintzen, zuhaitz gazte-zahar, lore polit-itsusi, etab-ak pasa eta gero, nire neskato kuttunarengana heldu nintzen.

Ezin nuen sinetsi ikusten ari nintzena, Aeren ohol zahar baten gainean zegoen, bere esku eta hankak sokekin lotuta zeuden eta ikuspegi itsusi horren autoreak errebeldeak ziren. Aeren larrugorritan zegoen eta errebeldeak bera biolatzen zebiltzan. Nire alabaren aurpegira begiratzean samina eta beldurra ikusi nituen, zarataka zebilen, hankak eta eskuak mugitzen, gorrotoz betetako negar anpuluak isurtzen, ezin zuen ezer egin, pertsona haien barnean ez zegoen bihotz askerik, bakarrik giltzapetutako bihotz bat zeukaten, sentipenak bihotz barnera sartzen uzten ez zuen harresiz inguratutako bihotza zen hura.

Aerenek malko bat isurtzen zuen bakoitzeko, ezpata baten zartadalako mina sentitzen nuen bihotzean. Eta bitartean, Aihani beraietako bat izateko preparatzen zebiltzan, pertsona bihotzgabe eta zakar bat.

Gau hartan, Arenek ez zuen indarrik ezertarako eta aurpegian gorrotoa nagusitu zitzaion. Gau osoa pasa nuen alde egiteko planen bat egiten.

Goiza heltzean nire alabak izartu eta alde egitea proposatu nien. Aeren nirekin ados zegoen baina Aihan errebelde bat bihurtua zenez, beraiei gertatutakoa kontatzera joan zen. Hori entzun zutenean, oraindik gauza gogorragoak egiteari ekin zioten.

Aeren berriro ere biolatua izan zen, baina oraingoan 10ek edo biolatu zuten. Ni, berriz, janari, edari eta abarren bila joan nintzen basora. Bidean, nire buruari galdetzen hasi nintzaion ea zer egin genuen infernu hura merezitzeko, eta ez nuen erantzunik aurkitu, nire bizitza osoan esklabo jator bat bainintzen.

Nire pentsamenduetan murgildurik nindoala amildegi bat aurkitu nuen. Momentu batean bertatik jausi egitekotan izan nintzen, baina orduantxe haizeak belarrira xuxurlatu balit bezala nire senar maitearen hitzak etorri zitzaizkidan burura:

"Beti egongo da aurrera jarraitzera bultzatuko zaituen zerbait, gakoa ez etsitzea da."

Orduan Aerenengan pentsatu nuen. Nork ahalko luke bere alabatxoa haietako pertsonekin utzi? Argi zegoen ni ez nintzela horietako bat, hortaz, Aihanek ez bazuen nirekin alde egin nahi Aerenekin bakarrik joango nintzen.

Ondorengo goiza heltzean Aerenekin alde egin nuen, ezin nuen Aihanengan pentsatzeari utzi, baina ez nuen Aeren infernu hartan bizitzera bultzatuko.

Bide luzea egin genuen orain gauden lekura heltzeko: "Basamortuan zehar ibili ginen, gosea pasa genuen eta Marrokora heltzean patera bat hartu genuen Espainiara heltzeko."

Pateran 50 pertsona zihoazen, eta horietatik 30 itsasoan galdu ziren, izugarrizko olatuak paterari buelta eman zionean. Besteok berriz igo eta Espainiara abiatu ginen. Heltzen geundela nire alabari zerbait arraroa sumatu nion, lehen baino tripa handiagoa zuen eta hori ezinezkoa zen ez baitzuen egunetan ezer jan.

Nire dudak Espainiara heltzean argitu ziren, medikuek nire alaba haurdun zegoela esan zidaten-eta. Ume hori errebelde batena ere zenez, ez genekien mundua ezagutzeko aukera eman ala ez. Eta nire alabak esan zuen:

"Ama nik uste dut denek izan beharko luketela mundua ezagutzeko aukera, ez dio axola noren umea den, haur honek mundua ezagutuko du. Gainera, ez daukagu paperik eta umearekin hemen bizitzen geratu ahalko gara."

Orain hemen nago nire etxean zuei istorio triste hau kontatzen eta ume horri itxaroten. Esan behar dizuet Aihan eta Lekramengan ere asko pentsatzen dudala. Hurren arte.

Peio Aurre
DBH 2. maila
"Eskalada eta musika maite ditut"

TXUTXUMUTXU ZIKINAK

Bizkaiko magalean; Anboto mendiko ertz batean, etxe bat zegoen. Etxe hartara heltzeko, metro bateko zabalera, eta bost metroko luzerako pasabide estutik pasatu behar zen. Gutxi ez balitz, hori, gainera, ez zen inolako igarobide arrunta ez. Hau da, erroitz bat, 98metrotakoa batez beste, eta erroitzaren muturrean artalde bat. Leku hartatik, ezustean laprast egitean, gorputzaren zati ñimiño bat ere ez zen geratuko.

Ni, Bilbotik etorri berria nintzen. Ez nuen herria oso ondo ezagutzen. Gauza gutxiz, jabetzen nintzen; baina horien artean, etxe hartaz behin eta berriro egoten zirenez solasean, eta berri-izaten nuen.

Arrazola herriko biztanleek, umeak eta adinekoak batez ere, etxe hartako emakumea, "sorgin-sorgin" izenaz ezagutzen zuten. Etxe hartako ugazaba, sorgina zela uste zutelako deitzen zioten batik-bat. Egun zakarra egiten zuen bakoitzean, tximistak erortzen zirela bere etxeko egastegira kontatu zidaten.

Egun batez, sorgina narriatu egin zen. Ez zen ohetik ere altxatzeko gai. Nola ez, sendagile bat joan behar zen bere etxera. Arrazolako inor ez zen ausartzen bere etxera joaten. Nire nagusiak derrigortu ninduen joatera. Nola ez, etorri berria nintzenez...

Aste bat pasatu zen, eta nire ordua gero eta hurbilago zegoen. Goizeko zortzi eta erdiak helduta zeuden eta ni Urkiolan, autoaren barruak mendiko botak janzten. Bakardadearen erdian, zuhaitzez beterik zegoen bide harritsu batetik, motxila lepoan nuela nenbilen.

- Aaaaiiii. Jesus, Maria ta Jose!!! -Atzera egin nahian; guztiz koldartuta.

Heldu nintzen. Etxea aurre-aurrean nuela, hurrengo urratsa eman behar nuen: Pasabide estu hartatik pasatu. Ez zen erraza. Erortzen banintzen edo eta pasabidea urratzen bazen, zer... "Ai, jauna; Zergatik egiten didazu hau?" Esan nuen ahots durunditsuz.

Igarotzera nindoala, ezusteko batean etxearen parera ikusi... Eta falta zena! Laurogei urteko atso bat, aloz estalita, begiak ere ez zitzaizkion bereizten. Imentzioak egiten zegoen denbora guztian, eta ni handik pasatu behar nintzela pentsatzeak ere, are gehiago beldurtzen ninduen.

Azkenik, pasatu nuen pasabidea lau hanketan. Baina kostata.
- *Arrasti on! Zu ahal zara nire etxera datorrena?*
- *Bbbbaaiii. Niii nnaaiizz.* –Beldurraren beldurrez ezin nuen hitz egin ere.
- *Egon adi lasai! Ni ez naiz sorgina eta!!!*
- *Ez; nik ez dut hori esan!* –Nik sumatzen nuen berak bazekiela, sorgintzat hartzen nuela.
- *Etorri barrura gauza bat jarriko diat ta!* –Eskerrak hori esan zidala bestela naukan beldurrarekin, eta egiten zuen hotzarekin han bertan izoztuko nintzen.
- *Etxe polita daukazu!*
- *Eskerrik asko. Baina, zertako balio didak etxe hau, inork ez badu ikusten.*
- *Galdera bat egin ahal nizuke?*

- Esan ba!
- Nola jaiki zara ohetik? Esan didate ezin zinela ohetik ere jaiki. Hain gaizki egon zinen?
- Gauza da, mendizale batzuk etorri eta oka egiten ikusita, pentsatu zuten, gaixorik nengoela. Baina ez nengoen gaixorik janariak kalte egin zidan.
- Hala ere, odola aterako dizut, eta beste proba batzuk egin beharko dizkizut. – Eta ea bizkor bukatzen dugun egon nintzen pentsatzen.
- Iluntzen hasita dago. Zuk nahi izan ez gero, lo egiten geratu ahal zara?
- Ez gauzak bizkor egingo ditut eta banoa. Ez dut hemen gelditu nahi eragozten.
- Nola irtengo zara orain. Gaua da; hotza egiten du, elurra hasi du... Burutik zaude?
- Bai. Arrazoi duzu. Ez ba zaizu axola...?
- Noski ez zaidala axola!
- Hasiko gara afaltzen?
- Bai. Hona etortzearen bidaiak gosetu nau eta.

Momentu horretan bertan, baitaratu nintzen, ez zela sorgina. Arrazola herriko pertsonek eman zidaten informazioa, dena zen kukuxumuxu zikina. Ez zuen buru artean dongekeriarik. Orduan galdetu nion...
- Zergatik bizi zara herritik hain asago?
- Kontua da, ni Bilbon, txikitatik bizi nintzela, hogeita bost urte bete arte. Nazkatu egin nintzen autoez, kamioiez, zarataz, jende estresatuez, eta beste zerbait behar nuen... - Azkenik, burura etorri zitzaidan mendira bizitzera etortzeko aukera nuela.

Ez zitzaion arrazoirik falta andre horri. Ez ahal zineten egongo, mendi punta batean zaratarik gabe? Eta, Elorrio, Atxondo, Mañaria, Eskoriatza, Otxandio, eta Arrasateko ikuspegiekin bizitzen?
- Zuk nola jaten duzu? Hemendik mugitu ere ez zara egiten?
- Nire lehengusua etortzen da hiru asterik behin.
- Gizon hori, handikote bat, ile beltzarekin, eta ap...
- Apur bat gizena. Bai horixe bera da. –Bidean gurutzatu nintzen gizon hura zen.

Hurrengo egunean, joateko ordua iritsi zen. Biok sekulako arrenkurarekin, agurtu ginen.

Heldu nintzen herrira. Denak zeuden ni noiz etorriko zain. Heldu bezain laster, denak nire inguruan ipini ziren, denak batera hitz egiten...

- Nolakoa da ats...
- Nola tratat...
- Jo egin zai...

Zuek badakizue zer den hori? Baina, argi utzi nien denei "sorgin-sorgin" delako hori ez zela inongo sorginik; pertsona normala zen baina beraren bizian lasaitasuna bakarrik behar zuen.

Momentu hartatik aurrera sendagilerik joan behar bada, kondaiazko leku batera; ni aurkezten nahiz bolondrez joateko. Noizbait zerbait pasatzen bazait, ez arduratu mendi punta batean eraikiko dut nire etxea, eta han bertan biziko nahiz. Erabakiko dut zeinetan. Aizkorri, Gorbeia, Txindoki, beharbada, Anboton. Baina zihurrenik Gernikaren atzean dagoen mendixkan; Lumora goranzko bidean, dagoena. Aixerrota mandian.

Koldo Gezuraga Seijido
DBH 2. maila

URTARRILAK 13 , OSTIRALA

Ezin liteke!

Munduko pertsonarik itsusiena, txarrena sentiarazten nauten momentuak areagotzen hasi dira. Broma bat bezala hasi zen dena,´´´Lau begi! ´´deitu zidan Txistuk zirikatzeko gogorik gabe zerbait esatearren egun euritsu eta aspergarri hartan, denek barre egin zuten baina ez nion garrantzi askorik eman, intentzio txarrez ez zuela esan banekielako. Egun batzuk geroago borroka bat eduki nuen Joxerekin, ados jartzen ez ginen gauza bat zela eta, ez zen odolik egon baina psikologikoki paliza ederra eman zidan Joxek ez bait neukan adorerik eta ezer prestaturik berari erantzuteko. Joxek borroka

han esan zizkidanak Txistuk egun batzuk arinago esan zizkidanarekin gehituta nire ´´lagun´´en buruan gordeta geratu ziren. Joxe eta nire artekoa ez zebilen ondo eta Joseba eta Baldar, Joxeren lagun onenak zirelarik nirekin haserretuta zeudela nabaritzen nuen.´´Arrraro``ere euren zerrendara erantzi zuten nik esan edo egin nituen gauza batzuen ondorioz .Egunak aurrera zihoazela irain horiek jasan behar izaten nituen gero eta gehiago, noizbehinka, astean behin, sarritan, normalean eta eguneroko gauza bihurtu arte. Hasieran Joxek, Baldar-ek eta Josebak baino ez zidaten iraintzen gero Txistu eta Mireia ere hasi ziren, ondoren Lorea, Josune, Patxi, Mimi eta Iñaxio ohitu ziren eta azkenik falta zen bakarra, nik lagun bezala nuen Tomas Jauregi, T.J, alegia.

URTARRILAK 15 , IGANDEA

Infernu bat bihurtzen hasia da

Burletatik mehatxu eta ukabiletara pasatu dira. Ezin dut gehiago jasan, ez dut lorik egiten, euren lanak ematen dizkidate egiten ez baditut Praixku (gure eskolako gurpildun aulkian ibiltzen den mutil bat) bezala amaituko dudala esanez, ez didate inori nire arazoa kontatzen uzten egiten baldin badut jipoi ederra emango didatela esaten bait didate, atzo gantzontzilotan kaletik ibiltzera derrigortu zidaten, gaur listu lehiaketa bat antolatu dute, noski, listuak niri jaurtiaz.

EZIN DUT GEHIAGO!!!!!!!!!!!!

Nire gurasoak zerbait susmatzen hasiak dira, badakit galderak egiten dizkidatenean erantzun inprobisatu bat ematen baitiet eta igarri egiten zait gezurretan nabilela

- Zer moduz gaur kalean ,laztana?
- Ongi
- Zer egin duzue bada ?
- Baaaaa.... Zera .....hortik eta handik ibili
- T.J gaixorik al dago?
- Ez
- Ez!!!! Arraroa benetan , lehen beti jotzen zizun txirrina kalera irteteko ta!
- Ya! Noski etxez aldatu du eta orain urrunegi gertatzen zaio gurea
- Etxez aldatu du , ba ez dit Manolik ezer esan
- Ez ... gauza da.. eurak ez direla etxez aldatu ... euren aitona.amonak baizik!

- ¿?
- T.J egun hauetan aitona-amonen etxean dabil lo egiten.
- Aaaa , .Berdin dio.dutxatu zaitez agudo gaur haragi xerra daukagu afaltzeko ta!
- Ez ama! Gaur ez dut afalduko
- Nola ezetz , haragi xerra zure gustuko janaria da ta! Gainera atzo ere ez zenuen ezer afaldu!
- Jope ama!!! Ez zaitez gogaikarria izan!

URTARRILAK 16 , ASTELEHENA

Bizitzak ez du zentzurik niretzat !

Ezin diot inori kontatu herriko gizagaixoa naizela, denak sartzen direla nirekin, haserretuta daudenean nirekin asetzen dutela euren amorrua, nahiko nuke baina ezin dut ezagun ditudan guztiak nire kontra jarriko baitziren eta ez bainuen edukiko lagunik baina egia esan orain ere ez daukat lagunik, ikastolan jolastorduetan liburutegian egoten naiz besteekin ez egotearren, ahal dudan guztietan aitzakiak asmatzen ditut kalera ez irteteko. Gogorra bada ere egun hauetan hasi zait pasatzen burutik ``horrela bizitzeko zertarako bizi´´ ideia baina ni ere harritzen naiz zergaitik ama nire egoeraren jakitun ez dudan jartzen hori egiteko ditudan gogoekin.

URTARRILAK 18 , ASTEAZKENA

Eztanda egin arte!

Egunak aurrera doazela baltzunak areagotzen ari dira nire gorputzean, nire burua burla bakoitzarekin handitzen doan sentsazioa daukat eta laster lehertu egingo dela. Negarrez aritzen naiz arratsalde osoa, etxera ailegatu bezain pronto komunean sartzen naiz kixketarekin ixten dut atea eta Gatiburen diska entzuten hasten naiz malko artean. Nire ama oso kezkatuta dago, behin eta berriz ate joka dabilela nabaritzen dut, nik ez diot ordea atea irekitzen, bakarrik egon nahi dut mundu krudel honetatik kanpo. Gaur oso urduri nabaritu dut ama arrats guztia pasa du ateari kolpeak ematen apurtu nahi izango bazuen moduan nik hau irekitzeko zain. Ohera joateko ordua egin zaidanean komunetik irten naiz eta han aurkitu dut ama txoko batean eserita aurpegia bustirik duela, ´´mesedez, laztana oso kezkatuta nago, esadazu zer arraio gertatzen zaizun faborez´´esan dit orduan bere aurpegi tristea nigana hurbilduz, elkarrizketa luze bat eduki dugu segidan:

- Ondo nago ama, ez zait ezer gertatzen!
- Egunero gorputzean ekartzen dituzun baltzunak erorita egiten dituzula sinestea nahi duzu ala! Baldar zure lagunari deitzen diote ez zuri!
- Ba egia da!
- Egia egia !Gezur borobila!Eta zer diostazu etxera ailegatzean komunera negar egitera joateko daukazun ohitura honi buruz!
- Sentitzen dut ama!
- Sentitzen duzula !Mesedez maitea nik zu horrela ikusita gehiago sufritzen dut!
- Ez horixe ama!Ez, hori ez! Ez dakizu ni zer nolako tortura jasaten ari naizen, ideia zipitzik ere ez daukazu!
- Ba eduki beharko nukeela uste dut zure ama naizen moduan.
- Ez ama !Ezin dizut kontatu!
- Zergaitik ez ?
- Egiten baldin badut nireak egin duelako!
- Oso ondo ba! Etxe honetan amari bere kezkak kontatzen ez dizkionak ez dauka harrerarik hil ala biziko kontua baldin bada ere!
- Zer esan nahi duzu horrekin ?
- Nik asko maite zaitut laztana eta horrela ezin zaitut ikusi badakit zerbait grabea dela , ezagutu egiten zaitut eta, baina badakit, baita ere, hoberena kontatzea dela gauzak txarrago jar ez daitezen, beraz ez badidazu kontatu nahi zoaz etxe honetatik kanpo eta ez itzuli amarekin problema hori kontatzeko beste konfiantza eduki arte!

URTARRILAK 19 , OSTEGUNA

Azkenean!

Hitz egiteko gogo askorik ez nuenez eguneroko hau erakutsi nion amari. Zur eta lur geratu zen eta besarkada bat emanaz ohera joan ginen biok. Ni lasaiago nagoela uste dut orain, kostatuta baina azkenean egin dut. Gaur eskolara ez joateko esan dit amak, arraroa bada ere; bera eta aita deiak egiten egon dira goiz guztian. Ni gaur ere Gatibu entzuten aritu naiz baina oraingoan ez komunean entzerratuta, oraingoan nire bizitza aztertzen igaro dut goiza, konturatu naiz une polit eta latzak asko izan direla nire bizitzan, une polit guztiak T.J eta besteekin igaro ditut eta tristeenak ere bai. Baina horiek iraganean galdu daitezen saiatuko naiz eta nik bizitza berrri bat hasi. Orain ez diet nire ikaskideei beldurrik edukiko, egia esan ez ditut ikusi ere egingo amak alboko herriko eskolara aldatuko bainau eta bertan badakit ez zaidala horrelako ezer gertatuko defenditzen ikasiko baitut. Bizitza berri hau hasteko

irrikitan nago: lagun berriak, bizipen berriak, esperientzia berriak...Gustatzen ez zaidan bakarra amak psikologo batengana bidaliko nauela da, berak nire onerako izango dela dio ordea.

Salaketa jartzea nahi badut galdetu dit aitak gaur goizean eta nik bere harridurarako ezetz esan diot , ez , ez dut nahi agian bihotz onekoa eta jatorra naizelako izango da nire amona Enkarnik dioen moduan baina euren etxeetan jasoko dituzten bronkak nahikoa izango direla uste dut eta pentsatzen ibili naiz ni baino ahulagoa den bat egongo balitz koadrilan eta denak berari zirikatzen hasiko balira nik ere ezin izango nuen tentazioa jasan eta iraintzen hasiko nintzatekeela uste dut.



Iraide Rivas Calleja
DBH 2. maila
"Euskaraz bizi, euskaraz sentitu"

NIRE BIZITZA GOGORRA IZAN DA

Orain dela asko Euskal Herrira heldu nintzen, gutxi gorabehera zazpi urte nituenean, eta orain hogeita zazpi ditut, hogei urte egin ditut hemen, oso pozik eta harro sentitzen naiz Euskaldun izateaz. Orain dela gutxi lortu bainuen nire legezko bizilekua eta Euskal Herrira heldu nintzenetik nire bizitza aldatu egin dela uste dut, gainera ez bakarrik nire bizitza nire zortea ere, oraintsu lortu baitut nire lehenengo lana. Txikia nintzenetik oso zaila izan da beltzarana izatea leku zehatz batean, beste guztiak zurixkak direnean, oso zaila da besteak zu berdin tratatzea. Nire bizitza heldu nintzen momentutik oso ona izan da, nire alboan nire ama egon delako, beno ez nire ama beltzarana zurixka dena baizik. Honen izena Arantza da eta elkar ikusi genuen

momentutik asko maite diogu elkarri. Nire izena Tib da eta beltzarana naiz, begi eta larruazal ilunak ditut, oso argal nago eta oso garaia naiz. Badakizuenez zelakoa naizen nire istorioa kontatuko dizuet.

Den-dena Afrikako hiri handi batean, Dakarren (Senegal), hasten da. Zazpi urte nituenean hasi zen guztia. Hiri hartan eguzkia zegoen beti, uda zein negua izan, eta denok arropa gutxi generaman. Han ez zegoen diru askorik eta nire gurasoak lanean aritzen ziren egun osoan, eta gauez, berriz, jabe boteretsu baten menpe zeuden.

Egun batean, eguzkia sartu baino lehen, nire ama lanetik itzuli zen eta portura hurreratu behar nuela eta hurrengo txalupa hartu beharra neukala esan zidan. Ez nuen ezer ulertzen eta nire amonarengana jo nuen, honek dena azaldu zidan: Dakarretik joan beharra neukan han ez zegoelako bizimodua aurrera ateratzeko ezer, eta han geratu ezkero ez nukeela etorkizunik edukiko. Goibel sentitzen nintzen, amonak ere esan zidalako ez nituela gehiago nire gurasoak ikusiko.

Hurrengo egunean, txalupan nengoenean, nire ama heldu zen eta honako hitz hauek esan zizkidan: -Betiko nire bihotzean; eta eskuan zeukan eraztuna eman zidan. Nik aurpegiarekin eraztuna niri ematearen arrazoia galdetu nion, belaunaldiz belaunaldi emakumeen artean pasatzen baitzen: nire amari bere amak, amonari nire birramonak....

Baina oraingoan amak ohitura aldatu zuen, niri eman zidan, egitear nengoen bidaiari izugarrizko garrantzia emanez. Amari, eraztuna pasatzeko garaia iristen zitzaidanean, nire bizitzako pertsona garrantzitsu bati emango niola zin egin nion.

Hartu nuen txalupan gutxi gora behera hogeita hamar bat pertsona geunden, bere seme txikiarekin zihoan andre batek eta haurdun zegoen beste batek arreta deitu zidaten, indar handia erakusten baitzuten. Beste guztiak gizon helduak ziren.Txalupa hartan pasa nituen nire unerik txarrenak baina zorte onez nire adineko umetxo bat aurkitu nuen, eta asko poztu nintzen. Egunez bero asko egiten zuenez, Tredik eta biok, txalupako umearen izena Tredi baitzen, elkarren arropekin estaltzen genuen geure burua eta gauez, berriz, elkarrekin berotu hotz handia zegoen eta. Gau batean Tredik bere familiaren istorioa kontatu zidan, istorioa oso gogorra izan zen, bere gurasoak galdu egin baitzituen orain dela gutxi. Bere aita gerratean hil zen eta bere ama, berriz, gaixotasun arraro baten ondorioz. Zazpigarren gauean oso txarto pasatu genuen, olatu handiak baitzeuden. Gu laguntzeko prest geunden baina olatuak gogorregiak ziren eta azkenenan bi gizon eraman zituen aurretik. Ez nituen ezagutzen baina pena handi eman zidan. Jainkoari esker, ez genuen ekaitz gehiagorik izan baina hala eta guztiz ere beste bi gizon hil ziren.

Lo geundela iritsi ginen hondartza batera. Nik, harea ikusi bezain laster, txalupan zutitu eta Tredi esnatu nahi nuen baina ezer ez, ez zituen begiak irekitzen. Gure alboan mediku eta udaltzainak zeuden, eta bitxiena pertsona guztiek larruazala zuria zutela zen, arraroa iruditu zitzaidan baina Tredirekin oso arduratuta nengoen eta ez nion garrantzi handirik eman. Bat-batean nire eraztuna desagertu zela konturatu nintzen. Jarraian tredi ikusi nuen, begiak itxita oraindik, eskuan eraztuna zeukala. Ustekabean, ea umetxo hura ezagutzen nuen galdetu zidaten; baietz esan nuen; orduan gehiago ez zela esnatuko esan zidaten, Afrikatik zekarren gaixotasun bitxi baten ondorioz hil zela. Trediri begiratu nion azkeneko aldiz, han zegoen nire eraztunari gogor helduta, eta horrela utzi nuen.

Ni asko goibeldu nintzen eta negarrez hasi bezain laster, Arantzak ikusi ninduen, eta hari esker lasaitu nintzen. Nire istorio guztia kontatu nion, asko harritu zen eta zazpi urte bakarrik nituela eta adin horrekin ume batek ezin zuela horrelakorik jasan esan zidan.

Horregatik Arantzak umeordetzat hartu ninduen eta berarekin bizi izan nituen nire bizitzako unerik onenak baita garrantzitsuenak ere. Nagusiagoa nintzenean gertatutako guztiari buruzko liburu bat idatzi nahi nuela esan nion eta horrela egin nuen.



Betiko izango ditut nire gurasoak eta Tredi nire laguna bihotzean, bera izan baitzen munduko momenturik txarrenak pasa nituenean nirekin egon zen lagun handia. Betiko nire bihotzean.

Milia Ortiz de Pinedo
DBH 2. maila
"Patinatzea eta irakurtzea gogoko ditut"

ESTOLDA IKARAGARRIA

Egunero bezala, eskolarantz nindoan. Goizeko zortziak ziren. Haizea zakar zebilen eta sudurra gorrituta neukan hotzaren hotzaz. Korrika hasi nintzen, lagun bat harrapatzeko. Berarengana nindoala ikusi eta gelditu egin zen elkarrekin jarraitzeko.

- *Trankildu hadi Markel.* - esan zidan Mireiak.
- *Bai ... egia esan denbora sobera dugu.* - arnasestuka nengoen oraindik

Eguna bukatzeko zegoen eta nekatuta nengoen, beraz, lotara joan nintzen. Ohera sartu eta irratia piztu nuen, munduan zer gertatzen zen jakiteko: "Hondamena sortzen ari gara, espezieak desagertzen, airea kutsatzen ...Bai-

na zer egiten dugu hori saihesteko? Zer egiten duzu zuk?". Irratiko erreportaje hura burutik kendu ezinik ibili nintzen hurrengo egunetan.

Eskolatik bueltatzean, Hodeiri etxeko giltzak erori zitzaizkion estolda batera. Beraz estolda altxatzen saiatu ginen, baina ezin. Langile bat gelditu zen, arazoa azaldu eta Hodei, langilea eta hiruron artean altxatu genuen. Eskerrak eman genizkion eta estoldara sartu ginen. Hura bai zela hatsa!

- *Gora zu, ta gora ni. Hau da, gora gu.* - Norbait abesten zegoela zirudien. Hodeik eta biok elkarri begiratu genion harridura aurpegiz eta soinu hori nondik zetorren aurkitzea erabaki genuen.

Berehala, arratoi txiki bat pasatu zitzaigun:

- *Aaaaaahh!* - Oihukatu nuen.
- *Ixo! Ez da horrenbesterako Markel.*

Beste espaloira salto egin genuen. Bertan gure oinen azpian, etxeetatik isurtzen ziren zikinkeria guztiak erreka marroia bailiran zihoazen maldan behera. Ertz ilun batera biratu eta han zegoen nire adineko neska bat. Aurpegi garbia zeukan, beltzarana eta ile luze beltz distiratsua.

- *Kaixo* - esan zuen ahots arin batez.
- *Kaixo. Nor haiz?*
- *Kaleko ume bat nauk eta hamalau urte dizkinat.*
- *Mutila haiz?*- galdetu zuen Hodeik.
- *Bai. Eta zuek?*
- *Ni neska* - esan zuen Hodeik.
- *Ni mutila*- esan nion.

Gauza pilo bat galdetu genizkion elkarri: izenak, urteak, nola bizi ginen, ... Gainera, nahiz eta Hodeik ez zidan esan, aurpegian igartzen zitzaion oso gustuko zuela Erlantz, kaleko umea. Egia esan, oso bikote ona egiten zuten. Denbora oso azkar igaro zitzaigun, istorio liluragarriak entzuten. Erlantzek egia zela zioen baina, nork sinistu! Elkar agurtu genuen berandu baitzen.

Gandolatik irten eta honela hasi nintzaion:

- *Hodei, benetan, sinistu dizkiozu kontu horiek?*
- *Ba ... beno, egia izan daiteke. zuhaitzarena sinetsi zionat. Bihar galdetuko zioagu.*

Hurrengo egunean hustubidetik sartu ginenerako Erlantz gure zain zegoen eta bere etxera gonbidatu gintuen. Baina etxerik ote zuen han azpian?

- *Hemendik sartu* - esan zigun Erlantzek.

Ustekabean, usain goxo asko arnastu nituen, arrosa eta liliaren antzeko bat, haize fresko eta garbi usaina, bero usaina, ... Begiak ireki orduko, paradisua aurrean nuela iruditu zitzaidan. Lore ezezagun ugari, kolore eta usain goxokoak, animalia ugari, eguzkiak ematen zuen epel, ... Hura bai, hura ikuspegia! zein gustura nengoen hor!

- *Zer deritzozue?* - Erlantzek. Hodei eta biok harrituta baino, liluratuta geunden. Hura zen hura leku garbia. Berak azaldu zigun han zeudela galtzeko eta galduta zeuden espezieak. Ni eguzkia hartzera etzan nintzen belarretan.

- *Hi berotzen ari duana ez da eguzkia, Narni deitzen dun. Animalia eta landare guztiak elkar ez jatearren iturri miragarri horretatik elikatzen dira. Ah eta noski, ama hau Markel da, Markel ama.*

- *Kaixo* - elkar agurtu genuen eta hura bai gauza arraroa, oinak ahatearenak ziren, hau da, lamia zen. Noski, lamiak desagertzeko zorian zeuden, horregatik zegoen han. Erlantzek berarengandik ikasiko zuen hizketan; ez baitzekien idazten.

Horrek amets bat zirudien, baina ez zen; hura gizakirik gabeko gunea, munduko txokorik garbiena zen. Agurtu aurretik, guztiok gorde behar genuen sekretua zela adostu genuen, natura zaintzen ikasteko eta zaharragoak ginenean beste gazte batzuei gure jakituria transmititzea erabaki genuen. Baina kontuz aukeratu behar genuen nori zer esan. Ordurako Mireiaz pentsatzen nengoen, hura pertsona arduratsua baitzen eta berarengan konfiantza handia baineukan.

Etxera itzuli eta egunean zehar, zein ondo pasatu nuen konturatu nintzen, jostailu elektroniko eta moderno, edo horrelakorik gabe. Hodei eta Erlantz elkar gustatzen ziren, beraz, elkarrekin zeuden. Atzo, adibidez, zinemara joan ziren. Nola ez! Nik, aldiz, Mireia nuen gustuko, baina banekien Ruben atsegin zuela, beraz, ez nuen aukerarik, nahiz eta lagun handiak izan. Hodei txikitako laguna neukan eta berak besterik ez zekien Mireia nuela gustuko bi urtetik ona.

Hurrengo egunean Mireiari dena kontatu nion. Hasieran ez zidan sinistu baina gero bai. Noski, aurretik Hodeiri eta Erlantzeri eskatu nien baimena.

Momentuz lagunak baino ez ginen baina nork jakin? Hara joaten ginen bakoitzean begirada arraro xamarrak botatzen zizkidan, agian gogoko nin-

duen. Baina gauza bat seguru zegoen: lagun handiak izaten jarraituko genuela.

Bi urte pasatu dira geroztik; Hodeik Erlantzekin jarraitzen du eta ni orain dela hilabeteak Mireiarekin nabil.



Iñaki Gabika
DBH 2. maila
"Nire lagunekin ibiltzea gustatzen zait"

BIZITZA SEKRETU BATEN TRUKE

Gau hura ez zen izan bestelako gau arrunt bat. Arkaitzek eta biok ikusitakoaren ondoren ez zen izan arraroa beldurtuta egotea, ez delako ikusten egunero horrelakorik.

Dena hasi zen ostiraleko goiz gogaikarri batean, Arkaitz eta ni klasean geundela. Matematika geneukan eta andereñoa teoria azaltzen zegoela, notatxo bat bidali nion Arkaitzi esanez: *"azkenean arratsaldean gelditukо zara?"*. Hark segituan erantzun zidan: *"bai, baina zortzietan gutxi gorabehera, dentista daukadalako"*. Une hartan andereñoak harrapatu egin gintuen eta zigortu gintuen arratsaldean beranduago irteteaz. Arkaitzek dentista zuelez

bostetan, barkatu egin zion baina niri ez, ni klasean gelditu egin behar nintzen.

Azkenean, arratsaldea iritsi zen baina oraindik zigorra nuen betetzeko. Zigortuta nengoela, andereñoa egunkaria irakurtzen zegoen eta ikusi nuen bakarra portuan obrak egingo zirela izan zen. Ideia hura harturik pentsatu nuen Arkaitzekin obra haietara joatea zenbait bihurrikeri egitera, adibidez, jasotzaileekin jolasten ibili eta beste hainbat gauza.

Iritsi ziren arratsaldeko zortzi santuak eta etorri zen Arkaitz dentistarengatik. Kontatu nionean nire ideia ez zitzaion askorik gustatu. Asko kostatu zitzaidan baina azkenean konbentzitu nion portura etortzeko.

Bizikletaz joan ginen biok, portua nahiko urruti zegoelako.

Bidean gozokien, erosketen eta abarren artean denbora pasatu egin zitzaigun eta bederatzietan gutxigorabehera heldu ginen. Jadanik gaua zen eta ez zen ikusten gauza askorik. Arkaitz beldurtuta zegoen eta egia esan, ni ere bai. Momentu hura oso beldurgarria izan zen, baina era berean oso misteriotsua.

Aurkitu genuen jasotzailea eta harekin jolasten aritu ginen. Biak sartu ginen barruan eta igogailu baten bezala, gorantz igo ginen; oso dibertigarria izan zen.

Momentu hartan hots bat entzun nuen eta lagunari esan nion. Hark animalia bat izango zela esan zidan baina nik jakin nuen ez zela izan animalia bat. Une hartan bi argi ikusi genituen urrunean eta gero eta gertuago zetozen. Furgoneta beltz bat zen eta jasotzailearen azpian kokatu zen. Bertatik hiru gizon irten ziren eta haietako bat bezoak loturik eta burua estalita zegoen. Beste gizonetako batek pistola bat atera zuen eta gizon hura lurrera bota zuen trapu bat izango balitz bezala. Orduan pistolarekin tiro egin eta portuko eskaileretatik behera jaurti zuten bien artean. Furgonetan sartzera joan zirenean haietako bati aurpegia ikusi genion eta ohartu ginen gure euskarako maisua zela. Biok harrituta gelditu ginen, baina beldurtuta ere. Segituan bakoitzak bere bizikleta hartu zuen eta etxera joan ginen.

Hurrengo egunean gai horri buruz egon ginen hitz egiten eta Arkaitzek ertzainetara joango zela esan zidan. Baina nik, ordea, ezetz esan nion, arriskutsuegia izango zela iruditzen zitzaidalako. Honek ez zidan kasurik egin eta

ertzainetara joan zen eta dena kontatu zien, hiltzailea nor zen ere barne. Ertzainek hura entzunda segituan hasi ziren ikerketarekin.

Bi egun geroago, astelehenean gure euskarako maisua ez zen etorri ikastolara, polizia atzetik izango zuelako.

Arratsalde hartan, Arkaitz nire etxera etorri zen lanak egitera. Etxetik ateratzean, postontzian eskutitz bat izan nuen igorlea idatzi gabe. Gutun hark hauxe zioen: ”Badakit zuek esan diezuela ertzainei portukoa”. Biok beldurtuta geunden eta ez genuen jakin zer egin. Bakoitza bere etxera joatea erabaki genuen.

Hura izan zen Arkaitz ikusi nuen azkeneko aldia. Denek usten zuten etxetik joan zela ezer esan gabe baina nik ederto batean jakin nuen bahitu egin zutela.

Lehenengo bi urteetan kostatu egiten zitzaidan hausnartzea baina azkenean gainditu nuen, baina ez pentsatu ahaztu egin niola, ez da egia eta. Beti izan ditut oroitzapen guztiak bihotzean gordeta.

Ordutik aurrera, beti pentsatu du bizitzak ez gaituela guk nahi dugun guztia ematen.



Pablo Calleja Felipe
DBH 2. maila
Skatean ibiltzea nire zaletasunik handiena da, lagunekin egoteaz eta igerian aritzeaz gain.

ABENDU SANTU HONETAN...

Neguko gau hotz eta iluna zen, ezin hobea egitera nindoana burutzeko. Denda barruan poliki sartu nintzen, tentsioaz arnasa ia hartu ezinik. Ematen nuen pausu bakoitzean, lurreko egurrak karraskatu egiten zuten. Toki hartan isiltasuna zen nagusi.

Kontu handiz, gainean nuen poltsan sartzen hasi nintzen dena. Bitxi ugari zeuden denda hartan, baina guztiak ezin nituen nirekin eraman. Nire begiak argitu egin ziren beira-arasa baten barruan zera ikusi nuenean:urrez egin-

dako eta bitxiekin apaindutako kaliz antzeko bat, Jesusek azken afarian erabilitakoa bezalakoa.

Zekentasunez betea eta birritan pentsatu gabe, eskuaz kristala apurtu eta hura nire eskuetan hartu nuen eta munduko gauzarik baliotsuena balitz bezala, begira geratu nintzaion.

Dendako alarmaren hotsak nire ametsetik atera ninduen. Segundu pare batean erreakzionatu gabe geratu nintzen, baina nire onera bueltatu bezain pronto denda hartatik korrika bizian atera nintzen. Atean gelditu, eta kalearen alde batera eta bestera begiratu nuen. Urrunean kolore gorri eta urdineko argien erreflexua nabaritu nuen. Kontrako aldera jo nuen. Nire bihotz taupadak azkar zihoazen, oso azkar. Une batez, urrunetik zetorren doinu bat nabaritu nuen.

Abendu Santu honetan
Kristoren jaiotzia,
kontentuaren handiz
guztiok poz gaitian.
Maria Jose,Jesus Maria

Mozkor talde batetik zetorrela pentsatu nuen, eta haien artean murgilduz gero poliziak ez ninduela harrapatuko pentsatuz haiengana jo nuen. Baina guztiz erratuta nengoen, ez baitziren mozkorrak, nik uste bezala. Ez, koru antzeko bat zen, adin guztietako jendez osatua, ume eta guzti. Emakume atsegin batek eskua luzatu, eta papel idatzi bat eskaini zidan. Jarraian konturatu nintzen kantu haren letra zela, eta gainerakoak bezala abesten hasi nintzen, disimulatzeko. Jarraian harrapatu nuen doinua. Bat batean koru osoa, isildu egin zen, ni izan ezik noski, paper hartan ez baitzuen ezer zehazten. Nire ahots grabeaz ozen abesten jarraitu nuen, baina laster konturatu nintzen ez zela nire txanda eta jarraian isildu nintzen. Harrituta utzi nituen gainerakoak edo hori uste nuen behintzat. Nigana hurbildu ziren guztiak, eta gizon sendo batek eskua eman eta izena galdetu zidan miretsi aurpegiz. Ondorengo estrofa abestea eskaini zidan, Hasieran ezetz erantzun nion, talde hartan guztiz oharkabean igaro nahi nuelako. Hala ere, azkenean, denen animoek konbentzitu egin ninduten. Norbaitek atzetik, gainean neraman poltsa erraldoia hartu zidan. Jarraian buelta eman nuen eta adeitsu horrela esan zidan:

- Erungo dotzut neuk boltzie. Egon zeiz trankil, etxie hamen berton dekot ta. Neure portalien itxiko dot.

Egia esan ez nion ezertxo ere ulertu, eta ez nekien zer erantzun. Totelka erantzuten saiatu nintzen, poltsari gogor eutsiz, ez bainuen hura galdu nahi, baina nire esfortzuek ez zuten ezertarako ere balio izan. Bitxi guztiak poltsan geratu ziren niri itxaroten, baina ezin nuen atzera poltsaren bila bueltatu. Norbaitek poltsa barruan zegoena ikusten bazuen, agur, kartzelan nintzen.

Kale artean abesten jarraitu genuen, gabonetako argiek argitzen gintuztelarik. Geldiune bat egin genuen neguko hotzean salda beroa bat hartzeko. Etxeetako argiak gure erritmora zihoazen, haien paretik pasatzerakoan piztu egiten baitziren. Etxe batzuetan, gainera, jendea balkoietara irteten zen gu agurtzera. Horrek antza denez abeslariak animatzen zituen. Niri ordea ez, hotzak hilda nengoen eta. Erronda, eliza itzel baten aurrean bukatu genuen. Haren aurrean makurtu eta abesteari utzi genion. Papera banatu zidan andre berbera, nigana hurbildu zen:

- *Bihar, goizaldeko lauetan hementxe geratuko gara, eliza aurrean. Etorri zaitez, gonbidatuta zaude.*-esan zidan.

Bat batean poltsaz gogoratu nintzen, ahaztuta neukan, Jadanik gutxi batzuk geratzen ginen eliza hartan, baina zoritxarrez behar nuen gizona ez nuen inondik ere ikusten. Ez nuen gau hotz hura pasatzeko toki jakinik, hortaz gertu zegoen parke zabal batean, zuhaitz baten azpian, igaro nuen gaua, hotzaren hotzez dardarka. Lehen argi izpiekin izartu nintzen, aurpegia laztandu eta berotzen zidaten argi izpiekin. Toki hartan ez nintzen denbora askoz egon, goseak amorratzen nengoen eta garrantzitsuena zena, zorioneko poltsa berreskuratu behar nuen, nire esku zegoen dena. Herria ez nuen batere ezagutzen, beraz denbora asko eramango zidan portal hura aurkitzeak. Oso desberdinak ziren kaleak gauez eta egunez. Hamaika eta erdietan, dagoeneko herriari bost buelta eman nizkion, baina poltsa gabe aurkitzen nintzen. Non demontre zegoen atari madarikatua? Herri hartan ez nuen inor ezagutzen, eta diru gabe aurkitzen nintzen. Poltsikoa, txiro batenak baino hustuagoak neuzkan. Ezin zidan inork lagundu. Beraz, ez zitzaidan beste erremediorik geratzen,gauean berriz joan beharko nintzen abesten. Andreak esan bezala, eliza hartan itxaron nien, lauetan, puntu puntuan. Begiak itxi egiten zitzaizkidan, baina irekita mantendu behar nituen, poltsa barruko bitxiengatik egin behar nuen. Laster agertzen hasi ziren lehenak. Harritu egin ziren ni berriz han ikusteaz, baina ez, ez nindutelako aintzat hartu nahi. Oraingoan ez nuen bakarlari bezala abestuko, erne egon behar bainuen portal madarikatura heltzen ginenerako.

Nor eta nor bizi da
etxetxu zahar honetan?
Nor eta zer gura zeunke
Jaunaren ordu honetan.
Jesukristo, adoratzen zaitugu Jesukristo

Ordu erdi abesten eman ondoren, nire harridurarako, bidea aldatu egin zen, gau hartan ez ginen poltsa zegoen tokitik pasatu. Urduri jartzen hasi nintzen, galdutzat ematen bainuen poltsa eta poltsarekin batera nire eskuen artean izateko irrikitan nengoen bitxiak. Gertuen nuen gizonari galdetu nion hau ez zela bart gaueko bidea, eta honek atseginez erantzun zidan:

-Bai, aldatu egiten da, zenbait egunez ibilbide bat egiten dugu, eta ondoren aldatu egiten da abestiaren doinua, letrarekin batera.

Nerbioak, pazientzia eta guztia galduta nituen jadanik. Ez nekien zer egin. Nire buruari galdetzen nion *"bihar goizean berriz ere, herriari beste 20 buelta eman berharko dizkiot?"* Ez, hura ez zen bidea.

Zenbait egunez, abesten joatera jarraitu nuen, itxaropena galdu gabe, baina emaitza onak lortu gabe. Gero eta ezagunagoa nintzen eta jende ugari neukan inguruan. Egia esan ni ere gustura sentitzen nintzen pertsona haien artean, eta kantu haiek abesten. Ulertzen hasia nintzen etxeetan argiak pizteak sortzen zuen emozioaz. Ni ere haietako bat nintzen.

Bederatzi egunez abestu nuen. Azken egunean goizez abestu genuen, eta aurreko egunetan eginiko ibilbideak egin genituen, etxez-etxe limosnak eskatzen.

Nazaretako Tenpluan dago
Dama eder bat jarririk,
izena berak Maria dauko
ondo graziaz beterik.
Bai Belenen ta bart Belenen jaio da Jesus Nasaren

Kale estu bat zeharkatzen gindoazela, ezaguna egin zitzaidan atari bat. Hura ikusi bezain pronto, lehenengo egunean poltsa gorde zidan gizon bera hurbildu zitzaidan eta berehala zakua jeitsiko zidala esan zidan. Arraro egin zitzaidan momentu hartan poza ez sentitzea, izan ere poltsaren kontu guztia, denborarekin, gutxienekoa zen.

Minutu pare batean poltsarekin jaitsi zen. Eskuetan nuen. Momentu hartan joateko ordua heldu zitzaidala jakin nuen. Poltsan zegoen diruarekin nahikoa nuen trena hartzeko. Galdezka, geltokira heldu nintzen. Hurrengo trena, 10:32an heltzen zen, lau minutu neuzkan. Hiru euro eta erdi ordaindu nituen tiketaran truke. Tiketa makinan sartu eta ate-automatikoak ireki ziren. Une horretan, atzera begiratu nuen, eta egun haietan gertatutakoa oroitzen hasi nintzen. Patxadatsu zeharkatu nituen ateak. Guztiz damututa poltsa albo batera utzi nuen, baita zekentasuna ere. Trena geltokira heldu zen lurra dardaraziz. Burumakur sartu eta leiho ondoan aurkitzen zen eserlekuan eseri nintzen. Nitaz harro nengoen. Berehala jarri zen trena martxan, poltsa, atzean utziz.

Iraide Jaio Ormaetxea
DBH 3. maila
"Amodioa, sufrimenduaren eta poztasunaren txandakatze konstantea da"

AZKEN ESKARIA

Non nago? Ez dut ezer ikusten; oso ilun dago dena. Kearen usaina nabaritzen dut. Ez naiz ezertaz oroitzen. Uste dut zorabiatzen ari naizela... PUUM!

Hau mina... Orain bai! Ikusteko gai naiz. Kearen usaina oraindik nabari daiteke baina honezkero ke guztia hauts bihurtu da.

Nire lagunak ikusten ditut lurrean botata; dena dago zapuzturik, hautsez beterik. Kezkatzen hasi naiz. Nire lagunak ongi ote daude?

Sirenen hotsa entzuten dut...

DANBA! Atea kolpe batez ireki zuten suhiltzaileek.

Zoritxarrez eta nire ezusterako, bat-batean sabaia suhiltzaileen gainera erori zen, harri zati handiek euren gorputzak estaltzen zituztelarik. Ni harriturik nengoen. Ezin nuen sinetsi gertatzen ari zen guztia.
- Orain zer egingo dut?

Lurretik altxatzen saiatu nintzenean, hanka harrien artean harrapaturik neukala konturatu nintzen. Denbora luzez harri pisutsu haiek gainetik kentzen saiatu ondoren, azkenean, lortu nuen hanka liberatzea. Baina, hala ere, zutik jartzea asko kosta zitzaidan.
- Aaaaaa! Min egiten du!

Lurrean eseri eta diskoteka hartako barrara hurbiltzen saiatu nintzen. Ea bertako telefono publikoa ondo zebilen.
"Suhiltzaileak eta lagunak bizirik daude baina konortea galdu dute. Ez al da etorriko inor?
Laguntza eskatu beharko nuke."

Diskotekako barra suntsituta dago; hemen telefonoa bilatzea alferrikako lana izan daiteke.

Beste plan bat pentsatu beharko nuke.
Badakit! Mugikorrak poltsikoan egon beharko luke.
Badabil! Ez da puskatu!

Eeezzz! Ez dago koberturarik! Kaka zaharra!
Zer egingo dut orain?

Ezin naiz inondik irten, hemendik ikusten dut ate gaineko karteltxo hura, "Irteera" jartzen duena. Baina harriz egindako barrikada hartatik nola irten? Agian beste irtenbideren bat egongo da. Argi izpi bat ikus dezaket gelako beste aldean. Agian leiho bat izango da, eta irtenbidea libre edukiko du.

Denbora asko pasatu zen ni leiho hartara iritsi aurretik. Baina asko kostata, azkenean lortu nuen. Hala ere, alferrikako lana izan zen; bertan ere harrizko barrikada bat zegoen.

Min handiagoa sentitzen nuen nire barnean...esperantza guztiak itzaltzen joan ziren.

Norbait etortzeko esperantza oraindik mantendu arren, nire neska agian berriz ikusiko ez dudala pentsatze hutsak mindu egiten nau. Badakit zauri larria daukadala eta agian nire maitea berriz ez dudala ikusiko. Eta pentsamendu horrek zauriek baino min handiagoa ematen dit.

Lurrean botata gelditu nintzen une batez, eta azkenean lasaitzea lortu nuenean, lo geratu nintzen.

Denbora luzea igaro ondoren, kanpoko jendearen ahotsa entzuten nuela iruditzen zitzaidan.

Norbait etorri da! Baina asko itxaron ondoren, ez zen inor iristen. Non arraio sartu dira? Ez al ziren joango ezta?

Bost minutu ondoren, berriz entzun nituen ahots horiek.
- *Hemen gaude! Lagundu!*

Behin eta berriz saiatu arren, ez zuen inork erantzuten, ez zetorren inor. Eta halako batean, ahotsa nondikoa zen jakin nahian, berriz altxatzen saiatu nintzen eta oraingoan min jasanezina sentitu nuen.

Kaka zaharra! Irrati ziztrin baten ahotsa zen! Erdi puskaturik zegoen irrati zahar batena!

Hau da hau zorte txarra! Zergatik gertatu behar zaigu hau? Ez dut ulertzen...

Mundu honetan gutxien merezi duen pertsonak gehiegi dauka, eta gehien merezi duenak gutxiegi. Ni orain bizitzen nagoen unea ez du inork merezi, ez gehien daukanak ez gutxien daukanak. Hemen dauden pertsonen erdiak hilda daude, eta agian nik ere horrela bukatuko dut. Nire esperantza agortzen doa...
Norbait etorri behar da! Ez al dira konturatu zerbait gertatzen dela?

Egun hau oso luzea iruditzen zait, nire bizitza osoa baino luzeagoa.
Gaizki sentitzen naiz, ez naiz zutik jartzeko gai.
Ez ditut nire hankak sentitzen, zauria oso larria da, odol asko galtzen ari naiz...

Zorabiaturik nago eta ikusmena joaten ari zait.

Ezin dut gehiago.

Nola gerta daiteke honelako zerbait? Nik gogoratzen dudanez, nire aurrean lurrean botata dagoen mutilak dauka errua.

Alkohol larregi edateak bere ondorioak dauzka. Tipo hau ez zen ohartzen egiten zuenarekin.

Nahi gabe kortina batzuei sua eman die eta gero itzali nahian, apal batzuk bota ditu... Eta momentu horretan hasi zen dena erortzen. Baina zortez, sua itzaltzea lortu zuen.

Hala ere, begira nolakoa sortu duen, eta gainera orain bera ez dago bizirik..

Orduak igaro dira hori guztia gertatu denetik. Azkenean! Etorri dira laguntzera!

- Aizu! Lasai, orain eramango zaitugu ospitalera.

- Ez! Utzi nazazue hemen! Nire azken minutuak direla sentitzen dut. Mesedez utzi hemen.

- Baina...ezin dugu hori egin!

- Norberak aukeratzen du nolako bizitza nahi duen, eta orain utz nazazu nire heriotza aukeratzen...utz nazazu hemen - esan zion Aitorrek mindurik.

- Beno..zure borondatea hori bada, ongi da. Eta... sentitzen dut!

Kazetari bat ikusi nuen unean zerbait bururatu zitzaidan:

- Ei, mutil! Egin fabore bat mesedez!

- Bai, esan lasai.

- Idatziko zenidake eskutitz bat? Eta gero maite dudan pertsonari entregatu iezaiozu mesedez!

- Ongi, hasi diktatzen...


Pixkanaka-pixkanaka itzalizen noala sentitzen dut.
Badakit zuk hau irakurtzen duzunerako ni ez naizela
hemen egongo; baina ez nuke nahi mundu hau utzi
zu agurtu gabe.
Zure aho'kuak jarraitu ditut, bestan.
Nire lagunekin diskoteka honetara ongi pasatzera
etorri naizela badakizu; eta zuk esandako hitzekin
akordatzen naiz: "Ez ezazu asko edan"
Eta nik...maite zaitudalako jaramon egin dizut.
Baina berte norbaitek ez dio jaramonik egin maite
duen pertsonari...zergatik?
Zergatik ez dute bestengan ere pentsatzen?
Orain begira nola nagoen ni...
Nire azken hitzak esan nahi dizkizut.
"Zaindu zaitez eta ez kezkatu nigatik, ni pozik
joango naiz mundu honetatik zu ezagututa.
Ziur nago maite zaituen beste pertsona bat
aurkituko duzula. Nire azken eskaria zu pozik
bizitzea da."
Mina sentitzen dut nire barnean...banoa...
Gogora nazazu beti irribarre batekin.
Maite zaitut. Agur.
Aitor

Ane Miren Arejita Abaitua
DBH 3. maila

"Denbora ondo aprobetxatzen jakinez gero, bizitzak nahi dituzun gauza guztiak egiteko aukera ematen du".

ERREKAREN MOZORROAK

Bilboko etxeko leihotik, nire begien aurretik, errekak egiten dituen desfileei erreparatzen diet.

Soineko berdea, egun eguzkitsuetarako aukeratutako jantzia. Urak "Arenalean" agertzen diren zuhaitzen orrien kolorea hartzen du.

Zure soineko berdea, begi berdeak, ile-mototsa estu lotzen zuen lazo berdea... 1958ko uda. Ikusi eta berehala izan nuen zurekin ezkonduko nintzelako ziurtasuna. Egun hori heldu baino lehen beste bost uda zoragarri eman

genituen elkarrekin. Lehenengo musuak, ferekak, maitasun debekatuaren gozamena. Trena hartu inguruko herrietara joateko; lehenengo soldata, errekari begira zegoen etxea erosi eta maitasunez apaindu; lehenengo kotxea, bidaiak, hondartza eta mendia, kresala eta garoa. Baina beti bata bestearen eskuari gogor helduta.

Ezkontza-eguna iritsi zen eta gero lehenengo semea, alaba, beste seme bat. Lo egin barik pasatutako gauak... Jolasen, negarren eta barreen aroa, lehenengo eskola-egunak, ama eta aldi berean emaztea denaren goxotasuna. Baina beti berdez tindaturiko zoriona.

Erreka, umeen soinu alaiez estaltzen da. Abuztuan Marijaia dirdiratsua, harro zutitzen den Arriagan itsatsita azaltzen da. Suziriak, txosnak eta kotoi goxoaren usaina.
Erreka berdea, noiz arte?

Soineko iluna, urritik janzten duena.

Bost urte baino ez eta Mikelen gaixotasuna etorri zen. Zenbat mediku, zenbat botika! Beste seme-alabak, baztertuta askotan, aitita-amamarekin utzi behar, gu azkeneko itxaropenari heldu nahian, Madrileko ospitalerantz abiatzen ginen bitartean. Ahalegin handiak eginez, Mikelen lagunen futbol partidak ikustera joaten ginen, alaitasuna umeen begietan islatuta eta iluntasuna semearen begiradan, bakardade gorriaren seinale.

Urte latzak. Lantegiak porrot... Langabezian egoteagatik kobratzen nuen diru apurraz ezin familia mantendu. Gosea ez dakit, baina bai behin eta berriro erabilitako oliotan frijitutako patatekin oheratu behar edo, kokoz beteriko dilistak edo arroza atseginez jan behar umeek protesta egin ez zezaten. Okela ametsetan baino ez.

Eta Mikelen gaixotasuna; eta emazteak lana egiteari utzi semearen gaixotasunak behartuta. Egun beltz haietan familiaren babesak eta laguntzak mantendu gintuzten zutik, bata bestearen eskuari gogor helduta.

Gogoratzen dut Mikelen hilobi iluna, hotza; gure bihotzak ere kolorge, gorritasun bizia galduta, gorrixka bihurtuta.

Errekaren neguko jantzi iluna, hotza. Tristura, gure bihotzen isla ziren hosto gorrixkak, bufandak, malkoak xurgatzeko zapiak...

Erreka iluna, aro jasanezina, noiz amaituko ote?

Soineko marroia, egun euritsuetan gabardina modura janzten duena.

Bai gabardina lodia guk jantzi behar izan genuena Mikelen desagerpenaren ondorioz. Maleta marroia hartu genuen galdutako semearen oroitzapenak sartzeko eta hortik aurrera etorriko ziren bizipen berriak gordetzeko. Samintasunak etsipenari egin zion leku. Emaztea eta biok lanean hasi ginen, gogotsu, iraganeko mamuak uxatzeko, etxera noiz helduko zain umeen haurtzaroko denbora galdua errekuperatzeko asmoz.

Denboraren poderioz, umeak nerabe egin ziren eta nerabeak pertsona helduak, nahiz eta amarentzat eta biontzat beti umeak izaten jarraitu.

Ikasketak amaitu zituzten, mutil-laguna eta neska-laguna topatu eta seme-alabak, errekan eroritako orbelaren modura, itsasorantz abiatu ziren etorkizun berriaren bila.

Maleta marroia ezin itxiz, oroitzapenez gainezka. Eta gu biok bata bestearen eskuari gogor helduta.

Euri-zaparradak, haize boladak, zuhaitzen hostoak airean, euri-tanten zalaparta kristalen kontra... Adaxkaz estaliriko erreka.
Jantzi marroia, ezin erantzi?

Gabonetarako argitxoz beteta dir-dir egiten duen jantzia. Errekak gabonetako pinuen irla ematen du.

Egunero egiten dut errekaren ertzeko paseoa makilaz lagunduta. Eta makilaz ere saiatzen naiz errekarentzako alegiazko soinekoak marrazten, album lodikotea lortu arte. Kolore guztietako jantziak agertzen dira nire bizitzaren argazki-albuma eratuz. Orain, erreka, arroparik ederrena janzteko prest: gabonetakoa.

Gabonetako jaiak, Olentzerori Arriagan egiten zaion harrera, umeen gabon-kantak, 2009ko gabonak. Aurten, azkeneko urte guztietan bezala, familia guztia bildu dut gabon mahaian, nire bizitzaren zutabea izan den errekari begira, Arenaleko argiek keinu egiten diguten bitartean. Leihoetan Bilboko dendek banatu dituzten paperezko izarrak itsatsi ditugu. Ilobei , izar bakoitzean, kide baten izena jartzea bururatu zaie. Bat, bi, hiru... Hamaika-

garrena ipini ondoren soberan gelditu den izarra eman didate. Emazteak eta biok, mahai-oihalaren azpian batak bestearen eskuari gogor helduta, elkarri begiratu diogu eta gero, izar hori lekurik altuenean eta ikusgarrienean itsatsi dugu, besteentzat izen barik; guretzat tinta ikusezinaz idatzitako Mikel izen maiteaz.

Koloretako bolez apainduriko errekak jaietako soinekoa janzten du. Familiaren berotasuna, turroiaren goxotasuna; zuhaitzak, biluzik, argitxoz egindako tapakiez estali nahian.

Urte zahar eguna. Hurrengoan, erreka, jaietako soinekoa jantzita ikusteko aukera guztiok izango ote?

Daniela Alcoba
DBH 3. maila
"Tenis eta saskibaloira jolastea atsegin dut"

BENETAKO ALTXORRA

Hego Ameriketako herrixka batean, Jamiden familia bizi zen. Jamid, neska disdiratsua izan arren, oso ezkorra zen. Bizi zuen egoeragatik edo, iluntasunean bizi zela zirudien, dena, beltz-beltz ikusten zuen, ikuspuntu txarrean oinarrituz.

Herrrialde hartako eskolan, eskolaratua izan zen. Eskola hartan, bere itxura arraroagatik, denek beldurra zioten. Gehienetan, honelako txutxumutxuak nabariak ziren:

- *Berak, futbol talde baten aurka irabazi egin zuela...*
- *Esku batekin, harroputzari irabazi egin ziola...*

- Familiakoak oso aberatsak ei ziren, ama eleberri idazlea omen zen, aita, aldiz, modelo argazkilaria...

Baina, kontuak kontu, eskolan esandako guztia gezur hutsa zen.

Mendoza herrixkako eskolara iritsi zenetik, kontakatiluen ahoetan txutxumutxuak nagusi ziren.
-Hau tristura!
-Tik-tak, tik-tak... erlojuaren hotsa... Burumakur noiz etxeratuko...

Etxera heldu zenean, arratsaldeko 7:00ak ziren sukalde zaharreko erlojuan. Berehala, beltzez jantzita andra bat aurreratu eta elkar besarkatu zuten. Jamiden ama zen. Ez zuen aitarik, ama alargunduta zegoen.
-Hura bai zela berotasuna hura!

Baina, ama-alabak elkarren aurrean jesarririk, amak alabari zera esan zion:
- Zera... hemengoak egin du eta etorkizunari begira, behar-beharrezkoa izango litzateke hemendik ospa egitea.

Eta halaxe egin zuten.

Argentinan, 2005eko abuztuaren 14an. Biak elkarrekin aireportuan zeuden, eserita, "pasajeak"eskuetan eta maletak zituztelarik.

Ezagutu beharrean zeuden herri berriaren kokapena jakin ez arren, itxaropentsu ...agintarien aginduak entzunez.

Hainbat ordu hegazkinean egin ondoren, heldu ziren beste herri ezezagun hartara eta handik egun batzuetara honako galderak egiten zizkion bere buruari:
- Orain, zer?
- Berriz eskolara?

Handik egun batzuetara, bertan eskolaratua izan zen.

Irailaren 15a, Jamiden lehen eskola eguna.
Hizkuntza zela eta, bene-benetan ulertezina!.
Isil-isilik egunak joan zitzaizkion. Bere isiltasunagatik, mutil guztiak maitemindu zitzaizkion. Beldur zen; elkarrekin erabiltzen zuten hizkuntza guztiz desberdina zen. Ez zuen ezer ulertzen...

Apurka-apurka zertxobait ulertzen zuen baina halan eta guztiz ere, neskek gorrotoa zioten. Beldurra, ikara...nabariak ziren bere jaioterriko bizipenak bururatzen zitzaizkion eta!

Egun batean, klasea hasi baino lehen, komunera joateko gogoa sartu zitzaion eta komunera joan zen. Gelara sartzerakoan, tutorea hantxe zegoen. Bai, emakume zahar ile zuriduna, sudur erdian garitxo bat zeukana eta berandu sartzeagatik zigortu ziona. Negar dariola hasi zen.
- *Ez bota klasetik mesedez!* –oihukatu zuen.

Hori ikusirik, mutilek lagundu egin zioten, neskek, berriz, gelatik botatzeko eskatzen zuten. Hala nola arazoa konpontzen zen bitartean, eguna gelan igaro zuen.

Jamid , hain gobel ikusirik, ile marroidun eta bihotz oneko "Jontxu" mutil euskaldun jator-jatorrak, hurbilduz esan zion:
-*Lasaitu zaitez Jamid laztana!* - Jamidek ez zuen ezer ulertzen.
-*Zergatik honelako trataera? Inoiz honelakorik ez dut ezagutu eta!*..- pentsatzen zuen. Gainera, hain emaitza zoragarriak ateratzen dituena... gelako arduraduna dena..., nire alboan..., laztantzen...
-*Zer ote da?* - Galdetzen zion bere buruari.

Jontxuk, tutoreari ulertarazi egin ondoren, dena baretu zen. Baretasunean, isiltasuna, isiltasunean elkarri begiradak, irribarretxoak...agian elkarrekiko MAITASUNA ote zen? Nork jakin?.

Behin, Matematikako irakaslearen froga eguna heldu zen. Emaitzak ematerakoan Jamidena onena suertatu zen bitartean, Jontxurena guztiz kontrakoa izan zen. Orduan, Jamidek anderinoaren baimenarekin, Jontxuri bere laguntza eskeini zion.

Eskerrak eman ondoren, Jamiden etxera lanak egitera joan ziren.

Jamidek Matematiketan laguntzen zion bitartean, Jontxuk euskaraz eta euskal kulturaz gozatzen irakasten zion. Hau da: Marijesiak, Urte Barri,Agate

Deuna, ...Eta horrelaxe elkarri lagunduz, benetako maitasunean, elkarrekin jarraitu zuten .

Jamidek, Euskal Herriari bihotz-bihotzez eskerrrak ematen zizkion. Bai. Herri honetan, benetako maitasuna ezezik, beretzat ezezaguna izan zen EUSKARA maitea ere, ikasteko eta ikasi ahala erabiltzeko aukera eman ziolako.

Beraz, Jontxugatik sentitzen zuen maitasuna eta EUSKARAgatik sentiturikoa hain berdinak ziren!

Aurrerantzean, gogotsu, indartsu jarraitu zuen benetako altxorra den, hizkuntz aberats horretan bizitzen, EUSKARAZ ,hain zuzen ere.

-Eskerrik asko JONTXU maitea!

-Eskerrik asko EUSKAL HERRIA onartu ninduzulako!

-***ESKERRIK ASKO!!!***



Alexander Uriarte Atxikallende
DBH 3. maila

"Iluntasunaren beldur izan arren, bagoaz argiaren bila.
Bihar hurbilago egongo gara."

BASAJAUNAREN EREMUAN

Bi urte dira gudua izan zenetik. Zein luzeak eta gogorrak izan diren bi urte hauek. Oraindik nire bizitzako maitasuna eta nire herrixka txikia gogoan ditut. Hala ere, gaur zauriak direnak bihar orbanak izango direla sinetsi nahi dut.

Nik,Mikel izeneko gazte batek, gizaseme batek bizi dezakeen gauzarik txarrena bizi nuen:heriotza, gerra eta bakardadea.Hasieran dena zen gozoa. Oraindik gogoan dut amak txikitan abestu zidan Ave Maria hura. Gehien maite nuen pertsona zen, ene ama. Gauero, neure lastozko ohera joan

aurretik,egunean zehar eginiko olerki bat errezitatzen diot, dagoen lekuan dagoela berataz oroitzen naizela ikusteko, ez dudala ahaztu erakusteko.

Egun batean mendekua izango zela agindu nuen, eta izango da, bai , mendekua. Errukirik gabeko mendekua, mendeku itsua. Nire aita hil ondoren nire ama eta nire arreba bortxatu eta torturaz hil zituen Montalbaneko kondeak ez du errukirik ikusiko nire aurpegian.

Gaur,astoa hartuta, Gernikako azokara joan naiz. Han artisauek eta margolariek egiten dituzten altxorrek liluratu egin naute. Baina azkenean ogi pusketa bat erosteko baino ez dit eman poltsikoak. Jendeak azoka honetan etorkizuna isladatzen dela dio. Urte batzuk barru azoka horretako eskulanak eta artelanak ezin izango direla hobetu diote. Egia esan niri horrek ez dit axola. Azokan ardura zaidan hitz bakarra Joana da. Guztiz maiteminduta nauka dontzella galant horrek. Merkatuan beti egiten dut topo berarekin eta nire etxe ondoko jauregi batean bizi denez, etxera bueltan laguntzen diot, hori bai, beste bi gizonekin, ondo zaindua egoteko. Gaur nirekin oso ondo pasatzen duela esan dit eta oso garrantzitsua naizela berarentzat. Hitz liluragarri horiek guztiz harrapatu naute. Azkenean neure etxola apalean amaitu dut, amari olerki bat errezitatuz eta Joana maite dudala behin eta berriz ahopeka esanez.

Goizean berri txar bat entzun da herrixkan. Montalbaneko kondeak Gernikako etxegunera sartzea lortu du bart gauean eta hiribildu guztia suntsitu egin du. Orain eskualdeko botere guztia berea da. Foruko herrixkako herritarrek beldurrez euren etxeak utzi eta mendira ihes egin dute. Errigoitiko hiribilduak ere bigarren harresi bat eraiki duela entzun da, eta alkateak soldadu gehiago jarri dituela zaintza lanetan. Eskualde guztiaren jaun eta jabe da Montalbaneko kondea. Bere dorretxea gure herrixka txirotik oso hurbil dago eta beraz, gauero-gauero lau pertsonek sarrera zaintzen dute. Gainera, basoan ezkutalekuak egin ditugu, bakoitza ezpata bi, lantza bat, lau aizkora, jatekoa eta edatekoaz hornituz.

Goizalde aldera,kanpora irten naiz ezin baitut lorik egin. Herrixkaren sarrerara abiatu naiz zaindariekin berba egitera. Haiek ez dutela ezer arrarorik ikusi esan didate. Bat-batean,ezohizko zaratak aditu dira bidearen iluntasunean. Urrunean, mugimendua sumatzen da Montalbaneko kondearen dorretxe inguruan. Segituan, zaldi hotsa entzun da eta denborarik galdu gabe etxoletarantz mugitu naiz jende guztia basora gidatzeko asmoz. Atean dauden zaintzaileek paluak hartu dituzte eta tinko egon dira. Hamar bat minu-

tutara, jende guztia ezkutalekuetan dago. Umeek herio bera ikusiko balute bezala begiratzen didate. Gizonak, armaturik, adi-adi daude ezkutalekuen sarreran haien bizi apala beraien familiengatik emateko prest. Emakumeak, izututa, bazter batean pilatuta. Jaioberriren bat ere badago, zer gertatzen ari den jakin barik.

Baina, laster konturatu naiz Joana eta bere familia ez dagoela ezkutalekuetan. Badakit ia ez dagoela denborarik eta etsaia herrixkako sarreratik oso hurbil izango dela. Horrez gain, argi dago paluz armaturiko lau zaindariek ezin izango dietela denbora askoz eutsi ezpataz, baleztaz, lantza zorrotzez eta zaldi handi eta gogorrez hornituriko zaldun trebeei. Baina nik Joana maite dut. Pentsatu eta egin, bere familiaren jauregiaren sarreran nago. Bizkor sartu naiz berria ematera eta handik bost bat minutura ezkutalekurik seguruenean sartu ditut Joana eta bere familia. Eurekin batera hamar soldadu agertu dira. Denak izutu dira hasieran baina laster konturatu gara Joanaren aitaren soldaduak direla. Familia hura heriotzara arte defendatzea zin egin dute eta momentu zail honetan ez gaituzte bakarrik utziko, ez horixe. Denok antolatu gara eta bakoitzaren postuetan jarri. Gure zeregin nagusia ezkutalekuak babestea da. Herrixkako zaratak eta oihuekin batera zaldunak abiadura handian basoan sartzen ari direla ikusi dugu. Emakumeren baten otoitzak eta erreguak entzun dira momentu batean. Baina hori ez da txarrena, gure atzealdean mugimendua sumatu dugu. Orduan konturatu gara hogei bat soldadu ditugula gibelean. Harrapatuta gaude eta oso harrapakin erraza gara etsaiarentzat. Soldadu kopuru esanguratsu batek inguratu gaituzte Joanaren familia leiala eta ni. Joanaren ile beltza ikustezina da iluntasunean. Supituki, geziak ikusi dira airean eta etsaiak banan-banan erortzen hasi dira. Azkenean infanteriako hogei soldaduak lurrean daude, hilda. Zaldunek, ez dakite zer arraio gertatzen ari den baina badaezpada ere buelta eman eta ziztu bizian alde egin dute. Haiek joan eta gero lasaitasuna eta isiltasuna nagusitu dira gure arimetan. Inork ez daki nork hil dituen soldadu haiek. Nondik demontre agertu ote dira gezi haiek? Nork jaurti ote ditu? Horiek dira herritar guztien buruan bueltaka dabiltzan erantzun gabeko galderak. Baina denek dute esker on sentimendu bat euren barruan.

Biharamunean, herrixkaren erdigunean batzar bat egin dugu. Jendeak niri errespetuz eta itxaropenez begiratzen dit. Herrixkako zaharrak horretaz jabetu direnean, buruzagi lanak betetzeko eskatu didate. Nik harrotasun arraro batek bultzatuta baietz esan dut. Gure herrixka eta gure eskubideak heriotzara arte defendatuko eta babestuko ditudala agindu diet. Buruzagitzat egin dudan lehen lana espioiak erreka ingurura bidaltzea izan da. Han

daude bizitzeko behar genituen elementu gehienak: soro eta baratze oparo enak,labeak,dikeak,presak, arrainak,egurra,burdinola, etsaiaren mugimenduak kontrolatzeko zubia... Gure herrixkan badago errekasto txiki bat eta haren ertzetan gure baratze txikiak eta gure fruitu-arbolak. Baina, espioiak errekara bidaltzeko benetako arrazoia bestelakoa da. Zubitik gora bidezidor bat jarraituz gero Montalbaneko dorretxearen atzeko harresira heltzen da. Baina seguru nago bidezidorrean zehar zaindariak izango direla. Konde bat ezin da hain arduragabea eta kaikua izan bere dorretxera iristeko bidezidor arriskutsuena zaindaririk gabe uzteko. Eta gutxiago eskualde baten jaun eta jabe izateko aukera duenean.

Gure herrixka ondoko landatik Oiz mendia ikus daiteke. Oraindik gailurrean kea dago. Aurreko bi gauetan Gernikako hiribildua erasotzean piztu zuten sua Oiz mendiaren tontorrean, eskualde guztia ohartarazteko. Oso bizkor hasi ziren pizten suak eskualdeko toki estrategikoenetan: Bizkargi, Ilunzar eta Sollube mendien gailurretan, Bermeoko atalaian eta portuan, Mundakako Katillotxu muinoan, Errigoitiko hiribilduan, Foruko plazan eta dorretxean, eta Oizen magaletan kokatzen diren Goroño eta Astoagana mendietan. Montalban dorretxea kokatzen den mendixka ere ikusgarria da landa hartatik. Landa berdea da hura, belar laburrez margotutakoa, hegal batean errekastoa duelarik. Landa hark bake eta lasaitasun garaia ekartzen du gogora. Gure eskualdeko lurrak tirano baten esku ez zeudeneko garaia, herriaren hitza entzuten zeneko garaia, eguzkiak argia egiten zueneko garaia, eta ez itzala orain bezala. Gizon anker baten maltzurkeriak eta bidegabekeriak estaltzen ditu eguzkiaren argi izpiak, eskualde bat zapalduz eta bere eskubide guztiak ezeztatuz.

Hurrengo egunean,seguruenik nire biziak jasan behar izan duen berririk txarrena jakin dut. Montalbaneko kondeak ere espioiak bidali ditu gure herrixka ingurura eta Joanaren aitaren jauregia aurkitu dute. Bi aldiz pentsatu barik Joana eta bere familia hil dituzte gero baliozko gauza guztiak lapurtzeko eta berriro dorretxera itzultzeko.

Momentu batean ez dut jakin sufrimendu hura jasateko gauza izango naizen. Egia esateko, dena bertan behera utzi eta nire buruaz beste egitea ere pentsatu dut, horrela maite ditudan pertsonekin elkartuko naizelakoan. Baina itxaropen eta amorru hazi bat ernaldu zait barruan. Hau da gure momentua, herriak nahiko zigor, tortura eta sufrimendu jasan ditu. Herrixkaren erdigunera joan eta hitzaldi bat eman dut herriaren itxaropen eta askatasun desioa aireratzeko asmoz. Eta hala izan da. Bi egunen buruan eskualdeko

herrixka, etxegune eta hiribildu guztietatik soldaduak heldu dira, askatasun gosez eta borrokarako prest.

Montalbaneko kondeak ere Durangaldeko agintariren bati laguntza militarra eskatu dio. Baina honek egindakoa ikusi ondoren ez dio soldadu bat ere bidali.

Erasoaren aurreko gauean hiribildu bakoitzeko buruzagiekin bildu naiz eskerrak emateko eta erasoa prestatzeko. Herrixka ondoko landan egingo dugu borrokan. Lehen lerroan lantzaz eta ezkutuz armaturiko soldaduak kokatuko dira eta bigarrenean arkulariak. Armadaren alde bakoitzean bost zaldun egongo dira hegalak babesten. Gizon eta mutil gazte guztiak borrokarako prestatu ditugu eta hamar pertsonako patruila bat bidali dugu zubitik gora doan bidezidorrera, dorretxea konkistatzeko ia denak borrokan daudenean.

Biharamunean armada antolatu dugu eta agindu zuzenak eman dizkiegu soldaduei: seinalea ikusi arte ezertxo ere ez egiteko eta lasaitasuna mantentzeko. Seinalea dorretxean izango den kea da. Hau konkistatzean sua piztuko dute patruilakoek erasorako seinale gisa.

Montalbaneko kondea eta bere tropak abiadura handian datoz gure kontra. Haientzat ere porrota ez da aukeretako bat. Bat-batean, kea ikusi dugu dorretxe ondoan eta basatiak bezala aurre egin diogu etsaiari. Hala ere, haiek teknika hobea dute eta gure anaiak erraz menderatzen dituzte.

Borroka galdua dugula pentsatzen hasiak garenean basotik gorputza goitik behera berdez margoturiko pertsona arraroak irten dira. Arkuak atera eta euren geziek zerua estali dute. Orduan etsaiaren armada gehiena erori da eta gutxi batzuk geratu dira zutik. Banakako borroka da hau, eta azkenean garaipena lortu dugu, kostata izan bada ere. Montalbaneko kondeari gezi batek eztarria zeharkatu dio. Hau da nire mendekua, mendeku itsua.

Pertsonaia misteriotsu haiek betidanik baso haietan bizi direla esan digute, haien arbasoak baso hauen jaunak izan direla. Guk, bakean utziko di-

tugula agindu diegu eta eskerrik beroenak eman dizkiegu. Umeek pertsonaia basati haiei basajaunak deitzen dizkiete. Ohorea inoiz galduko ez dugun gauza da eta hildako guztiak lurperatu ditugu borroka gauzatu den landan bertan. Gure hildako anaiak eta etsaiak ere lurperatu ditugu. Gero, herrixka eta dorretxea utzi ditugu eta Gernikako hiribildura joan gara. Han, herriko jaunetako bat izendatu naute.

Mikel Ohoretsua izena jarri didate eta monumentu handi bat egin didate azokako plazan. Gogoan dut landa berde hura, baketsua eta lasaia, ur fresko eta gardendun errekastoarekin, momentu batean, oroitzapenaren eta gorrotoaren landa izandakoa. Errekastotik odola jaisten zen eta landa gorriz tindatutakoa zen.

Orain, inguru horietako basoetatik ibiltzea debekatu dut pertsonaia misteriotsu haien armonia ez apurtzeko. Inor ezin da sartu baso horretan. Inor ezin da ibili basajaunaren eremuan.

Olaia Arana Vigo
DBH 4. maila
"Norbait izan nahian heltzen gara gu geu izatera"

ZORIONTASUNAREN BILA

Markel ezagutu nuen unetik iragana alde batera utzi eta orainari inoiz burutik pasako ez zitzaidakeen perspektiba berri bat eman nion. Guztiz desberdina.

Zure aita zenak amets hura errealitate bilakatzea lortu zuen. Benetan ezagutu ninduenean ez zidalako aurpegi arraroz begiratu, besoak zabalik baizik. Eta biok elkarrekin pasatutakoa hain bestelakoa izan zelako. Hasieratik sumatu nuen zure aita ez zela bestelako gizon bat. Hasieratik jakin nuen ezagutu orduko berataz maiteminduko nintzela. Eta hala izan zen. Bere begirada batek urtu egiten ninduen. Geroago bere laztanak droga bilakatu ziren, egu-

nero behar nuen nire ondoan. Zorigaiztoko egun hartan iritsi zen eta orain ezin dut burutik kendu. Ezin dut bera gabe aurrera jo.

Agian huskeria irudituko zaizu seme, baina oraindik zuk ere ez nauzu ondo ezagutzen. Beldur naiz seme, bai, beldur. Hemeretzi urte hauetan barruan gorde dudan hau nola hartuko duzun beldurrez.

Landerrek jada bazekien goizeko lehen argi-izpien esanahia. Jada bigarren aldia zen zirrara hori sentitzen zuena. Bai, bi egun baino ez zituen Landerrek. Erizainek arraro begiratzen zioten, eta ohartu ziren ez zela besteak bezalako haur sinple bat. Bere begiradak zeukan grina ez zutela beste haur batengan inoiz sumatu aitortu zion erizainetariko batek Idoiari. Hark inongo beldurrik gabe esan zien batek baino gehiagok esan ziela bere semea besteengandik erraz desberdintzekoa izango zela.

- *"Euskal presoak ETXERA!" " Amnistiarik gabe, bakerik ez!"*
- *"Independentzia!"*
- *Markel, Markel!*
- *Korri Idoia! Korri!*

Arnasestuka nenbilen. Ezin nuen gehiago. Ez nekien non nengoen, ez nekien non zegoen Markel. Ez nekien ezer, nire bizitzako zati handi bat inkomunikaturik eman ahal izateko ehuneko oso altuak nituela salbu. Baina horrek ematen zidan aurrera jarraitzeko indarra. Ez zen lehenengo aldia egoera horretan nengoena, baina oraingo honetan jende gehiago zebilen nire inguruan eta taberna batera sartu ahal izan nintzen.

Aurreko egoeran berriz, ez nuen ezer ikusten edo hobe esanda ez nuen ezer ikusi nahi, banekielako atzapar luze haietan, inolako sentimendurik ez duten atzapar haietan erortzeko hainbat txartel nituela. Bakarrik ihes egin nahi nuen. Zorionez salbu eta inolako arrastorik gabe iritsi nintzen etxera. Markel bertan zegoen nire zain. Urduri. Beste noizedonoiz gure bila etorriko ziren beldurrez.

Ohikoa den bezala esnatu naizenean nire maiteak ez ninduen besarkatzen. Lander jantzi bezain pronto egunero lehen gelakideak agurtzen dituen tokira joan eta beraiei itxoiten jarri gara. Ez da denbora asko igaro baina nahikoa izan da gaurko berriez ohartzeko.

" Azken orduko albistegia.

Euskal Herriko talde armatuko beste bi terrorista atxilotu dituzte Frantzian. Bata gizonezkoa, Jon Martinez Larrazabal eta bestea emakumezkoa, Edurne Pagasarri Uria. Auzokideek azpimarratzen duten bezala, bikote umil eta isila, inolako trabarik jartzen ez zuena.

Jada 10 kide izan dira hilabete honetan atxilotuak. Bestalde gobernuak dio beraien lanarekin jarraituko dutela, eta ahal izanez gero honekin guztiarekin."

Familiako bakoitzak bere ohiko bidetik jarraitu zuen egun hura. Inolako traba handirik gabe. Bata eskolan eta bestea hark bizitza ahalik eta arazo gutxienekoa izan zezan dirua ateratzen.

Baina etxeratzean zerbait arraroa sumatu zuen alargunak. Beraien etxean norbait zelatan ibili zen susmoak zeuzkan, mahai gainean zegoen paper multzoa lurretik sakabanaturik zegoelako. Ez zion jaramon handirik egin nahi izan.

- Amaaa!! Nora zaramatzate? Amaaa!!
- Lasai seme, ez zaitez beldurtu. Ama laster iritsiko da.
- Amaaaa!!

Txikia zen Lander eta ez zekien nortzuk ziren aurpegia estalirik zeramaten morroi haiek.

Bat-batean amonaren beso artean esnatu zen. Amonari kontatu zion izan zuen amets arraroa. Aurpegia estalirik zeukaten bi morroik ama zeramatela eta ez zekiela nora.

Amonari begiratzea nahiko izan zuen ohartzeko ez zela amets soila izan.

- ¿Usted fue cómplice del asesinato de Juan Ramirez?
- Ez.
- En castellano.
- Hau Euskal Herria da.
- Plast!
- He dicho que en castellano. ¿Usted ha tenido algo que ver con...?
- La condena que se le impone es de 45 años por formar parte del comando terrorista vasco y por haber sido cómplice del asesinato de Juan Ramirez.

"Lau pareta hauen artetik idazten dizut seme:

Badakit zail egiten ari zaizula eta horrek ematen dit min gehien.

Zure bizitzan zehar oso gaizki pasatu duzu eta erruaren parte handia neurea da. Txiki-txikitatik hartu behar izan dituzu erabaki gogorrak eta honen ondorioz, edozein haurrek baino azkarrago heldu behar izan duzu. Lehenik eta behin aitaren hileta eta ez oso denbora askora nire atxiloketa. Honi buruz irakurri duzuna dena faltsukeria hutsa izan da. Egia da kide izan nintzela baina denbora tarte laburrean eta beste guztia faltsukeria hutsa. Zerbait leporatu behar zidaten leku zikin honetan egoteko eta horixe izan zen beraien erabakia.

Behin baino gehiagotan saiatu naiz egun hura ahazten, nire memoriatik kanpora botaz baina ezinezkoa dela ohartu naiz. Azken finean nire iragana da eta ezin daiteke aldatu; horrek ez du esan nahi damutzen naizenik, izan ere neure ideologia argi baino argiago daukat eta niri erakutsi didaten bezala zeuri ere horrela erakutsi nahi izan dizut.

Jada ez zara lehen zinen haur txikia, nahiz eta niretzat beti izango zaren. Orain gauza gehiagoz konturatzen zara eta orain da benetan ulertzen nauzun momentua, txikitan hainbat alditan hitz egin dizudan herria hainbeste maitatzea zein garrantzitsua den. Jakitea nolako pertsonek osatzen duten. Gero zuk zeuk aukeratu duzu zeure bidea baina gutxienez ni saiatu naiz zuk argi eduki dezazun erakutsi nahi nizun mezua.

Harro nago zutaz seme, oso harro. Ni bisitatzera etortzeko adorea eskertzekoa da. Nekatuta iristen zara, bidaia luzearen ondoren. Hala eta guztiz ere astero-astero irribarretsu kaixo esaten didazu. Nahiz eta indarra eduki ez, parez pare aurkitzen garenean zure indarraz ni hobeto sentiarazten nauzu.

Familiako bakarra zaitut. Ez zait beste inor gelditzen. Orain eta beti zu izan zara nire bizitza. Ni hemen bizirik egoteko arrazoi bakarra. Behar nauzu nik zu behar zaitudan bezala.

Eskerrik asko, seme, egiten ari zaren guztiagatik. Ez zara benetako gurasoekin hazi, hala eta guztiz ere ez gaituzu ahaztu. Badakizu gehien maite dudan pertsona zarela.

Laster kalean ikusiko garelakoan agurtzen zaitut. Musu eta besarkada handi bat.

Beñat Zabaljauregi Basterretxea
DBH 4. maila
"Gazteok astegunetan jai eta asteburuetan festa"

VASILI ZAITSEV

Txikitatik eduki dut punteria oso ona, baina ez nuen dardoetara jokatzen lortu gainerako umeek bezala, baizik eta "AK-47" rifle batekin esku artean. Vasili Zaitsev deitzen naiz eta nire historia kontatuko dizuet.

Famili txiro batean jaioa naiz, Errusian, Moscu hirian. Etxe zahar batean bizi ginen, jateko gabe, arroparik gabe, ezer gabe, beno txiro guztien antzera. Baina hori paradisua zen geroago etorriko zenarekin.

Gau baten oihu ugariren artean esnatu nintzen, ama eta aita garrasika zeuden eta halako batean balen soinua entzun nuen, hori eta gero isiltasun luze bat. Ohetik irten nintzen oso beldurtuta, eskailerak jaitsi nituen eta ikusi nuenaz aho zabalik geratu nintzen, nire aita eta ama lurrean zeuden dena odolez beteta zeuden, eta bat-batean buruan kolpe gogor bat nabaritu nuen eta lurrera jausi nintzen.

Ordu batzuk geroago esnatu nintzen, oso zorabiatuta eta burua noraezean galduta. Begiak ireki nituen eta harrituta gelditu nintzen, nire inguruan beste 40 mutil zeuden, gutxienez erdiak oraindik esnatu gabe, beste erdiak negarrez eta orduan pentsatu niri egin zidatena denei berdina egingo zietela: Gurasoak hil eta bahitu.

Kamioi batean sartuta geundela ematen zuen, aldapa handi bat igotzen, zeren eta kamioia oso okertuta zegoen. Halako batean gelditu egin zen, eta kamioiko atea ireki zuten. Gizon handi bat zen aurrean geneukana, indartsua, ile luzea eta janzkera militarrarekin, gainera arma bat zuen lepotik zintzilik. Nikolai deitzen zela esan zigun eta denoi apuntatu zigun jaisteko esanez, eta hori egin genuen denok izuturik. Irten ginenean kanpamendu erraldoi bat ikusi genuen mendi artean zegoena, barruko jendea irten ez zedin, dena sare erraldoi batez inguratuta.

Nikolai hitz egiten hasi zen. Hemendik aurrera hori izango zela gure etxea, bertan entrenatuko gintuztela soldadu txikiak izateko, ondoren gerriletara joateko. Amaitzeko mehatxu bat bota zigun: Ihes egiten saiatzen baginen hil egingo gintuztela kupidarik gabe.

Kanpamendu barrura sartu eta gure lo egiteko gela erakutsi ziguten. Dena zikin zegoen, apurtuta eta usain txarra, baina horrek ez zuen axola, hori izango baitzen nire hurrengo hiru urteetarako etxebizitza. Nikolaik atsedena hartzeko esan zigun hurrengo goizean hasiko zela gure entrenamendua.

Gau horretan ezin izan nuen, ez lasai egon ez lorik egin. Beste ume guztiek bezala negar baino ez nuen egin nire aita eta amagatik. Bakarrik sentitzen nintzen, beldurrtuta, ez nekien zer egin behar nuen, baina bai zer ez nuen egin behar, une horretan bertan ikusi eta ikasi nuelako.

Ume bat ihes egiten saiatu zen. Korrika irten zen kuartutik kanpamenduaren inguruan zegoen sareraino eta orduan ikusi nuen zer gertatuko zitzaidan berdina egiten banuen. Soldadu batek umearen hildako gorpua hartu eta eraman egin zuen.

Gauean ez nekien noiz eta zelan hartu nuen lo. Goizean kanpamenduko beste gizon baten oihuekin esnatu nintzen. Bakoitza bere gelarik irten zen.

Gure zereginak zeintzuk izango ziren kanpamenduan azaltzen hasi zen. Goizean esnatuko ginen gosaldu egingo genuen janaria txarra izan arren, kanpamenduari korrika 100 buelta eman ondoren abdominalak eta flexioak eguna amaitu arte. Hori izango zen lehen bost asteetako egunerotasuna.

Egun horretan bertan hasi ginen lehenik eta behin gosaltzen. Janaria jan ere ezin zen egin, ematen ziguten esne apurra urteetakoa ematen zuen eta jateko ogia menditik hartutako harriaren antzekoa. Baina jan egin behar izaten genuen, ez zegoen beste erremediorik.

Ondoren kanpamenduari ehun buelta eman behar izan genion. Hasieran denak ondo zeuden korrikan, buelta pare batzuk geroago jendea atzean geratzen hasi zen eta atzean gelditzen bazinen soldaduak kordel lodi batekin joten zintuen eta horrek min egiten zuen. Horregatik nahiago nuen korrika egin, horrek ere sufrimendua eragiten zidan, nire hanka finak ezin zuten gehiago eutsi, apurtzeko zorian nabaritzen nituen min handia egiten zidaten, baina jasan egin behar izan nuen.

Indar gabe amaitu nuen, eta oraindik abdominalak eta flexioak falta ziren. Ez dakit zelan egin nituen ere, baina amaitu zen azkenean tortura. Ohera joan nintzen, gorputz guztia apurtuta sentitzen nuen, ezin nintzen mugitu ere eta ez nuen sinetsi nahi hurrengo bost asteetan hori egin beharko genuela.

Egunetik egunera ariketak eginaren poderioz, gauzak hobera joan ziren hurrengo asteetan gero eta gehiago korritzen nuen gero eta abdominal sendoagoak nituen eta flexioak inolako esfortzurik gabe egiten nituen eta indar gehiago nuela nabaritzen nuen.

Ez zen egun bat pasatzen nire familiaz oroitzen ez nintzena, ezin nituen ahaztu, ez, ez nituen ahaztu behar, eurei buruzko gogorapenak triste jartzen ninduten arren, behar nuenean indarra ere ematen zidaten.

Asteak aurrera pasatu ziren eta gizon krudel haiek esan ziguten tiro egiten ikasteko ordua zela. Bakoitzari AK-47 errifle bana eman ziguten eta hori izango zela gure lagunik onena aipatu zuten.

Etxe handi baten antzekora eraman gintuzten, bertan urrunean marraztutako gizonen irudiak agertzen ziren eta haiei tiro egin behar geniela pentsatu genuen eta ahala egin behar zen ahalik eta hoberen, beti bihotzera edo burura, gizonek behin eta berriz errepikatzen ziguten esaldia zen hori.Hiru urte luze galdu nituen kartzela zikin horretan eta ikasitako gauza bakarra tiro egitea izan zen.

Egun batean denoi kamiora sartzeko esan ziguten, inork ez zekien zertarako, baina hala egin genuen. Kamioia mugitzen hasi zen eta bere barruan Nikolaik egin behar genuena azaldu zigun.

Susmoa eduki genuen baina ez genuen inoiz pentsatu horretarako entrenatu gintuztela. Herri batera joan behar ginen eta bertako jendea hil behar genuen, ez dakigu, ez zergatik, ez zertarako, ez baitziguten esan. Gauza bakarra esan ziguna hauxe zen " jendea hil edo zuek hilko zarete" "eurak edo zuek"

Herrira heldu ginen eta kamioitik jaitsi baino arinago jendearen oihuak entzun genituen. Ematen zuen ez zela lehenengo aldia hori egiten zietena. Kamiotik jaisteko agindu ziguten eta herri horretako edonor hiltzeko.

Jaitsi ginen eta orduan erriflearekin apuntatzen hasi nintzen eta lehenengo pertsona apuntatu nuena hamar urte inguruko mutikoa zen. Negarrez zegoen oso beldurtuta ez zekien zer egin. Nik ezin izan nuen tiro egin, eskua ezin nuen mugitu ere egin, nire burutik pasatzen zen pentsamendua nire gurasoak ziren eta ezin izan nuen ezer egin.

Mutiko korrika hasi zen. Ni pentsatzen gelditu nintzen eta ideia bat bururatu zitzaidan. Korrika hasi nintzen mutikoaren atzetik, basora sartu zen eta

ni ere bai, korrika segitzen nuen nire idar guztiekin, baina mutikoak azkarra zen eta ondo ezagutzen zuen lurraldea eta ezin nuen harrapatu baina berdin segitu nion.

Azkenen harrapatu nuen, mutiko negarrez zegoen, dardarka, pentsatzen zuen hil egingo nuela. Baina ez nion ezer egin. Hitz egiten hasi nintzen berarekin, lasai egoteko esan nion ez niola ezer egingo. Eskerrak eman nizkion bihotzez, mutikoak ez zuen ulertzen zergatik eta dena azaldu nion. Beren atzetik korrika nindoan bitartean soldadu guztietatik ihes egin egiteko aukera izan nuela eta libre nintzela eta ez nintzela berriz kanpamendura itzuli behar, ihes egiteko aukera eman zidala azaldu nion. Negarrez hasi nintzen pozaren pozez.

Orain hemen nago 20 urterekin rifle bat esku artean dudala, baina oraingoan ez gerrarako edo jendea hiltzeko, joko olinpikoetan parte hartzen nago tiratzaile profesional moduan. Ezkonduta nago bi seme ditut, eta orain dela denbora asko ihes egiten lagundu zidan mutiko txikia nire lagun mina da.

Zihara Jainaga Larrinaga
DBH 4. maila
"Bizi euskaraz, euskara biziz"

NORI

ARBOLA, ARBELA, ORBELA
BERDE, BERDEA
HAIZEAREN ARNASAZGOZATZEN
HODEIETAN KULUNKATZEN
NORI ITXAROTEN ZAUDETE?
TXORIARI, ILARGIARI,
OH! AITONARI!
ALDAPAN GORA
IKUSI DUT.

ARBOLA, ARBELA, ORBELA
AITONARI BEGIRA
BERE OINATZ KIRRIAK
BIDEAK DITU LASAITZEN
HOSTOAK LAZTANTZEN
BIZIBERRIA ESKATZEN
TXORIARI, ILARGIARI
OH! AITONARI!
MALDAN BEHERA
SUSMATU DUT.

HOTSA, ZOTZA, HOTZA
NEGUAREN BIHOTZA
BASOAREN DARDARA
ELURRAREN INDARRA
AITONAREN NEGARRA
NORI ITXAROTEN ZAUDETE?
UDABERRIARI, EGUZKIARI
OH! AMONARI!
SUKALDEAN BARRENA
IKUSI DUT.
HOTSA, ZOTZA, HOTZA
GAUERDIAREN HILOTZA
APURTEZINEKO ARKAITZA
EGIN DEZAGUN AMETSA
BASERRI AURREKO
UDAGOIENEKO MAHATSA
OH! AMONARI!
LORATEGIAN BERBIZTEN
SENTITU DUT.

MEZUA, SUA, MOSUA
URKOAREN BESOA

LOAREN LAUSOA
MAITATZEKO GOGOA
AMESTEKO DESIOA
NORI ITXAROTEN ZAUDETE?
AITONARI, AMONARI
OH! ZEURI, ZEURI!
INON EZ ZAITUT IKUSI.
MEZUA, SUA, MOSUA
ILUSIO OSOA
ITXAROPENAREN USOA
JAIAREN EROA
LAGUNAREN BEROA
OH! ZEURI, ZEURI!
BIZIPOZARI,
MAITASUNARI!

Aurora Isla
DBH 4. maila
"Lagunekin egotea eta kirola egitea gustoko ditut"

AAMODIOAREN GEZURRA

Hasieran dena zen ipuin bat izango balitz bezala, ezin nuen nire irribarrea aurpegitik kendu. Zoriontsu nintzen, eta zoriontsu egiten ninduen. Hasieran bera ere oso pozik zegoen, baina... akatsak egiten hasi nintzen; egun batetik bestera hanka sartzen hasi nintzen. Nire ipuin zoragarria amesgaizto bihurtu zen. Oraindik gogoratzen dut lehen eguna...ostirala zen eta ostiralero bezala mozkortuta iritsi zen. Ni, nazkatuta, ez zuela horrelako mozkorrak harrapatzeko adinik esan nion eta barre egin zidan aurpegira. Haserretu egin nintzen eta oihuka hasi nintzaion, baina berak ez zidan jaramonik egiten, barrezka jarraitzen zuen tentel aurpegi harekin.

Bat-batean bortizki heldu ninduen eta muxu eman zidan. Ginebra zapore nazkagarria zuen ahoan. Bultza egin nion bakean utz ziezadan, baina berriz barre egin eta oraingoan ohera bultzatu ninduen. Arropa kentzen hasi zitzaidan, baina ez nuen esperantzarik ezer egiten uzteko eta ohetik segituan altxatu nintzen. Ikaraturik nengoen. Umekeriak uzteko esan nion, ezin zela horrela portatu...eta horiek izan ziren egun hartan nire azken hitzak.

Haserreturik ohetik altxatu zen eta hormaren kontra jarri ninduen. Beldurra sentitzen nuen, eta gero eta gogorrago heltzen zidan. Negarra ere irteten zitzaidan. Ni geldi-geldi geratu nintzen, eta gero, golpe handia eman nion sabelaldean. Bera lurrean zegoen besoak sabelaldean edukiz. Min aurpegia zuen. Korrika, komunera abiatu nintzen, atea itxi nuen nire atzetik eta kisketa jarri nuen.

Nire bihotza izugarrizko abiaduran zihoan. Ez nekien zer egin eta oso nekatuta nengoen. Begiak erdi zarraturik nituenean, Markel atearen kontra zebilen kolpeka eta zarataka. Atea jausi egingo zela ematen zuen. “Irten zaitez oraintxe bertan edo hil egingo zaitut benetan!” esaten zidan. Ni, bitartean, negarrez. Kolpeak eten zirenean, lasaitu egin nintzen eta komunean bertan lo egitea erabaki nuen. Bainuontzian sartu, eskuzapiekin estali eta ametsetan hasi nintzen. Esnatu egin nintzen. Komuneko erlojua begiratu nuen ordua jakiteko, zapatuko goizeko 10:30ak ziren. Markelek lo egiten jarraitzen zuen. Aurpegia ur hotzez garbitu eta kontu handiz sikatu nuen minik ez egiteko. Gaua hartako liskarrak markak utzi zizkidan. Aurpegia eta besoak gorri-gorri nituen. Ausarki, komuneko atea ireki eta korridorean zehar abiatu nintzen. Oso astiro nindoan, Markel ez esnatzeko. Esnatzen bazen, hil egingo ninduen eta ez nuen hori nahi. Sukaldera heldu eta esne pixka bat berotu nuen gosarirako. Esnea hartu eta mahaian jesarri nintzen isilean. Egia esan, ez nuen inolako gogorik jateko, baina amak gosaria oso garrantzitsua dela esaten zuen beti eta amari kasu egin behar zaio beti. Galleta ahoan sartu nuen, eta murtxikatzen ari nintzenean, Markel agertu zen sukaldearen atetik “egunon maitia” esanez. Susto handia eman zidan eta galleta lurrera erori zitzaidan, baina ez nuen hartuko. Mahaiari begira geratu nintzen eta ez nion ezer esan. Beste galleta bat hartu nuen eta jaten jarraitu nuen. Bera lurrera begira geratu zen aurpegi tristez baina ni gorrotoz beterik nengoen. Barkamena eskatu zidan eta nire ondoan jesarri zen besarkada bat emanez. Barkatzekotan nengoen, baina ezin nuen horrela jarraitu. Ni altxatu eta edalontzia garbitzen hasi nintzen astiro-astiro. Denbora soberan nuen. Markel oso triste zegoen eta nik ezin nuen horrela

ikusi. Jo egin zidan; bai, baina nik maite nuen. Ez nengoen oso ziur azken horretaz baina beste aukera bat emateko prest nengoen. Beregana hurbildu nintzen eta muxu eman nion masailean. Maitasunez begiratu ninduen eta barkamena eskatu zidan behin eta berriz.

Nik barkatu egin nion, eta kalera joateko prestatzen hasteko esan nion. Sukaldearen atean nengoenean, begiratu egin nion eta aurpegi atseginez "eskerrik asko, ez da berriro gertatuko esan zidan. Maitagarria zen. Logelara heldu nintzen eta armairua ireki nuen ohean eseri nintzen bitartean. Ez nekien zer arropa jarri. Azkenean, nire lehengusinak oparitako soinekoa janztea erabaki nuen. Oso ondo gelditzen zitzaidan, bular txikiak izan arren. Jantzi ondoren, komunera abiatu nintzen eta makillaje pixka bat jarri nuen nire begi berdeak nabarmentzeko eta gau hartako markak ezkutatzeko.

Komunetik irten nintzen eta Markelengana joan nintzen ea prest zegoen galdetzeko. Logelan zegoen. Atera hurbildu nintzen eta berari begira gelditu nintzen. "Oso eder zaude" esan zidan eta nire irribarrea handitu egin zen. Joateko keinu bat egin nion eta bere buruarekin baietz esan zidan hitzik gabe.

Eskailerak jaitsi genituen eta portalera heldu ginen. Izugarrizko egun eguzkitsua egiten zuen. Egun osoa kalean igaro ondoren, etxera bueltatu ginen. Ederto pasatu nuen. Hurrengo bi asteak horrela pasatu genituen, beti barrezka eta batera; bikote perfektu baten moduan.

Baina hurrengo ostirala heldu zen eta Markelek ea bere lagunekin martxan irten ahal zen galdetu zidan eta nik, noski, baietza eman nion. Konfiantza osoa nuen beragan. Poz-pozik jarri zen nire erantzuna entzun zuenean. "Ez zara damutuko" esan zidan eta joan egin zen. Ni ez nengoen urduri banekien dena ondo irtengo zela. Edo...orduan, hori pentsatzen nuen. Goizeko 5:00etan heldu zen etxera eta zarata asko egiten zuenez, esnatu egin nintzen. Sukaldean zegoen eta ni hurbildu egin nintzen ea zer gertatzen zitzaion jakiteko. Orduan bai urduri nengoela. Markel aulkian eserita zegoen eta esku bat begian zuen. "Zer gertatu zaizu?" galdetu nion eta eskua begitik kendu zuenean oihu egin nuen. Odolez beterik zegoen dena. Berak isiltzeko agindu zidan baina ni oso beldurturik nengoen. Komunera joan nintzen eta apalategian zeuden gauza guztiak hartu nituen. Sukaldera bueltatu nintzenean, Markel ez zegoen bertan. Buelta eman nuen eta nire atzean zegoela ikusi nuen. Eskuan horman eskegita zegoen koadro batekin, kopetan eman zidan. Odoletan hasi nintzen eta sukaldetik alde egin nuen. Etxeko atera joateko asmoa

nuen baina Markel arinagoa zen eta atea giltzez zarratu zuen. “Zure errua da dena, ez zara hemendik irtengo, hil egingo zaitut” esaten zidan. Esaldi hori errepikatzen zuen; baten, birritan...denbora osoan.

Sorbalda aldean kolpe bat emanez lurrera erori nintzen eta konortea galdu nuen. Esnatu nintzenean gela txuri baten nengoen, ohe bigun batean etzanda. Ospitale bat zen.

Sudurretik sartzen ziren hodi bi nituen. Arnasa hartzen laguntzen zidaten, ez bainuen indarrik ezer egiteko.

Erizain bat sartu zen nire gelan eta janaria zuen erretilu bat ekarri zidan “jateko ordua da” esanez. Nire atzean zegoen botoi bati eman zion eta nire ohea eserleku bilakatu zen. Jaten eman zidan eta amaitu nuenean ea zer gertatu zitzaidan galdetu nion, ez bainuen ezer gogoratzen. Berak nire bikoteak jo egin zidala azaldu zidan eta orduantxe gogoratu nuen guztia. Hain txarto pasatu nuen...ahaztezina zen niretzako. Baina oraintxe ondo nengoela esan

zidan erizainak. Markeli buruz zer edo zer dakien ere galdetu nion eta epaiketa bat izango zuela esan zidan.

Eta hementxe nago zuei nire historia kontatzen.

- *Eskerrik asko Amaia.-esan zuen egunkariko idazkariak.*-Artikulua idazteko laguntza handia eman diguzu.
- *Ez dago zergatik.-erantzun nuen nik.*
- *Azken galdera bat, mesedez.*- esan zuen berriz -. *Uste duzu Markel ahazteko kapaz izango zarenik?*
- *Ez dakit.*- esan nuen.- *Markel izan da nire bizitzaren zergatia eta ez da niretzako erraza izango bera barik jarraitzea. Badakit min asko egin didala, baina ezin dut burutik kendu; txikitatik maite izan dut eta oraindik ere maite dudala uste dut. Aurrera egin beharko dut, baina ez naiz damutuko Markelekin igaro dudan denbora guzti horretaz. Eta ziur nago dena ondo irtengo dela oraindik aurrera.-esan eta lo egiten jarraitu nuen malkoak aurpegia bustitzen zidaten bitartean.*

Ane Ramos
DBH 4. maila

AURPEGIAK

Gaur jaio naiz. Jaione da nire izena. Hamar ordu behar izan ditut jaiotzeko, amaren barrua epela eta atsegina da eta. Garbitu egin naute eta orain bere besoetan nago. Ospitale usaina nabari daiteke, baina batez ere nire amarena usaintzen dut.

Gaur bost urte bete ditut. Ume normal-normala naiz. Ile kizkurra dut, gaua bezain beltza. Begiak ere beltzak ditut. Sudur eta belarri txikiak ditut, eta nire aurpegia aho irribarretsu batekin osatzen da. Nahiko lotsatia naiz, eta ez zait amarengandik asko urruntzea gustatzen. Ez dut aitarik, nire ama ezkongabea da. Eskolara joaten naiz, eta bertan gehien gustatzen zaidana marraztea eta margotzea da. Handitan medikua izan nahi dut.

Gaur hamabost urte bete ditut, eta badakit bizitzan zer egin nahi dudan: medikuntza, bereziki kirurgia plastikoa. Ameriketara joango naiz ikastera eta ohorezko matrikula dudanean, hona, Euskal Herrira bueltatu eta zirujau egingo naiz.

- *Eta, zergatik zirujau plastiko?* –galdetu dit amak.

Eta nik bueno, ez diot erantzun. Zer dela eta nahiko ote dut nik zirujau izan? Fama, dirua ... Ez, ez da horregatik. Bai, badakit zergatik den.

- *Ama, gogoratzen zara, azken aldiz eskiatzera joan ginenean, ikusi genuen ume ukraniarra? Txernobil inguruan jaioa zela ondorioztatu genuena? Bueno, ba ume hark aurpegiko malformazioa eta beso bat bestea baino argalagoa zituen.*

- *Bai akordatzen naiz. Pena handia eman zidan, ume koitadua.*

- *Ba, halako jendeari lagundu nahi diot, beraien itxura ahalik eta normalena izan dadin.*

Gaur hogeita bost urte bete ditut. Nire lehen lanpostura aurkezten naiz. Orain arte ikasten eta praktiketan egon naiz, Kalifornian. Gogor lan egin dut, bertako mediku onenen alboan egon naiz, nire jakin-mina asez – amerikarrak oso aurreratuta daude euskaldunekin alderatuz gero, beraien erremintak, eskanerrak, etab. gureak baino mila aldiz moderno, eraginkor eta zehatzagoak dira –. Gorputz atal guztiak ederragotu ditut, kapaza naiz modelo zein aktoreei ebakuntza egin eta emaitza positiboak lortzeko. Baina badago atal bat ... aurpegia. Aurpegia arimaren isla dela diote, eta momentuz, ez naiz gai pertsona baten arima aldatzeko. Sudur bat, ezpain batzuk bai, alda ditzaket, baina aurpegi bat? Ez, ez naiz kapaz aurpegi transplante bat egiteko, oraingoz ... ume hura ... haren aurpegia ...

Bat-batean, nire bizitzak buelta eman zuen. Nireak eta jende askorenak. Garoñak eztanda egin zuen. Abisatuta zegoen mundu guztia, zentral nuklearrak arriskutsuak dira berez, Garoñak urte asko zeramatzan oso arriskutsua izaten, abisatuta geunden ...

Eta orduan, jende asko hil zen, ume okerrak jaiotzen ziren, aurpegiko malformazioekin, beso bat bestea baino argalagoarekin, eta nik, aurpegi perfektuekin amets egiteari utzi, amets egiteari utzi, lo egiteari utzi, eta negar egiten hasi nintzen, ukraniar ume harengatik, ukraniar ume guztiengatik, euskal umeengatik, zentral nuklearrengatik, urteak pasatu ziren, nire ohorezko matrikula lurrazaletik desagertu zen.

Gaur hogeita hamabost urte bete ditut. *Shock* egoeratik irten naiz, eta berriz ere, kirurgiara zuzendu dut nire bizitza. Lan asko dago egiteko, geroz eta jende gehiago osatzeko. Bizi itxaropena %30 txikitu da, baina jendeak borrokan jarraitzen du, bakoitzak maite duen jendea laguntzen du, dena emanez, elkarrengatik. Jendea ihes egiten ari da kutsadura nuklearretik urrun, Ameriketara, Kaliforniara.

Eta orain nik ebakuntzak egiten jarraitzen dut, besoak, hankak anputatzen eta ortopedikoengatik aldatzen ditut, eta abar luze bat. Nire ametsak zirenak amets izateari utzi zioten, eta nire lanbidea zenetik ezer ez da gelditzen bizitza berri honetan. Jendea ederrago egin beharrean, bizirik jarraitzen laguntzen diot.

- *Pasa iezadazu bisturia.*
- *Tori.*
- *Nola dago pultsua?*
- *Ondo, jarraitu.*

Gaur berrogeita bost urte bete ditut, nire aurpegiak malformazio bat jasan du. Azalduko nizueke zelan gertatu den, baina oso esperientzia latza eta mingarria izan da, eta ez naiz gauza berriz bizitzeko. Laster egingo didate transplantea, eta urte batzuen buruan, hitz egiteko, jateko eta emozioak adierazteko kapaz izango naiz.

Transplantea mingarria izan da, eta momentuz ezin dut aurpegia mugitu. Ezin ditut begiak ireki, ezin ditut aldi berean sentitzen ari naizen mina eta arindura adierazi. Baina burmuinak lanean jarraitzen du: jendea hiltzen ari da, zirujauen beharra dago, animo, maskara moduko hau nire aurpegi bihurtzen denean, lanean jarraitu behar dut, ume ukraniar hura ... berarengatik ... aurrera. Nigan ere pentsatzen dut, nola nik ez nuen nire burua aurpegi transplante bat egiteko gauza ikusten, eta azkenean, niri egin behar izan didaten. Orain esperoan nago, ispilu bat nire aurrean noiz agertuko, eta nik nire aurpegi 'propioa' berriz noiz ikusiko. Nire familia nabaritzen dut inguruan, jendearen joan-etorriak korridoreetan, erizainen frogak, ospitalearen usaina, eta erlojuaren hotsa, segundoro, segundoro, tik-tak, tik-tak.

Gaur berriz jaio naiz, berriz ireki ditut begiak, ohorezko matrikula berriz agertu da, eta ukraniar umea eskiatzaile profesionala da.

Jone Irigoien Romanillos
DBH 4. maila
"Biderik luzeena ere beti pauso batez hasten da"

BADAUDE AUKERAK

Badira ia bi aste orri zuri honek bueltaka darabilena nire ohe ondoko mahai gainean. Orduak eman ditut honi begira, zer idatzi asmatu nahian, baina noizbait guztioi gertatu zaigun bezala, beldurra sentitu izan dut orri zuriaren aurrean boligrafoa eskuan dudala jezarri eta zerbait idaztera behartua sentitu naizenean. Eskolan aurkezteko istorio batetan pentsatu beharrean, eguneroko arazoetara joaten zen nire burua, azkenik beste gauza bat egitera bultzatzen ninduen arte eta beste behin, hemen geratzen zen orria, lehendik zegoena baino zuriago. Gaur ordea, ohe gainean etzan, eta nire irudimeneko ateen zirrikitutik ideiak noiz irtengo zain nago berriro, boligrafoa eskuetan, eta zuria zenaren gainean zirriborro batzuk islatzen hasi naiz.

Lehen ideia, gehienoi gertatu ohi zaigun bezala, maitasuna. Nekatuta nago ordea honi buruz idazteaz. Gai erraza, guztiok bizi izan baitugu maitasuna, modu txarrean edo onean, eta gehienetan identifikatuta sentitu baikara milaka istoriorekin, baina nik uste maitasun istorioak ez direla idatzi eta besteen aurrean azaltzeko, bizitzak ematen digun aukera hau bizi egin behar da, bakoitzak bere modura, ondoan daukazun eta maite duzun pertsona hori ahalik eta zoriontsuen egin eta berak ere horrela egin zaitzan kontuan hartuta, sufrimendua alde batera utzi eta bizitza elkarrekin gozatzeko aukera aprobetxatuz.

Txirotasuna izan da ene burutik igaro den bigarren ideia. Gai ona eta tristea batera, badauka zer esan eta une batez gure burua alde batera utzi eta besteengan pentsatzeko aukera zabal dezake. Hala ere, honi buruz hitz egiteko ez dut uste aproposena naizenik. Nire iritzia eman dezaket, eta bertatik ikusten dudana azaldu, baina pobreziak eta egoera hau sufritzen ari diren milaka pertsonen egoerak sinesgarritasun eta emozio gehiago izan dezan, barnetik egunero gosea, langabezia, etxe baten beharra, ikasketa eza, eta bizitza maila on bat edukitzea galarazten dieten beste zenbait arazo sufritzen ari den norbaiten hitzak entzun beharko genituzke, hauek baitira, egoera jasangaitz honetatik irten nahi eta laguntza eta ekonomia faltagatik ezin dutenak.

Nazkatu naiz. Ez dut nire gustuko gairik aurkitzen. Goizaldeko ordu biak izanik, orain burutik pasatzen zaidan bakarra lo egitea da. Amets egitea. Eta

ez, aipamen hau ez dut egiteagatik egin. Gauero ametsen mundura bueltatzeko irrikaz oheratzen naiz, zortzi bat ordu nire buruarekin nahi dudana egiteko, gauza berriak probatzeko, inoiz ikusi ezingo dudana ikusteko, errealitatean bizi nahi eta ezin ditudan gauzak bizitzeko eta nire irudimeneko fantasietan murgiltzeko. Gaur, ideiak bilatzen saiatuko naiz errealitatetik at dagoen mundu txiki eta bitxi honetan, beraz, biharamunean ekingo diot berriro orri hau behin eta berriro zikintzeari.

Bart nioen bezala, gaur gauean ere, mundu hau beste begi batzuekin ikusteko aukera izan dut, utopia batetan murgildu eta guztia desberdin ikusi dudanean. Izandako ametsa errealitate bihurtuko banu, ziur nago aurrerapauso handia litzatekeela gizarte honentzat. Baina ez dut amestu dudana kontatu nahi, oraingoz ez behintzat. Orain burua freskoago dut eta ideiak garbiago, beraz, gaiak bilatzen jarraitzeari ekingo diot, ea gaur gustuko zerbait aurkitzen dudan.

Gorrotoa. Gurasoengan, lagunengan, gauzengan edota herri batengan sortzen zaigun sentimendua. Gure barnean gauzatzen doan amorru, beldur, ezinegon eta beste sentsazioen nahasmendu horrek gure buruaren autokontrola bereganatu eta askotan gehiegikeriaz edo burugabekeriaz jokatzera eramaten gaitu, gerora esan izanaz damutuko garen hitzak esanez.

Hitzen indarra. Gure ahotik irteten diren eta egunero komunikatzeko erabiltzen ditugun hitz hauek askotan haien indarra kontuan hartu gabe erabiltzen ditugu. Hitz bakar batekin norbaiti sufrimendua gauza diezaiokegu, edota poztasuna, gorrotoa, maitasuna... Hitzak baloratu ezineko altxorra dira. Hauetako bakar batek zure bihotza sutan jartzea lor dezake, bizitza alda diezazuke, eta inguruan sor dezakeen oihartzuna izugarria izatera heldu daiteke. Hauek erabili eta hauekin jolasteko aukera paregabea, bertsotan erabiltzea da, eta hau bai, hau nire gustuko gaia suertatu da.

Egun aproposa ere, gai honen inguruan hitz egiteko. Ordu batzuren bueltan zortzi gazte eta ez horren gazte, hitzen esanahi eta oihartzun gogorrenak bilatzen ariko baitira, hauek elkarren artean ondo konkordatuz esanahi garbi eta esanguratsuak entzuleen belarrietara ez ezik bihotzetara ere iritsi daitezen.Orria eta boligrafoa poltsan sartu, autoa hartu eta Bertsolari Txapelketa Nagusirantz abiatu naiz, beste bi lagunekin batera.

Erdialdeko aulkien artean tokitxo bat bilatu eta bertan jezarri naiz, kasualitatez ezagunak ondoan, eta dagoeneko Andoni Egaña ari da bertan batu ga-

ren 14500 pertsonei agurra eskeintzen oholtzaren gainean. Agurrak dexente gustatu zaizkigun arren, ondorengoak ere deskribaezinak izan dira, hitzik gabe utzi dute BEC erdia, txaloak ematera bultzatzen gaituen zirrara hau izugarria da. Gai asko jorratu dituzte oholtza gainean dauden 8 bertsolariek, hala nola, berdintasuna, eraso sexistak, Euskal Herriaren egoera kaxkarra, hizkuntza, txirotasuna, anorexia, familia-harremanak, eta beste zenbait eguneroko gai. Lehenengo banaka aritu dira; ondoren binaka, gai xelebreekin jolastuz; gero elkarrizketak sortu dituzte, eta azkenik kartzelakoa. Azken honetan bertsolari bakarra oholtza gainean eta gai baten inguruan hiru bertso sortu behar izan ditu. Bitartean beste 7ak, hau ez entzuteko moduko leku batean haien txandaren zain, urduri. Egun guztian zehar iraun duen emozio honen ondoren, amaiera iritsi da. Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus oholtza gainean, txapela bietako nork eskuratuko duen jakin ezinik.

Gehiago harritu ezin gaituztela pentsatu dugun arren, haien bertsoen egitura eta esanahi sakonak entzuleen bihotzen barneraino helarazatea lortu dute. Lehen, emozioa handia bazen, orain hemengo giroa txaloz, zarataz eta olatuz beteta dago. Eta hitzen balioaz jabetuz, Maialenek begiraden aipamen bat egin du, jendeak oso gogoko izan duena. Bi begiradek elkar gurutzatzean sor dezaketen sua. Hitzek ez ezik, begiradek ere indar handia izan dezakete, eta transmititu nahi den edozer transmiti daiteke hauen bitartez, beste begiradarengan norberaren barneko sentimenduak islatuz.

Azkenik guztiok gogoz itxarondako momentua, aurtengo Euskal Kulturaren zati handi baten irabazale nor suertatu den jakiteko unea. Bertsotan guztiak primeran aritu diren arren eta guztien esfortsua izugarria izan den arren, txapela Maialen Lujanbiok jantzi du. Istorian zehar gizonek hartu izan duten postua aurten emakume batek lortu du, merezita lortu ere. Honek sortutako poz-taupadek pabelioi osoan zehar burrunba izugarria sortu dute. Bertsolariek azken agurrak abestu dituzte, guztiek Maialeni zorionak emanez, eta gu guztioi gure herria aurrera ateratzeko indarrak eta animoak emanez.

Saioa, txapeldunaren agurrarekin bukatu da, goizeko 11etatik bertan egon garen guztioi luzatu nahi izan dizkigun hitzak hauek izanik, eta bide batez, Mikel Laboaren kanten doinuetako baten bitartez, honi omenaldi txiki bai eskeiniz:

Gogoratzen naiz lehengo amonen zapi gaineko gobaraz
gogoratzen naiz lehengo amonaz, gaurko amaz ta alabaz
Joxei ta zuei mila zorion miresmenaren zirraraz

ta amaituko dut txapel zati bat zuek guztiontzat lagaz
gure bidea ez da erraza bete legez juizioz trabaz
Euskal Herriko lau ertzetara itzuliko gara gabaz
eta hemen bildu den indarraz, grinaz eta poz taupadaz
herri hau sortzen segi dezagun euskaratik eta euskaraz

Maialen Lujanbio

Gaur egun gure kulturak bizirik diharduen arrazoi bat dira bertsoak, eta gaurko ekitaldia paregabea izan da hau bultzatu eta milaka pertsonengana helarazteko. Hitz bakar batzuek mikrofonotik pabelioi osoan zehar hedatu eta olatuak sortzeko bezain beste indar izan dute. Euskal gazteria, Euskal Herria eta Euskal presoen aipamenak behin eta berriz egin dira. Gaur, zoritxarrez, jende asko falta izan da gure artean, baina hurrengo ekitaldian ziur aulki gehiago egongo direla, gaurkoan falta izan diren eta haien herritik kanpo milaka kilometrotara dauden guztientzako.

Lehen, ametsak aipatu ditut, eta bertso jarduna ere ametsez beteta egon da. Beraz, bart izandakoa paper honen gainean idatzitza utzi nahi dut, ametsa izan arren, badakidalako noizbait guztion artean egi bihur dezakeguna. Guztiok apur bat emanez, gutxi batzuek dena eman behar ez dezaten.

Bart amestu dut Euskal Herriko txoko guztietan jendea
euskaraz mintzatzen zela.
Bart amestu dut Euskal preso eta iheslariak haien
etxeetan zeudela, familia eta lagunekin batera.
Bart amestu dut pertsona orok etxebizitza
duin baterako eskubidea zuela.
Bart amestu dut Euskal Herria bizitzen ari den
zapalkuntza politiko-soziala existitzen ez zela.
Bart amestu dut, emakumeen eta gizonen arteko
desberdintasunak, berdintasun zirela.
Bart amestu dut, pobrezia hitza ezezaguna zela.
Bart amestu dut, arazo ororen gainetik, maitasunez,
errezpetuz eta justiziaz jokatzen zela.
Amestu dut, eta esnatu naizenean ametsa besterik
ez dela izan konturatu naiz. Ametsa bai, baina ez ezinezkoa.

Markel Amillategi Mendikute
Batxilergoa
Bizitza ederregia da makurturik bizitzeko!

1. IZARA ARTEKO AGURRAK

Makillajearekin estaltzen zuen gizonaren sinadura
eta irribarre behartuekin saihestu besteen ardura.
Semeari,lagunei egia ukatu
eta gizonaren gaueroko irainak sinistu.
Kolpeez eta oihuez giltzapeturik bizi izan zen
egunero hiltzen,nahi eta ezinean bizitzen
merezi gabekoa jasaten.
Orain beste askorekin zerrenda luzea osatzen du
hilerrian da errefuxiatu
semea gogoratzen du
gizona tamalez beranduegi gorrotatu
honek baitu lur-azpian hondoratu

2. ILUNTASUNARI IHESI

Ehiztariek arrano guztiak beraien habiatik kanporatzea lortu zuten eta beleak berriz ere nagusitu ziren herrian. Sirena hotsak iluntasunaren ahots bihurtu ziren eta bele beltzek herrian zegoen argitasun apurra itzaltzea lortu zuten. Bidaiak aurrera jarraitzen zuen eta infernuko ateak parez pare irekiak nituela argi neukan. Otoi egiteak ez zidan lagunduko barruan, jainkoak ere ez baitu sarrerarik hurrengo hilabeteraino. Gaua kalean zebilen ibiltari bakartia bihurtu zen eta ni honen aurretik nenbilen, bi pausu aurretik. Nire atzean gauaren bele beltzen oin hotsak sumatzen nituen, baina ez nuen gauak berea egiterik nahi eta bizkorrago joan nintzen. Nahiz eta bizkorrago joan ez nuen ihes egiterik, aurrean beste bele bat baitzegoen eta honen atzean beste hiruren itzalak nabaritzen nituen. Gauak bere armada nire aurka jarria zuen zuzen zuzenean. Baina halako batean geratu, eskuetako izerdi hotza jertsean itsatsi eta begiak ongi ireki nituen.Atzetik segika nituen pauso hotsak iluntasunak irentsi zituen eta aurrekoak aitzitik handiagotu egin ziren, preso nengoen. Istant horretan begiak itxi nituen berriz, eskuak altxatu eta arranoen lez ihesi abiatu nintzen beleak heldu ezin ziren habiaraino eta argiak iluntasunari irabazten zion lekuraino.

3.
Lehenengo mezuak ezabatzen ez ditudanak
azkenak beti ahaztu nahi ditudanak.
Agur batekin sinatuak izaten direnak
edota laster arte batekin agurtuak.
Begietara begiratu gabe esaten direnak
eta isiluneekin isiltzen direnak.

4.
Gaur goizean ohartu naiz maitasunak utzitako hutsuneak
laztan faltsuekin ez direla betetzen.
Gau bateko hitz monotonoak
ez direla hurrengoko goizean gogoratzen.
Alkoholez itotako hitz gezurtiak
sentimendu gabeak
ilargiarekin batera hodeien besapean ezkutatzen direnak
momentuko nahia soilik marrazten dutenak
beti direla ahazten direnak.
Hitz asko ze erraz ahazten diren
eta zenbat isilune gogoratu

5.
Erortzen ikasten dela zioen agureak
bere bastoiak zilegi itxura ematen ziotelarik bere hitzei etxola aurrean
ez dut hala ere oraindik ikasi.
Nola ordea,
ni neu bainabil aurrean jarri zaidan hori lurrera erorarazten

6.
Barkatu hitzak bere tronua aspaldi irabazi zuen nire hiztegian.
Ispilura begiratu eta ezagutzen ez naizela ikusi dut
beti ongi joan daitekeena korapilatzen,nahasten, txapeldun
galtzailetzat oheratzen.
Promesen hitzen aukera galdua
irabazia daukate esaldiek herio kondena
bakardadean joatearen baimena.
Lau haizetara jaurti nahiko nuke batzuetan
baina ez dut barneko labirintoaren sarrera bera ere aurkitzen.
Nondik hasi, zeri heldu, ezin irtenbidea aurkitu.
Bihotz partituak jaberik ba ahal duen gaurko ariketa
Denborak erantzuna

7.
Maite zaitut baina urrun egotea hobe duzu
nigandik urrun.
Nire loreek arantzak dituztelako eta bonboiak kaxetan urtuak daudelako.
Erromantiko fustratuen gisan nire buruaren zentsuaren bila bidea
hasi behar dudalako
Agian egoista,agian.Nirea aurkitu beharrean
Ahaztu.Oroitzapenekin itoko dut ene egarria eta sabela zure
soberakinekin bete.
Argira begiratuz itsutu arren berdin zait zure irudia ikusten
azkena baldin bada
azkena eta lehenengoa piztuko den berri horretan.
Bertan aurkituko dut bidea oroitzapenezko zakua lepoan hartuta
bera ondo itxia, oroitzapenek ere behintzat ihes egin ez dezaten.

8.
1000 letra idazteko aukeran mezuen txokoan
Hala ere ez dut hitzak josten asmatzen
Nola aldatu diren gure arteko mezuak gauero egiten dit min

Ohean etzanda nago eta loak ez du nirekin oheratu nahi.
Begiak itxi eta ireki hari dira, ez dute barkatu nahi
Bihotzak negar egiten du, ez du ahaztu nahi.
Jada 703 letren faltan eta hemen darraie hitzak ihesean eta ni ezinean
630ekin agur esan beharrean,negar batean
Ahaztezina izan zen hura gogoratzean

9.
Autobusean noala irratiak ez dit lo egiten uzten
Hitz egiten dagoen horrek zure ahotsa duela iruditzen zait
arreta jartzen dut
ahotsaren doinuaren gatibu.
Eta ez, gaurkoan ere ez zara zu.
Lo egitea erabaki eta ametsean aurkituko zaitudan esperantzarekin abiatzen naiz
Kantuan bezala esperantzara kondenatuta.
Ametsetan elkartu bezain pronto bidaia bukatu da eta autobusetik jaitsi naiz.
Kaleetan barrena pausoek naramaten bideari men eginez
zurekin topo egiteko ilusioz,hala ere euri honekin ez dut jendea desberdintzen
beharbada gurutzatu zaitut eta ez gara ohartu, edo hori nahi nik.
Tristuraz euriaren azken tantak alokatzen ditut malkoen beharrean
Negar malkoek ez dutela ezertarako balio esan zidatelako behin
barruan badaramazu pertsona hori.
Horregatik hautsez beteriko autobuseko aulkitik esnatzean
Eta zure berotasunaren itzala nabaritzean barre egingo dut!
Irratiko esatariak eta kalean euritan igarotako mamu horrek
Ahaztu ez zaitudala gogoratzen didatelako

Irune Aberasturi
Batxilergo 1. maila

"Ametsak izatea bizitzan muga bat jartzea besterik ez da; aitzakia bat gure nortasuna osotzeko"

ZORRA OBSESIO BIHURTZEN DENEAN

Bere begien segundo bakarreko esaldiak gau osoko solasaldi neketsu bat oparitu zidan.

Baserri bakarti batean bizi den agure alargun batek baino bizitza sozial gutxiago neukan momentu horretan; eta beraz, horrelako aukera bat egin beharra nahikoa zen dozena bat gaupasa egiteko.

Gehiegi zen niretzako gurasoen onarpenik ez izatea; eta batez ere, nire lagun bakarra alboan ez edukitzea. Egia da gai izan beharko nintzatekeela

nire golkora begiratzeko, baina zor nion guztia ikusita ez nintzen aukera hori planteatzeko eskubidearekin sentitzen. Gainera, desiratzen nengoen.

Esan bezala, nire gertukoenen iritziaren aurka joan eta egin beharrekoa egin nuen: nire bizia saldu, menpeko bihurtu. Zergatik? Ez dakit. Edo agian bai, eta ez dut onartu nahi.

Bizitzan zerbait oso garrantzitsu bihurtzen denean, itsutu egiten zara eta kontrola galtzen duzu. Gehiagoren beharra sentitzen duzu eta ez zara geratzen mugara heldu arte. Eta mugara heltzen zarenean, niri orain gertatu zaidan bezala, atzera begiratzen duzu eta zeure buruari galdetzen diozu ea zergatik bide guztietatik hau aukeratu duzun, ea zergatik itsutu zinen.

Hasieran, bizitzak irribarre egiten zidan, itsu bati berriz ikusteko ahalmena luzatzen dionean bezalaxe. Benetan baliotsu sentitzen nintzen. Nire albora laguntza eske hurbiltzen zen edonor laguntzeko gai nintzen eta jainko moduan tratatzen ninduten. Sentsazio zoragarria zen. Orain ordea, gustatuko litzaidake bizitzak eman berri didan ikuspegi hau eman izan ez balit. Ez zait gustatzen ikusten dudana eta damu dut.

Eskaintza ezin hobea zen, familia uztearen truke bizitzan nahi nuena egingo nukeen eta nahi nuen tokian. `Gazte batentzat hori paradisua da!' - pentsatu nuen. Baina gaztaroa laburra bezain erabakigarria eta traidorea da bizitza honetan. Gainera nik dena zor nion, nire gaztaroa eta haurtzaroa; eta agian zahartzaroa ere. Ez, ez nintzen eskubidearekin sentitzen. Hori guztia zor nion zerbaiti ezin nion ezetzik esan, hitz hori ez zen bidezkoa.

Ate madarikatu hori zeharkatu nuenean gertatu zen. `Elkarrenganako errespetuaren alde' horrela zioen irakurri nuen lehenengo kartelak. Eta horren alboan polizia bi zeuden, lanean, emakume batekin. Aurpegia beltzunez beteta zeukan emakume batekin, nire zain.

Bigarren begirada bota eta Baque makinaren alboan zapata berdedun gazte altu bat ikusi nuen. Graduatutako Ray-Ban batzuk zeuzkan begiak babesten, belarriak baliobako zarata batekin kutsatzen zituen bitartean. Jaka

dotore bat zeukan jantzita. Oso zainduta zeukan ilea eta inongo emaitzarik jaso gabe, estiloa ere zaintzen saiatzen zen eskuturreko eta belarritakoak erabiliz. Moda munduan etorkizunik ez duen afizionaturik handiena izateko gutxi falta zitzaion.

Azkeneko errepasoan begirada tristeekin topatu nintzen, tristeegiak aukeran eta horregatik utzi nion begiratzeari; eta lanari ekin nion. Irrikatzen nengoen, lana helduleku hartuta munduari bira eman nahi nion. Horrela izan zen.

Bilbo – Pekin – Bilbo – Bartzelona – Ingalaterra – Berlin – Paris – NEW YORK. Denak banan-banan. Urteak hegaz pasatu zitzaizkidan. Kontua da eskaileran gora joan nintzela. Lehendabizi, ate madarikatu haren atzean, Galdakaoko ospitalea aurkitu nuen. Lanean hasi nintzen, jendeari laguntzen, haiek zaintzen, gustura. Baina nik gorago joan nahi nuen eta aukera izan bezain laster horretan jardun nuen.

Txinara bidaia zoragarri bat egiteko beka bat eskatu eta hautatu egin ninduten. Konturatu baino lehen Txinan nengoen medikuntza tradizionaleko hainbat teknika ikasten. Inoiz imajinatuko ez nituzkeen gauzak ikasi eta bizi izan nituen, eta Bilbora bueltatu nintzenean nire jakinduria konpartitzeko aukera eman zidaten.

Itsutu nintzen jada. Guztiz itsutu ere. Konferentzia bat emateko eskatu zidaten, jendeari fitoterapia eta "tui na" bezalako kontuak zer ziren irakasteko asmotan. Asko gustatu zitzaiela onartu zidaten eta honetarako balio nuela sinestarazi. Hortaz, horretan jardun nuen buru belarri.

Mota guztietako konferentziak ematen nituen (salbuespenak salbuespen) hizkuntza ezberdinetan. Eta heldu zen begirada haren momentua. Familia. Lagunak. Denak uzteko proposamena heldu zen. Onartu egin nuen, noski.

Horrela pasatu ziren nire bizitzatik Bartzelona, Ingalaterra, Berlin eta Paris. Eta baita New York ere. New York. Hori zen nire ametsa. New York ezagutzea, New York konkistatzea.

Lortu egin nuen, bai horixe. Nire bizitzako ametsik handiena betetzea lortu nuen. Eta bide batez medikuntzari zor nion guztia bueltatu nion. Berari esker hainbat medikuk kantzerrarekin hil ez nendin lortu zuten eta nik ere lagundu diot beste mota bateko ekarpenak eginez. Edo hori sinetsi nahi dut behintzat.

Dagoeneko zorrak kitatutzat eman ditut eta atzera begira geratu naiz. Gazte hitza urruti geratzen zaion emakume arraro bat besterik ez naiz. Familiarik sortu ez duen emakume bat. Bikotekide bat zer den ez dakien pertsona antzeko zerbait.

...

Bost lagun jarri zitzaizkidan pare-parean begirada tinkoz zerbait adierazi nahian, baina nolabait ez ziren ausartu.
- *Susmo txiki bat daukagu, eta hori guztiz deuseztatzeko, froga bat egingo dizugu.* – Horrela mintzatu zen lehena.
- *Egon lasai, ez dizu batere minik egingo.* – Bigarrena.

Bi ordu geroago lehengo gizon berbera hurreratu eta gela batean beste froga batzuk egin behar zizkidatela esan zidan. Biharamunean ospitaleko ohean jaiki nintzen. Ziotenez, garunean kantzerra neukan eta nire bizitzako azken segundoak izan ahalko liratekeenak lasai igarotzeko, ezer esan gabe ebakuntza egin zidaten. Zorte handia izan nuen. Bizirik nengoen.

Hala eta guztiz ere, ez dut inoiz inorekin gai honi buruz hitz egiten, errespetua diodalako. Edo beldurra. Edo agian oroitzapen gehiegi, besterik ez.

Zer da garrantzitsuagoa itsu batentzat, makila ala txakurra? Eta txakur batentzat, konpainia ala pentsua? Eta makila eta txakurra behar dituen itsu izandako batentzat, jendea ala lana?

Hamazazpi laztan eta begirada konplize bat behar nituen momentu horretan. Eta horren atzetik, zaplazteko on bat. Edo 90 dezibelioak atzean uzten dituen garrasi horietako bat. Hori zen neure buruari eginiko diagnostikoa. Hortaz, denbora bat familiarekin igarotzera joan nintzen, "*altxorraren*" bila.

Bilaketa ez zen gaizki joan eta nire obsesioa kontrolatzen ikasi nuen, edo antzeko zerbait. Berriz ere hasteko prest nengoen, nire lana zain zegoen. Lana. Zein zegoen zeinen zain? Aukera guztietatik egokiena al zen, ala berriz itsutzeko tentazio bat?

New Yorkera itzuli naiz gehien gustatzen zaidana egiteko: ikasteko. Little Neck izeneko herrixkan kokatu dut nire egoitza nagusia, nire egoitza bakarra, eta hainbat urtez konferentziak ematen (garuneko kantzerrak barne) eta gauza berriak ikasten jardun izan dut. Lanpostu paregabea eskaini didate eta pozik onartu dut: Long Ireland-eko klinika pribatu batean hasi naiz lanean kirurgia espezializatua bukatu ostean.

Momentu honetan nire bizitza lasaia da.
Ez itsu batena bezalakoa, ezta zoro bakarti batena bezalakoa ere. Nire bizitza propioa da, bere izaera propioarekin, izen zehatzarekin. Bizitzak ekarriko dizkidan aukerak onartzeko irekita nago.

Irati Seijo Diez
Batxilergoa
"Ikastolaz akordatzen naiz azkenaldi honetan, hazi eta hezi gintuztenez"

AREAGO PAGO ULUAK BAINO

Egun iluna zen. Eguzki izpiak ere hodeien artean galtzen diren horietako eguna. Lepotik zintzilik berunezko zama bagenu lez oker okerka ibiltzen garen egun horietakoa zen. Irribarrerik alaienak ere garaitzen direnetakoa. Betileak pisutsu bihurtu eta eurok eraginda begiak zarratuta sumatu ohi ditugun egun ilun horietakoa zen, *Haitzpe* mendi magalean zabaltzen den basoan. Egunaren argitasunak dakartzan txorien txorrotxioak ere hor zehar galduta zeuden egun hits hartan.

Herria artean lo zegoen, basoaren hegal batean, Haitzperen altzoan. Haize finak laztantzen zituen erreka alboko zuhaitzak eta hostoak ferekatu negu sasoi hartan.

Ustez lo sakonean zegoen herri honek bazekien ez zuela lozorro hartan jarraitu behar. Edo bestela esanda, herri honek bazekien jaiki egin behar zuela. Bazekien egun hartakoak eragina izango zuela. Lei izara eta aire fin guztien azpitik bazekien esnatu beharra zeukala bizirik iraun nahi bazuen. Jakin behar zukeen bederen. Jakin behar zukeen ametsen mundua atzean utzi behar zuela eta baita letaginak zorroztu behar zituela. Bizitzeko, letaginak zorroztu eta belarriak tentetzeko premia zuen, lemari eutsi behar zion. Iparrorratzari begira, aurrera joateko bidean mantenduko zuen lemari eutsi. Teilatuko haize-orratza hara- hona ibili zen egun hartan. Egun hartan eta aurrerantzean ere. Haizearen norabidean aldaketa izango zen egun hartan. Izango zen. Izan zen.

Neguan teilatu zuriz jantzi eta udan arranoen hegaldiei so bizi zen mendiaren aterpeko herrixka honi, iparraldean, han urruneko zerumugan, itsasoa ageri zitzaion. Bata bestearen ondoan pilatutako baserri erako etxeek osatzen zituzten karrikak eta ertz batetik abiadan zihoan errekako urak hornitzen etxeak.

Aberatsa zen, aberatsa oso. Herri honek aspalditik dakien eta zekien lez. Ezjakintasunean bizi zen halere, ezjakintasunean edo itsu-itsuan. Oilo haren kukurrukuak goizero esnatu eta begiak irekiarazi arren, gauzak ikusteko gogorik ez zuen nonbait. Haurren antzera eskutxoak begien aurrean jartzen zituen, begiak itxita, eskua begiaren kontra eta begia eskuaren kontra. Ez zen ezertaz jabetzen, era horretan ez. Bazekien aberastasunak eramango zuela galbidera baina ez zuen jakin nahi. Aberats izateak inguruko herriak gorrotatzera bultzatuko zuen. Herri honek herritarrak maite bazituen ere, aberastasunak zituen erailko, etzanaraziko.

Lanbro hezeak teilatuak bustitzen zituen egun itzal hartan, ilargia ostertzean barna aspaldi gordea zen. Leiho zaharren kirrinkak, herrixka egun bat gehiagoz esnatu zela iragartzen zuen, egun bat gehiago bizi zela. Baina ilargia zerumugan, lurraren magalean aspaldi gorde zen arren, basoak lo zirauen inguruak bezalaxe. Sugelandarak lurpean eta txantxangorriak habian gordeta babestu ziren mutu. Azeri eta azkonarrek pauso arinez bilatzen zuten babeslekua, mozoloak gau luzearen ondoren, lotaratuta amets egiten zuen bitartean. Hilda zegoen ingurua, zendua basoa. Hildakoaren mozorroa zeraman soinean.

Behatzazal garratzak ziren haiek. Errekaren ur emaria mantsotu ez ezik behelainoa ere ziztatu zutenak. Uluen soinuak, belarriak laztu eta, bihotzetan barneratu ziren hauek izoztuz. Otsoak ziren. Ilargi betez mendi tontorrean ma-

rruka begira egon ohi ziren otsoak. Basoko zuhaitzen pareko sentitzen ziren otsoak. Kate eta heziz hornituta adurra zeriela zapaldu zuten harresirik gabeko Haitzpe mendi magaleko herri hau. Egun erretako zigarroaren soberakina zapaldu ohi dugun harrotasun berberaz. Sarrailarik gabeko ateak bota zituzten eta ilun esnatu zen eguna areago belztu zuten. Euri zaparradak begirada nahasten zuen eta putzuak sortu. Ume errugabeen hilobi bihurtuko ziren putzuak, hauen gorpuak zerraldo lurraren esku geratzean. Leiho zaharren kirri -karra hotsa entzuten zen goizean baino indar handiagoz. Ekaitzik handienak zabalik dagoen leihoa hormaren kontra bultzatzen duenean entzuten den indar berberaz. Oraingoan ordea, ez zen ekaitza leihoak astintzen zituena, oraingoan leihoak zatitan banatzen ziren, lurrean sakabanatzen ziren milaka zati txikitan. Eta zorua koloreetako perlaz janzten zen bitartean. Kristalezko koloretako perlaz. Lokatz kolorekoak batzuk, odol kolorekoak besteak, asko ez zen perla izatera iristen eta aititaren baten gorpua kristal txikiz betetzen zen.

Elurra ari zuen, elurra mara-mara, neguko iluntze hartan. Lainoa joana zen. Artizarra ñirñirka ordurako. Egun osoa habian kumeen zaintzaile egondako papargorriak eguneko lehenengo hegaldia egitea erabaki zuen, eta sugelandarak ere gotorlekutik kanpo zuen burua. Iluntasunak argiztatu zuen Haitzpe mendipeko pagadia. Zuri koloreko tapaki batek estalia zuen herria. Herria eta ingurua, basoa eta mendi tontorra ere bai. Ilargia, inoiz baino beteago, herriratu zen zeruko milaka argirekin batera. Arranoak hegan hasi ziren iluntzeko freskotasuna dastatu nahirik edo. Mendi gailurrean ez zen uhuririk aditzen. Etxeak hornitzen zituen errekak hizketan ziharduen harri eta oraldi artean. Basoaren sakontasunean makila hotsa entzuten zen mozolo oihu etengabeek lagunduta. Bizia zegoenaren seinale. Basoaren bihotzetik, zuhaitz baxu eta garaien artetik, basoaren sabeleko zuhaitz hostodun eta biluzi horien artetik, hostoen zulotxo guztietatik, elurrezko manta lodi batez berotutako herria ikus zitekeen. Mendeetan bizi izandako herria. Haitzpe mendiaren magalean hazitako herria. Zuhaitz garai eta baxuetako hostoen zuloetatik, zeruertzean itsasoak dir-dir egiten zion herri txikia ageri zen. Herriko teilatuak ageri ziren hostoen arteko zuloetan. Teilatuak eta etxeen leihoak. Eta argi txiki bat, han urrunean, herrian. Tximinia kea zeriola ikus zitekeen basoaren bihotzetik, basoaren sabeletik, hostoen artetik.

Idazten nenbilen. Idazten eta irakurtzen ganbarako teilatupean. Herriaren talaian. Tarteka beheko logelara egiten nuen bisita. Han zen Kima. Leihoaren ondotik gelaren erdira zabaltzen zen ohe txikian erdi lo, gelaren txikitasunean. Sitsik txikerrenak ere miresten zuen haren loa, neuk miresten nuen antzera.

Bazkal osteko lokuluxka egin zezan oheratu zuen aitak. Amarekin batera joan zen gero. Mutu amarekin batera, aldeteko asmoa zutela esan gabe.

Atearen karraskaren atzetik irteten ziren eta etxea atzean utzi. Etxea eta etxekoak. Ordu pare batean edo egun batzuetan berriro ez bueltatzeko. Ohituta nengoen. Ohituta *umezurtzaldi* haietaz eta ohituta gurasoen desagerpen haietaz. Hala jaio nintzen eta hala bizi. Amamak aldiz hortzak estutu eta behera begiratu ohi zuen, oinen parean jarriz begirada, zoruaren parean. Lurraren indarrak itxiarazi egiten zizkion. Begiak itxiarazten zizkion egun eguzkitsu batean ur tanta ñimiñoena sikatu ohi den tarte laburrean. Lipar batez begiak ixten zituen barruko lurrikara azaleratu nahirik edo. Urteen iraganak ere ez zuen amama ohituko. Amamarentzat ez zen ohitura, oinazea zen amamarentzat, barneko urrakada.

Kima ondo zela jakinda ganbarako eskailerak igo nituen. Asko ziren eta egurrezkoak denak. Amamak sasoi hartan ezin zituen igo eta aitita ere eskas samar moldatzen zen. Askotan, zenbatu egiten nituen goialdeko eskailera maila zaharrak. Berrogei. Berrogei ziren. Berrogei eta bat gehiago, koska bat baitzegoen. Aspaldi aititak gehitua. Bigarren solairuko egurrezko zoruan zegoen koska eta sarbide ematen zion gorako bideari. Han ematen nituen arratsak eta goizak.

Leihorik gabeko zuloetatik haizea sartu eta dena nahasten zuen. Lasto, artaburu eta idazpaperak barreiatzen zizkidan maiz. Idazlanak lapurtu eta kalean barrena mendian gora eramaten zituen hegaz hegoak balituzte legez, inoiz ez bueltatzeko asmoz. Kaieraren orrialdeak aldarazi.

Gustuko nuen txoko hura. Herriko teilatuen parean eta gure baserriaren sabaipean. Gazteak ozen mintzatzen aditzen nituen teilapetik. Umeak hara eta hona korrika oiloen lumen atzetik, hauek zirikatzen. Aitzurrak ere aditzen nituen, atxurrak eta aizkorak ere bai. Baratzean lanean zebiltzan atxurrak harrien kontra jotzerakoan entzuten nituen. Otsoen uluen ikaraz zebilen norbait ere aditu izan nuen. Mintzakideak lasaitzen zuen eta besoa sorbalden gainean pausatzen. Noizbait garaituko genituela. Aurrerantz jarraitzen zuten gero, karrikan aurrerantz.

Urteak ziren borroka etengabea geneukala. Urteak arrotzak herriratzen zirela. Herria erasotzen zutela eta askotan baserriak suntsitu. Batean, uztak zapaltzen zituzten amorruz. Ura lapurtu bestean. Eta maiz herritarrak erre. Erre edo preso eraman, kate astunetan amarratuta. Horrelakoa zen, horrelakoa gure herria.

Beheko logelara egin nuen bisita berriro, artean lo zegoen Kima. Arto irin usaina usaindu nuen korridoreko egur xafla arteko zulotxoetatik. Gora zetorren arto irin usaina egur tarteetatik. Amama zen behean ogia egiten. Idazteaz nekatu nintzenez beherako bidea hartu nuen. Aitita ere han zen, egurrezko aulkiko kuxin bigunaren gainean,ezkaratz handian artilea ehotzen, biztuta zegoen txaparen beropean. Tarteka, sutan zegoen lapiko handira belarren bat edo koloredun ur apur bat botatzen zuen, eta artilea ehotzen jarraitu. Hauek entzutea maite nuen. Haien ahotsa eta haien mugimenduaren zaratei so egotea nuen gustuko. Zaharrak ziren, etxeko zaharrak, ez ordea baserria bezain zahar. Argia apurka-apurka itzaltzen zihoakien, egunetik egunera dirdira gutxiago zuten begietan. Eskuetan tximurrak zituzten eta buruko ilea urdina. Kontu kontari aritzen nintzen haiekin, txokotzat zuten ezkaratzean, etxeko ezkaratz handian. Txaparen berotasunean eta egunaren argitasunean. Une asko bizitakoak ziren, gogorrak eta latzak baina goxo eta politak ere bai. Arrotza zen haien izua, arrotza haien ikara. Hauek sortutako oinaze eta zauriak sendatzeko sendagaiak prestatzen zituzten. Baina otsoen beldur ziren, arrotzen beldur, eta ikara hartan bizi ziren. Otsoen ikaraz bizi ziren. Arrotzen pausoak entzutearekin batera eskuak kateatzen zituzten bata bestearen lepoan, eta begiak zarratzen zituzten bihotz taupadak trostan zituztela.

Otsoak herrira etorri ziren lehen aldiaz mintzatu zitzaidan behin aitona bere egurrezko aulkian jarrita. Negua omen zen eta egun iluna gainera. Behelaino hezeak estaltzen omen zuen herria. Behelaino heze artetik agertu ei ziren, lainoa urratuz. Ilun esnatu zen herria ilun lotaratu omen zen. Malkoek busti zuten haren masaila. Malko finetatik hasi eta lodiek busti zuten haren aurpegia, egun hura narratzen zuen bitartean, begiak gorrituta. Katez beteta etorri ziren otsoak eta euria ari zuen. Zaparradarik gogorrenak ere ez zituen gelditu. Negarrik sakonenak ere ez zituen errukitu. Egun hartako txapeldun, heriotza izan zela esan zidan aitonak. Ume jaioberriak putzuetan itota, zuhaitzik zaharrenak ere ez zukeen egun hartan biziraungo. Hala esan zuen aititak burumakur. Uztak suntsitu zituztela, etxeak zapaldu, ura kutsatu eta iturriak agortu. Herritarrak bortxatu eta herria zapaldu zuten. Oinatz ezezagunek zituzten karrikak markatu, oinatz ezezagunek zituzten etxe sarrerak basaztu. Gero elurra hasi omen zuen eta elur azpian geratu zen herria, elur azpian egon zen egunetan herria. Herri eta herritarrak, hilotz eta gorputz epelak egun luze eta ilunetan, hilabeteetan elur azpian. Hau esanda, burua altxatu zuen aititak, begiak xukatu eta zuzen begiratu ninduen, garrantzi bereziko zerbait esatera bazihoa lez. Esango zuen. Hala hasi zen. Baina bizirik darraigu, zutik eta bizirik. Zutik eta bizirik darraigu etenik gabeko borroka

honetan, zutik eta bizirik garaipenaren esperoan. Borrokatzen ikasi dugu, ezpata goratzen, haiek bezala, maltzurrak izaten ikasi dugu. Gorrotoa zer den ikusi dugu. Gorrotatzen erakutsi digute. Guda bilakatu da biziaren zentzua eta oinazea. Herri zapalduaren oinazea bihurtu da eguneroko fruitu. Hori esan zidan burua tente eta harro. Ama sartu zen orduan eta begia kliskatuta kiñu egin zion eta aitak lepoa igurtzi, esku epelekin lepoa igurtzi. Gero, ilea urdin eta eskuetan tximurrak zituela lixiba egitera joan zen, hurrengo gauean Kima eta biok ohe garbian lo egin genezan.

Ogi beroa utzi zuen amamak mahai gainean laukidun mahai-zapian. Aititak artilea ehotzeari utzi zion, eta lapiko handian irakiten zegoen belar ura irabiatzen hasi zen egurrezko koilara handiaz. Prest zegoen, olio tanta batzuk gehitu eta irabiatzen jarraitu zuen. Kima esnatzera igo nintzen, lo nahikoa egin zuela zioen amamak eta esnatzeko, esnatzeko gauean lo egin nahi bagenu. Gora altxatu nuen neure burua, eskaileretan gora bigarren solairura. Korridorean aurkitu nuen, oinutsik eta ipurdi bistan niri begira, begiak handituta oraindik. Lo egiteko erabili ohi zuen zapitxoa arrastaka zekarrela alboratu zitzaidan. Ilea laztandu nion eta besoetan hartu. Ipurdi leun beroak gorputzaren pisua neure besoen gainean uzten zuen. Pasilloan barrena, gelarako bidean, burua sorbaldan pausatuta zuela, berriro lo hartuko balu lez. Ohean eseri nuen, oraindik epel mantentzen ziren izara zurien gainean. Praka eta artilezko galtzerdi lodiak jantzi nizkion behatzak hotzitu ez zitezen, ostean leihora hurbildu ginen. Kalean zeuden umeak jolasean, korrika eta kantuan. Haizea zebilen, haize freskoa eta basoko zuhaitzak dantzarazten zituela ikus zitekeen. Eguzkiak hodei ertzean tarteka kuku egiten zuen. Aitita eta amamarengana jaitsi ginenean, aita eta ama faltan zirela konturatu zen Kima baina ez zuen txintik esan, ogia ikustearekin batera ahaztu baitzuen kontua. Salda beroa zuen amamak prestatuta, salda beroa eta artirinez egindako ogia. Ogi egin berria. Aititak ere eginda zuen ordurako belar ura. Poteetan sartzen zebilen Kima saldari putz egiten hasi zenean. Sarritan jaten genituen salda eta ogia arrats partean. Afaldu baino ordu batzuk arinago, negu aldean batez ere. Mahaian eserita, laurok elkarrekin, txaparen berotasunean, alde batean aititak belar urez betetako poteak zabalik kea zeriela. Herritarren artean banatzen zuen zauriak sendatzeko balio omen zuen ura. Makila eskuetan zuela basoan murgiltzen zen belarren bila, askotan amama lagun zuela. Ezkaratzean eskegitzen zituen batzuk, liburu arten sikatu beste batzuk,... eta salda eta ukendu desberdinak egiteko erabiltzen zituen. Herria osatzeko salda eta ukendu desberdinak. Isilik geunden, bakoitza bere katilua eskuetan, putz egiten aitita, kea kendu nahirik edo. Atea entzun zen zabaltzen, ama sartu zen aita atzetik, azken honek bultzadaz itxiz. Irribarre egin zien amamak, pozik

zegoen pozik haiek ikustean. Seirok geunden mahaian oraingoan, seirok katilukada salda eta artogi zerra genuela. Seirok salda beroaren epeltasunean, familiaren berotasunean, uluak entzun genituenean. Oihartzun isil batzuk entzuten ziren herri inguruan. Uluen oihartzun isilak. Geroago, garrasi bortitzak entzuten genituen. Haize boladaren doinu lasaia ere isilarazi egiten zituzten garrasi bortitzek. Garrasi arrotz eta sakonak. Ulertezinak. Orroak pausu bihurtu ziren eta pausuak esku. Esku eta oin, hatz eta behatz. Denak ere ezezagun. Soka eta kate ondoren eta gar azkenik. Alde egin zuten, alde egin zuten amak eta aitak. Familiaren berotasunetik saldaren epeltasunetik. Babestu behar gintuztenek egin zuten alde. Otsoen uluak ikaratuta amamak eta aititek eskuak korapilatuta zituzten bitartean. Alde egin zuten eta ez dira bueltatu, alde egin zuten otso taldearen beatzazaletatik, alde hainbat herritarrekin. Ez dira bueltatu, ez dakigu bueltatuko diren. Herria defendatu behar omen dute, herria defendatzea omen da haien betebehar. Herria defendatzea. Borrokatzea, kateak hartu eta etsaia kateatzea. Alde egin behar zutela harrapa ez zitzaten, ihes egin behar zutela herria defendatzeko, otsoek hozka ez egiteko.

Borrokatu beharra zutela hala zioen aititak, borrokatu beharra zegoela aske izan gintezen. Honela joan ziren aita eta ama familiaren epeltasunetik eta saldaren berotasunetik. Honela joan ziren babestu behar gintuzten ama eta aita.

Kima lurrean etzanda dago, nekatuta. Estualdia izan eta gero, tristurak barrua jan eta gero. Estalki handi bat jarri dio amamak lepotik eta lurraren hotzetik isolatu nahi gaituen zapiaren gainean haren eskuinaldean belaunikatu naiz. Buruaren parean. Noizbait amaren barnean egon zeneko forma berreskuratu du. Sorbalda bat lurraren kontra, gorputza berotuko ez dion lur gogor eta hezearen kontra. Burua nire izterren gainean jarrita besotik heldu nau. Hizketan hasi naiz, amama guri so den bitartean, begiek isladarik ez duten bitartean. Ipuin asko kontatzen zizkidan amak hemen zenean. Hamaika ipuin kontatu zituen, berton gure alboan zenean. Kolorezko izara goxoek behatzak berotzen zizkigun bitartean kontatzen zizkidan ipuinak amak, asmatutakoak edo noizbait irakurritakoak. Ohe alboko kandelaren argipean, besoak lepoa inguratzen zidan. Harrigarriak ziren batzuk tristeak zenbait. Atsegin nuen egunaren amaierako istant hura. Eguzkia ere lotaratuta goian, ilargi amandreak munduaren teilatuan lo egiteko kuma zuria prestatzen zuen.

Bazen bereziki gogoko nuen istorio bat. Amak behin eta berriro kontatu izan didana. Berriro haren ahots samurrak kontatuko balu! Amaren eskuak ukitu eta laztantzeko aukera banu!

Malko batek ukitu du nire azala, Kimaren burukoa den izterreko azala. Eskuak haren begietara eraman eta sikatu egin ditut, ahalegina egin dut.

Sua egiteko erabiltzen dugun ikatzaren kolorekoa zen eme baten istorioa, oheratzerakoan kontatzen zidana. Ilargiaren antzera bakarrik bizi zen eme batena. Bakardadea betegarri eta atsegin dela esaten dute, norberak aukeratua denean eta norberak nahi duenean. Jarraitu du amonak ufada artean. Bakardadea, ostera, ez zen azken bi hauen aukera, hala esaten zuen baxu-baxu amak.

Hilabeteak dira alde egin zutela, hileak amak eta aitak utzi gintuztela. Hamaika eraso izan dira ordutik hona. Uztuz joan da herria azkenaldi honetan. Herria ere bakardadearen lagun da azkenaldi honetan.

Egoerak bultzatuta, bakardadea apurtu nahian edo lagunmin egin ziren eme beltzarana eta iletargia. Gauero elkartzen ziren solas egiteko. Nekatutakoan, emeak ilargiaren azpian egiten zuen lo, ilargiaren argitasunak estaltzen zuen haren gorputza eta loa zaindu. Gauaren jagoleak halere bazekien bere azpian lotan zegoena ez zela zoriontsu.

Bortitza izan zen azken erasoa. Gogorra. Herria benetan akatu zuen erasoa izan zen. Bakarrik geratu ginen. Ihesean joan ginen. Alde egin genuen, uluak entzun orduko, leize honetan babesteko. Denboraren poderioz, babesleku bihurtu dugun leize honetan babesteko. Herria husten ikusi genuen, mendiaren begi honetatik. Herritarrak kate luzeetan preso zeramatzaten eta haurrak negarrez ziren, korrika zebiltzan amen besoetan. Bakarrik geratu ginen, geratzen ziren auzokide apurrak hilda. Eta gu begira, begira leize honetatik. Haitzperen sabelean bakarrik. Aspaldiko menderen batean hasi eta hezitako herria hutsik geratu zen.

Gau izartsu batean ilargiak emeari zer gertatzen zitzaion egin zion galde. Gaueko amandrearentzat harritzekoa zen erantzuna. Arra behar zuen emeak, eguzkia nagusi zen bitartean, inoren laguntasunik gabe gauaren esperoan egon ez zedin. Ulergarria izan zen amandrearentzat, ulergarria oso. Eta lagunduko ziola, lagunduko ziola eta arra ekarriko ziola. Hori esan zion ilargiak emeari. Ekarriko ziola lagun bat, egunez ez ezik gauez ere alboan izango zuen arra bat ekarriko ziola eta bien loaren zaindari izango zela. Ametsen gidari izango. Hori esan zuen ilargiak. Trukean aldiz, eskari txikia egin zion.

Ipuinaren zati honek beti harritu izan nau, lehenengoz entzun nuenetik harritu izan nau. Hori amak ondo zekien eta konta nezan eskatzen zidan, ge-

lako epeltasunean irribarre batekin. Jarrai nezan ipuina nik, banekiela ondo. Banekiela ipuinak nola jarraitzen zuen.

Ilargiak, emeak eta arrak egindako lehen kumea berarena izango zela esan zuen. Eta onartu emeak, lehenengo umea berarena izango ez zela onartu. Denbora gutxira, ikatzaren koloreko ar bat ezagutu zuen eta kumea ere egin zuten. Lasai jaio zena, munduko denbora guztia bere eginda. Aita kezkatuta zebilen. Kumea zuria zen argia bezain zuria, egun eguzkitsuetan urdintasuna apurtuz agertzen diren hodeien kolorekoa. Kumearen aita bera ez zela leporatuta emea mendira eraman eta akatu egin zuen, inungo arrazoirik gabe akatu zuen.

Ipuina asmatu zenean ere ez omen zen akatzeko arrazoirik behar. Gaur ere ez. Nahiko arrazoi da defendatzea, etxea defendatzea, seme alabak defendatzea akatua izan zaitezen.

Amaren gorpuaren besapean utzi zuen kumea eta korrika alde egin urrutira, beste lekuren batera, ezin eramandako zama gainean zeramala. Kokotean kolpatzen.

Gaua iragan zen eta eguzkia bueltatu. Amak mendiaren besoetan jarraitzen zuen arren, kumea desagertua zen, beste munduren batera eramana. Beste bizitza batera, bizitzeko jaio zen bizitzara. Amaren sehaskan oheratua zen. Ilargi amandreak prest zuen sehaskan. Horregatik hilgora edo hilbera denean ilagirkumea negarrez egoten dela esaten da eta ilargiak sehaskan kulunkatzen du goxo goxo, lo egin dezan, amaren besartean lokartzen nintzenean bezala. Bekokian muxua ematen zidan ondoren, puzkada batez kandela itzali eta ohetik irteten zen ohearen kanpoko hotzak gorputza freskatzen ziolarik. Masaila igurtzita lo nengoenaren ustean atetik irteten zen.

Hamar urte dauzkat eta Ekhi deitzen naiz. Kima daukat ahizpa, lau urteak beteta dituen sorgintxoa. Aitita amamen baserria dugu bizileku. Etxeko zein kanpokoentzat ateak zabalik dituen baserria.

Herriko azken bizilagunak gara, hala esaten dit amonak lotaratzean. Hirurok elkarren ondoan etzutean, lurretik isolatzen gaitun zapiaren gainean etzatean. Asko maite dugun herrixka da gurea, asko maite duguna. Baina geu gara azkenak, geu gara herriaren hondar.

Leizeak egin du topo gurekin, teilatu bilakatu da guretzat, babesleku. Orduak eta orduak daramatzagu hemen, akaso egunak ere bai.

Gurasoek herritar askorekin batera korrika alde egin zuten otsoen uluak entzun bezain laster. Oraindik ere aditzen ditugu otsoak urteetan aditu izan ditugun bezala, horregatik gaude hemen. Haitzaren ahoan gaude, Haitzperen sainetan. Ezkutuan. Herriaren gainean aske hegan egiten duten arranoak ekaitz gogorrean ezkutatzen diren antzera. Tximistetatik salbu, trumoietatik urrun. Denboraren poderioz sortu dugun babeslekuan ezkutuan, mendiaren zulorik sakonenean.

Herritarrak preso eraman dituzte beste leku batzuetara. Leku urrun eta ilunetara. Defendatzeko aukerarik gabe. Borrokatzeko tresnak besoetatik tenkadaka kenduta.

Aitona orain dela lau hilabete lokartu zen eta lo daudenentzako logela den leizean oheratu genuen. Oso borrokalariak omen ginen, hala esaten zuen aitonak matorduetan. Borrokalariak ginela oso. Eta harro geundela, oso harro gainera, hala zioen behinik behin. Bizirautea bihurtu zaigu borroka, baina harrotasuna dugu galdu.

Orain dela lau hilabete lokartu zen aitona eta lo daudenentzako logela den leizean oheratu genuen. Musua eman zion amamak bekokian eta hari imitatuz Kimak eta biok ere musua eman genion. Leize handia da, ur jauzi txikia dauka barruan eta honen kantu etengabeak goxotzen eta epeltzen du zuloaren iluntasun eta hotza. Noizbait lokartu zirenak daude hemen oheratuta. Denak batera. Bata bestearen ondoan jarrita.

Gainerakook baserrietan bizi gara. Beno, besteok baserrietan bizi ginen. Hala zen. Gaur preso garamatzate herritik urrun. Gaur akatu egiten gaituzte herrian bertan. Otsoek. Lepoan kolpatuz lurrera erori arte. Lokartuak ere ez dira leizean oheratzen, piztien eskuetan hiltzen dira. Bitartean herria hustuz joan da. Gurasoek ihes egin zuten beste askorekin batera eta gainontzekoak lokartu egin dira, lokartu eta preso eraman.

Azkenak gara gu. Egun batean, harrapatuko gaituztenerarte ezkutatzen jarraitzen dugu eta jarraituko dugu.

Larreak belar luze eta gaiztoz pilatzen ari dira. Artoa gero eta urriagoa da eta kaleak hutsik. Ixilik egon ohi gara egun luzean zehar. Otso uluei adi. Inork esateko ezer ez balu lez. Eta denbora aurrera eta herria gero eta lokartuago, gero eta lo sakonagoan murgilduta.

Umeok ez dugu jolasten. Aspaldi galdu zen jolasa. Ezkutatzea bihurtu da eguneroko jolas eta ogi. Uluak aditu orduko amamaren begirada galdu egiten da. Kima besoetan hartzen du. Korrika baserritik alde genuenean bezala, urteetan gure aterpea izan den etxetik, korrika atzera begiratu gabe. Gauaren iluntasunetik eta neguko hotzetik babestu gaituen aterpetik. Baina oraindik ere haren so gaude esku eta oinak epeltzen ez dizkigun arren begirada digu goxotzen.

Bitartean ezkutalekuan bilatu dugu babesa, hirurok elkarrekin. Hirurok ixilik inork esateko ezer ez balu lez. Begirada aurrean dugun herrian galduta.

Honela, bada, pixkanaka-pixkanaka agortuz goaz. Honela, bada, esaten dit amamak herriko azken bizilagunak garela. Ohiturak galtzen ari diren azken bizilagunak garela. Elikagaiak galtzen ari diren azken bizilagunak garela.

Eta zuri, irakurle, narrazio hau utzi dizut. Horregatik idazten dut hemen. Testigantza izan dezazun. Narrazio hau utzi dizut, hemen izan garenaren testigantza har dezazun. Jakitun izan zaitezen, izan ginela eta geundela. Zuk irakurle, zarena zarela, jakin dezazun sustraiak non dituzun. Zuk irakurle jakin dezazun irakurtzea lortu baduzu hilik ez garenaren seinale dela, bizirik darraigunaren seinale. Zuk irakurle, irakurtzea eta ulertzea lortu duzun narrazio hau, hilik ez naizenaren seinale dela, bizirik darraidanaren seinale eta borrokan darraidanaren seinale. Horregatik idazten dut hemen, irakurle, ondokoari esan ez diezaiozun “ez da sinestu behar; ez direla ez da esan behar”

Kima esnatu da eta begiak igurtziz begira geratu zait. Jauzi batez jaiki da. “Goazen etxera” esan du “iluntzen ari du”. “Zatoz nire albora, zatoz”. Beso artean hartu eta etzan egin dut, amamaren eta bion erdian etzan. Bizkarra nire bularraren kontra jarri eta haren ipur masail hotza nire sabelaren kontra. Eskua luzatu eta besoa oratu diot, leuna eta estua. Burua altxatu dut bere begiradaren noraeza ikusteko asmoz. Lotan da, udaberriarekin ametsetan nonbait, leizearen garraztasunean. Besoa luzatu dut Kimaren gainetik eta amama heldu. Musua eman dit eskuan, ezpain morez eman dit musua eskuan.

Lokartu egin da amama. Kimak sakon arnasten du. Nekatuta gaude. Hezetasun honetan nekatuta. Indarra galtzen goaz. Amama itzaliz doa eta kimaren aurpegia gero eta zurbilagoa da. Orduak baineran, ur berotan, egon izan bagina lez tximurtuta ditugu eskuak eta oinak. Tantek bustitzen dute etzaten garen zapia eta gero eta sakonagoa da gure loa. Ikara ematen dit gutako bat lotan geratzeak. Ikara berriro ez esnatzeak. Horregatik laztantzen ditut ama-

ma eta Kimaren masailak; berotu daitezen, beroa gal ez dezaten. Leizearen hezetasunak tanta bihur ez dezan haien azala. Lo geratu dira, baserriaren errautsei oraindik kea dariela. Lo geratu dira bizitzaz nekatuta. Geldi egoteaz nekatuta.

Lozorroak hartu nau, eta lokartu egin naiz. Loaren izarak estali gaitu hirurok, noizbait oilarrak esnatuko gaituen arte, denbora luzez bustita izandako esku eta oin hotzekin loak gidatu gaitu ametsen mundura. Noizbait esnatuko garen arte. Noizbati, akaso esnatuko garen arte.

Mendiaren sabelean, lur hotzetik isolatu nahi zituen zapiaren gainean, elkarren ondoan, ezpain morez apainduta bata bestea besarkatuz, zeuden lo. Mendeak eta mendeak zain egon denaren tristura nabari zitzaiela aurpegian.



Jon de la Fuente
Batxilergo 1. maila
"Futbolaz gain gauza gehiago badaude"

USTEKABEA

Goiz euritsua zen. Gau hartan ezin izan zuen lorik egin. Bi aste zeramatzan etxe horretan gertatutakoa ikertzen. Inork ez zuen zaratarik entzun, ezta gauza arrarorik ikusi, baina gertatutakoa ez zen ohikoa izan. Jaka bat hartu eta etxeko eskailera mehe eta zaharretatik jaitsi zen. Kalera heldu zenean aurrez aurre sentitu zuen euria. Hotz handia zegoen, eta behe lainoaren erruz ez zen ezer ikusten. Etxe alboko kafetegira hurbildu zen, eta bertan eguneroko kafea hartu zuen. Zerbitzariak kafea emandakoan besteak ordaindu zuen. Kafea edan eta egunkaria irakurri ondoren, kafetegitik irten eta bere bulegora joan zen. Bertan aurkitu zuen bere lankidea, Josetxo. Josetxok detektibea agurtu zuen eta hizketan hasi ziren:

- Argitu duzu zerbait Etxabetarren etxeari buruz?

- Ez, gau guztia eman dut kasuari bueltaka baina ez dut ulertzen zelan gertatu zen hilketa.- erantzun zuen detektibeak.

- Ni ere ahalegindu naiz gertatutakoari azalpen bat bilatzen, baina ezin izan dut...Ahaztu baino lehen, gaur emakume batek deitu du kasuari buruzko datuak emateko. Berak dioenez azkenaldian zerbait arraroa sumatzen zuen familia inguruan.

- Non bizi da?

- Lorategi kaleko laugarren portalean, Etxabetarren etxetik ehun metrora.

Detektibeak autoaren giltzak hartu eta biek aparkalekura joan ziren. Detektibea Josetxoren nagusia zen, baina txikitatik lagunak zirenez, ez zegoen desberdintasunik ez lanean ezta kalean ere. Biek berrogei urteren bueltan zeuden. Detektibeak ez zuen emazterik, Josetxok, aldiz, emaztea eta bi alaba zituen.

Emakumearen etxera heldu ziren. Auzo iluna zen, zuhaitz handi eta lorategi ederrez beterik zegoen. Auzo oso dirutsua zen, etxe erraldoiak zituen, XIX. mendearen bukaerakoak. Beldurrezko filmetako auzoa ematen zuen. Bertan zegoen emakumea, aulki baten eserita, izarrak arreta handiz aztertzen. Bi lagunek emakumeari begiratu eta hau jaiki egin zen.

-Zuek zarete poliziak?

-Bai, andrea.- erantzun detektibeak.- Zer esan ahal diguzu familiari buruz.

-Egia esan, ez askorik. Familia isila zen, ez zuten jendearekin harreman handirik izaten...

Emakumeak familiari buruz hizketan hasi zenean, Josetxok entzundakoa beste kasu batzuekin lotzen hasi zen. Ez zen harreman handiko familia, dirutsua zen, emakumea bere gizona baino hamar urte gazteagoa zen gutxi gora behera... Hori betikoa da! pentsatu zuen Josetxok. Amodio gabe ezkondutako familia, bakarrik diruagatik ezkondutakoa. Baina gero konturatu zen pentsatzen ari zena ez zihoala bide zuzenetik. Kasu honetan ez zuen emakumeak gizona hil; emakumea zen bizirik gabe zegoena. Hau ikusita Josetxok detektibeari galdetu zion ea zer gertatu zen bazekien. Honek ezetz erantzun zuen, baina uste zuen zerbait bazekiela.

Gau hartan lokartzea lortu zuen, baina bizpahiru ordu bakarrik egin zituen ohean. Jaiki zen momentuan bulegora deitu zuen, beranduago helduko zela jakinarazteko. Telebista piztu zuen, eta albisteen katea jarri zuen. Bertan hilketari buruz hitz egiten hasi ziren.

-Bi aste pasatu dira jada gure hirian izan genuen azken hilketatik. Polizia lanean dabil etxe hartan gertatu zena jakiteko, baina oraindik ez daukate erantzun seguru bat. Familia hiritik joan da, baina ez dakigu nora, ez baitute ezer esan jendeak ez jakiteko. Poliziak zerbait dionean kasuari buruzko informazioa emango dizuegu. Argentinan aldiz...

Detektibeak telebista itzali zuen eta etxetik irten zen. Hilketaren egunetik euri zaparradak izan zituzten gelditu gabe, baina egun hartan eguzkia irten zen lehen aldiz. Horrek umoretsu jarri zuen detektibea, hori baitzen gustuko zuen gauzetariko bat. Autoa hartu eta mendira joan zen. Mendiko behatoki batean gelditu zen, bertara joaten baitzen egun argitsuetan. Bertatik eskualde guztia ikusten zuen. Ezkerraldean mendiak zituen, eskuman berriz hiria, eta aurrez aurre eskualdeak zuen gauzarik politena: itsasoa.

Behatoki hartan egoten zenean lasaitu egiten zen, eta pentsatzeko denbora izaten zuenez bertan argitu zituen kasuetako batzuk. Bi ordu eman zituen behatokian, baina bere ustez bost minutu besterik ez zen egon.

Bulegora iritsi zenean, Josetxo aurkitu zuen, gorri-gorri. Zer gertatu zen galdetu zion, eta honek denborarik galdu gabe esan zion. Goizean detektibeak telefonoz hitz egiten bukatu zuenean, gizon batek deitu zuen: ahots baxua zuen, eta boteretsua ematen zuen. Kasuari buruz hitz egin nahi zuen. Argi esan zuen: kasua uztea nahi zuen, eta hau egiten ez bazuten, ondorio larriak izango zituzten detektibeak eta bere lagunek. Detektibeak broma bat zela uste zuen, baina Josetxoren aurpegia ikusita, egia zela konturatu zen. Baina detektibeak ezin zuen kasua utzi, misterioa argitu nahi zuen. Josetxok ezetz esan zion, utzi egin behar zutela, baina detektibeak azkenean buruan sartu zion bere lankideari ezin zutela kasua horrela utzi. Detektibeak Josetxori gauza bat eskatu zion: Etxe hartan sartzeko baimena. Ordubete beranduago bere mahai gainean zuen.

Trena hartu zuten, zegoen trafikoarekin ezin baitzen autoarekin ibili. Etxera heldu ziren, baimena eskuan zutela. Atea jo eta inor ez zegoenez barrura sartu ziren. Etxea barrutik, kanpotik ematen zuena baino ederragoa zen. Sarrera ikaragarria zuen, horma zuriz inguratua, eta hormen gainean artista famatu batzuen margolan preziatuenak zeuden eskegita. Hurrengo gelarantz jarraituz ate handi eta dotore bat zegoen. Atea zeharkatuz sukaldera heldu ziren, hilketaren tokia. Hormetan oraindik zenbait odol tanta zeuden. Sukaldea ez zen beste gelen bezain dotorea, edo beharbada hori uste zuten bertan izan zelako hilketa. Mahaia lurrean zegoen, eta zenbait armai-

ru lurrean zeuden ere. Leiho bateko beira apurtuta zegoen, eta horregatik pentsatu zuten hiltzailea bertatik sartu zela. Pare bat argazki atera zituzten, lekua nolakoa zen jakiteko eta hipotesi berriak ateratzeko.

Gau hartan etxera heldu zenean, detektibeak gutun bat ikusi zuen bere ate aurrean. Aldizkari orrietako hizkiekin zegoen idatzita mezua: < Gaur etxera joan zarete, eta nik ez joateko esan nizuen. Gaurkoa berriz gertatzen bada zuen bizitzaren azken ekintza izango da>. Detektibeak ezin zuen sinetsi. Etxean zeuden bitartean norbait beraiei espiatzen zegoen, baina inork ez zuen ikusi. Zelan liteke hori? Telebista ikusi ondoren logelara joan zen lo hartzen saiatzeko, eta bere nahia lortu zuen.

Bulegoan sartu zenean Josetxo ikusi zuen, eta gauean gertatutakoa azaldu zion. Josetxok ere ezin zuen sinetsi esaten ari zena. Nor izan liteke pertsona hura? Eta nondik ikusi zituen etxera sartzen? Hori dena jakiteko gutuna ez egiteko esaten ziona egin zuten: etxe hartara joan. Baina oraingoan ez ziren biak sartuko, norbait kanpoan geldituko zen begiratzen. Orduan detektibeak ideia bat izan zuen: beste polizi bati esango zion sartzeko, beraiek kanpotik begiratzen zuten bitartean. Hori zen plana.

Lehenengo beste poliziaren kotxe gorria agertu zen etxe aurrean. Kalearen bukaeran detektibea eta Josetxo zeuden, zerbait ikusten bazuten automobiletik irteteko prest. Seinalea egin ondoren beste poliziak automobilaren atea ireki zuen eta etxerantz abiatu zen. Etxeko atean zegoela zarata arraro bat entzun zuen etxeko hegal baten, baina ez zion garrantzirik eman. Sartu eta etxea barrutik ikusten hasi zen.

Beste biak automobilean zeuden, zerbaitetan parte hartzeko zain, baina ez zen ezer gertatzen. Josetxok zigarro bat atera zuen paketetik eta erretzen hasi zen. Lau zigarro erre ondoren detektibeari esan zion gauza arraro bat sumatzen zuela, beste polizia ez baitzen irteten, baina hamar minutu gehiago itxaron zituzten. Denbora hau igarota, automobiletik irten eta etxerantz abiatu ziren.

Etxea lehengo moduan zegoen. Poliziaren izena esan zuten, baina ez zen erantzunik entzun. Sukalderantz abiatu ziren ate dotoretik pasatuz, baina bertan ez zuten ezer aurkitu. Dena berdin zegoen: odol tantak, armairuak lurrean, beira apurtuta... Baina non zegoen polizia? Gero eta gela gehiago begiratuz joan ziren baina ez zuten aurkitu. Bat- batean zarata bat entzun zuten. Bera zen. Zarata hura beko pisutik zetorren, eta biak korrika jaitsi

zituzten eskailerak. Lorategira hurbiltzerakoan zarata intentsitate gehiagorekin entzun zuten. Lorategian ate bat ikusi zuten beherantz joateko, eta ireki ondoren jaitsi egin ziren.

Bertan zegoen polizia, eskuak loturik hormaren kontra. Gela hartan ez zegoen inor, orduan zelan egin zioten hori? Sokak kentzen hasi zirenean zarata bat entzun zuten; atearena. Buelta eman eta gizon handi lodikote bat ikusi zuten aurrez- aurre. Nor zen galdetu zioten, eta berak hiltzailea zela erantzun zuen. Atxilotu egingo zuela esan zuen detektibeak, baina besteak erantzun zuen horretarako lehenik harrapatu egin behar ziotela.

-Zergatik egin duzu? .- detektibeak.- Zein izan da hau egitera bultzatu dizun arrazoia?

-Dirua.- erantzun zuen gizonak.- Familia guztia hiltzeko nahia nuen, eta horrela dirua lortu.

-Baina nola lortuko zenuke? Horretarako familiako bat izan behar zara, herentzia lortzeko.

-Hori da arrazoia, familiako naiz. Hildakoaren lehengusua naiz, eta txikitatik izan dut amorrua berak egiten zuenaz. Berak ondoen egiten zuen dena, familia guztia bere atzetik ibiltzen zen, nire lagunak... DENAK!!! Horregatik egin dut!

Hitz egiten ari ziren bitartean Josetxo bere atzean jarri zen, egur batekin jotzeko nahiarekin. Besoak atzerantz mugitu zituen, bere gorputzeko indar guztia besoetara eraman eta besoak aurrerantz mugitzen hasi zen. Momentu berean gizonak besoa atzerantz mugitu eta Josetxori jo zion; bekokian begiak zituela zirudien. Hori ikusita detektibeak gizonaren gainera salto zuen. Jotzen hasi ziren, izugarrizko iskanbila sortuz. Detektibeak ukabilkada eman, eta besteak atzetik erantzuna.

Josetxo jaiki zenean bera ere sartu zen, baina berriz ere lurrera bota zion. Gizonak ezin zuen ezer egin, eta korrika hasi zen. Detektibea bere atzetik irten zen korrika. Biak korrika norabide finkorik gabe. Arinagoko egunetan ikusi zuten emakumearen etxera heldu zirenean, gizona erori eta bere jakatik pistola bat atera zuen. Detektibeak hau ikusterakoan berdina egin zuen, eta biak aurrez aurre jarri ziren.

-Hiltzen banauzu ez duzu izango kartzelara sartzeko errudunik.

-Eta zuk ni hiltzen banauzu kartzelara joateko sarrera berezi bat izango duzu.

Momentu horretan biek beraien pistolak indar handiz eutsi zituzten eta kolpekaria zapaltzeko prest jarri ziren. Bata bestearen begiak ikusi zituzten. Beldurra adierazten zuten begiek. Urduritasuna ere ikusten zen beraien gorputzetan. Biek batera kolpekaria zapaldu zuten, eta bi eztanda txiki entzun ziren. Bala biak beraien pistolen kanoitik irten ziren, beraien jomugen direkzioan. Biak urduri jarri ziren, balak gero eta hurbilago zeudelako. Orduan beraietariko bat lurrera jauzi zen. Hilda zegoen.

Jon Bilbao Oar
Batxilergoa 2. maila
Ez dago diruarekin lortu ezin daitekeen ezer; hori, lana aurretik egin izanaren argumentua da”

TESTAMENTUA

Kaixo,egunon,arratsaldeon
edo ta den ordu hura
hau irakurtzen bazabiltzate
nire ordua heldu da
ta notaritzan batu zarete
herentziaren kontura
nire iloba biak, Eneko
ta Sara neskazahar hura.
Agur testua iritsi arte
azken hitz, azken puntura
utzi mesedez, alde batera

oihukatzeko ohitura.
Ta haserreak gero konpond
gura dozuen modura
azken finean hilda nago eta
ez dit batere ardura.

Gaztetan futbol izarra nintzen
berdín eskubi zein ezker
nire atzetik izan nituen
Athletic eta Manchester.
Urteak joanda bihurtu nintzen
entrenatzailea, Mister
eta dirua ta ondasunak
eduki nituen laster.

Hamaika pisu, lau txalet eta
hiru Aston Martín eder
sukaldariak, garbitzaileak
eta nahi adina txofer.
Azkenerako ondo nekien
eta ez nenbilen oker,
ez zegoela diruarekin
lortu ezin nuen ezer.

Ustekabean heldu zitzaidan
garuneko minbizia.
Kontsulta gelan, bakardadean
jaso nuen noticia.
Bazenekiten niri eskerrak
gainditzen dela krisia
zuen patriken indar berria
zen nire ahulezia.
Azkenik nonbait bildu zineten
gorpuaren hurrenean
begiak malkoz erdi itorik
ta irria barrenean
zuen artean baxu esanez
hil nintzela azkenean
kartera barik sartu nahiean
amaren aldamenean.

Hain zuzen, Sara eskaintzen dizut
lehendabiziko atala

osaba gaixo zegoela ta
ene nolako perkala.
Ate atzetik entzun zintudan
hain zara ahozabala...
nahiak beteko zenituela
dirua jaso ahala.

"Markako arropa ona erosi
eta gaztetu azala
gizon guapo ta aberatsen bat
aurkituaz berehala..."
beraz ez dizut ezer emango
jaunak barkatu nazala
segi dezazun amets egiten
orain artean bezala.

Eta orain zu nere iloba
etxe honetako Eneko,
zure osabak ahoa ireki
behar du dagoeneko.
Bi alaba ta emaztearen
aita, senar bihotzeko
auzokoaren etxera zoaz
zure nahiak asetzeko.

Bai Ane Miren, ordua duzu
senarra ezagutzeko.
Morena bati kentzen dizkio
jertse, kulero, soineko...
Dirua eta autoa ditut
gizona zuri uzteko.
Dibortzioa ordaindu eta
non lo egin izateko.

Nahiz badakidan ni ere izan
naizela elementua
lana aurretik egin izana
da nire argumentua.
Beraz osabak eman dizue
behar zen eskarmentua
hain zuzen ere hori da utzi
nahi dudan testamentua.

Lexuri Gabiola
Batxilergo 1. maila
"Bihotzez ikasten dena ez da inoiz ahazten"

EUSTEN ETA ITOTZEN NAUEN SOKA ZARA...

Egunak pasatuz doaz eta nire bihotzaren jabe egin zarela ohartu naiz. Beraren jabe egin bazara ere, oraindik senti dezaket hara eta hona. Beti esaten da, burua dela gure gorputzeko organorik azkarrena baina, ni ez nator bat horrekin. Nire kasuan, bihotzak lortu du garaipena; buruaren sentipenak atzean utzita. Filmetan dioten bezala, ene bihotza eta burua, deabrua eta aingerua bezala jokatzen ari dira; eta nahastuta sentitzen naiz. Duela aste batzuk, pentsatzen nuen, gure barruko dena lotuta zegoela , baina zoritxarrez, ohartu naiz, ez dela horrela. Bihotzak eta buruak, gauza ezberdinak esaten dizkidate; eta ez dakit zein den arrazoia duena; dakidan bakarra, bihotzak buruak baino indar gehiago duela da.

Zu ikustean, lotsa, kezka, nekea, ezinegona, urduritasuna...sentitzen ditut. Oso sentipen arraroak dira, ez ditut inoiz kilima horiek sentitu ene barnean. Une horietan deseroso sentitzen naiz baina, gorputzeko zati handi batek egoera hori gustuko du. Zergatik? Erantzuna argi dagoela uste dut, eta esan beharrik ez dagoela.

Badakit, gutun honek, harrituta utzi zaituela baina, esan egin behar nizun. Behar bada, ez nauzu ezagutzen. Ez dakit nolakoa zaren; atsegina, maltzurra...baina errealitateak dioen bezala, oso gustuko zaitut.

Ikusi zintudan lehen aldian, oso adi geratu nintzen zuri begira eta gau horretan, ezin izan nuen begirik itxi. Ez nuen ene burua ezagutzen, ez naizelako mutilekin txoratuta ibiltzen den horietakoa. Ez dut mutil lagunik izan, eta uste dut, oso gazteak garela gauza horietako eta nerabezaroa, aprobetxatu egin behar dela. Hala ere, nik ezin ditut. Oso hitz gogorrak dira hauek, baina, maiteminduta nagoela uste dut; nahiz eta ez jakin zehatz-mehatz zer den maitemina izatea. Denek deskribatzen duten antzeko sentipenak ditut barnean. "Maitasuna: ederra, emozioa, urduritasuna, alaitasuna, ezinegona, itxaropena..." Pentsatuko duzu, neska arraroa naizela, baina berdin dit, aspaldi egin behar nuena egiten ari naizelako: maite dudanari, nire sentimenduak azaldu.

Kalera ateratzen naizen bakoitzean, zugana hurbildu nahiko nuke, zure ondoan egon, besarkada bat eman, zurekin hitz egin, paseatu, laztanak egin, musukatu, maite zaitudala esan, zu usaindu... Testu guzti honek, antzerki bat ematen duen arren, errealitatea da. Agian, ez duzu inoiz maitasunezko gutun bat jaso, baina lasai, nik ere ez dut inoiz honetariko gutun bat idatzi. Ez ditut inoiz tximeleta hauek sentitu nire sabelean, lehen aldia da, eta tontakeria bat bada ere, arduratu egiten nau. Beste mundu edo planeta batean egongo banintz bezala sentitzen naiz. Ez diot inori kontatu, nire ingurukoen erreakzioen beldur izan naizelako.

Oraindik ez dizut kontatu nolakoa naizen, ezta nor naizen. Lara naiz eta zure urte berdinak ditut, uztailean jaiotakoa. Herri berberean bizi gara, baina mutur ezberdinetan.

Ez zait nire kanpoaldea gustatzen baina izaera aldetik pertsona ona naizela uste dut. Nire lagunen laguna naiz; arazoren bat daukatenean, laguntzea gustatzen zait, beraiekin konfiantza izatea eta harreman ona izatea. Fisikoki, neska arrunta naizela pentsatzen dut. Nire argazkia bidaliko nizuke baina lotsa ematen dit. Altuera normala dut. Ile beltza dut eta beltzarana naiz

eta begi beltzak ditut. Hitzen bitartez, zaila da pertsona bat den bezalakoa imajinatzea, baina beno. Nire azalaren kolorea esan dizudanean, harrituta geratuko zinen, baina horrela da, kanpotarra naiz. Noizbait elkar ezagutzen badugu, kontatuko dizut nire istorioa.

Ez zaitut gehiago aspertuko, beharbada, honek guztiak ez dizulako axola; baina niretzako oso garrantzitsua da. Harrituta egongo zara. Zure buruari galdezka egon zara, behin eta berriz, nolatan maitemindu da neska bat nitaz elkar ezagutu gabe? Erantzun erraza du, erdaraz esaten den esaldi famatu horietako bat da " el amor a primera vista". Jende asko dago ez duena sinesten maitasun horietan, eta nik ere, pertsona horiek bezala pentsatzen nuen, baina zu agertu zinenean, nire pentsatzeko era aldatu egin nuen.

Zoragarria zara. Askotan amesten dut zurekin, eta momentu horietan, zu nire alboan egotea gustatuko litzaidake. Nire bihotzaren alde bat, pozik dago, norbaitekin maiteminduta egotea oso ederra delako; baina bestalde, bakartuta sentitzen da. Bai nire bihotzetik, bai nire burutik, egoera eta sentimendu ezberdin asko igarotzen ari dira, eta nahastuta nago. Oso lotsatia naiz, eta gai hauek, ez ditut inorekin komentatzen. Gurasoek eta lagunek, aldaketa bat nabaritu dute nigan; baina nire lotsak gainezka egin dit eta isiltasunean gorde dut zuganako sentimendu hau. Nire bizitzako aro hau, ahaztezina izango da, nahiz eta gure artean ezer ez gertatu.

Maitasun mundua, errazagoa zela uste nuen: bi pertsona maiteminduta, pozik bizi direla eta haserretzean, erabaki bat hartzen zutela, aurrera jarraitzea edo banantzea. Ohartu naizenez gero, bizitza hau gogorra da, nahiz eta pertsona bat maite. Aspertuta egongo zara gutun hau irakurtzeaz, baina, orain dela aste batzuetatik buruan ditudan hitz guztiak ari naiz idazten; ene barneak esaten didana.

Hasieran aitortu dizudan bezala, bihotzaren menpe nago. Buruak parte hartzen du asunto honetan, baina ez diot jaramon askorik egiten. Iruditzen zait, buruari kasu eginez, gauzak gaizki aterako direla eta gero, errudun sentiduko naizela. Zu ikustean, ene barnean, inork inoiz piztu ez duen zerbait pizten zait, argi bereziren bat. Bihotza ziztu bizian hasten zait taupadaka, eta urduri jartzen naiz. Uzkurtzea eta erlaxatzea da haren funtzioa, baina funtzio nagusiena maitatzea da.

Ume txiki bat naizela sentitzen dut batzuetan, ume txiki bat, jolasten dabilena eta zoriontsu dena. Ni horrela sentitzen naiz, zugan pentsatzean, eta kale-

tik zurekin gurutzatzen naizenean, zoriontsu egiten nauzu. Gero, ene logelan, bakarrik nagoenean, tuntun bat bezala sentitzen naiz. Ene buruari esaten diot: tuntun hutsa zara, mutil horrekin jai daukazu; ez zaitu ezagutzen.

Gau batean, loak ezin hartu nengoela idazten hasi nintzen koaderno batean eta poesia hau idatzi nuen:

"Sarritan, bizitza oso bat ez da izaten
nahikoa barneko kontraesanak ulertzeko.
Nahiz eta saiatu, ez duzu sekula
niretzat zer zaren jakingo, ziur izan.
Eusten nauen soka zara, itotzen nauena,
ametsak sortzen eta galarazten dizkidana,
Esan sentitzen dudana ez dela egia,
une batean sinets dezadan ez garen guztia."

Poesia hau kursi samarra da, baina pentsatzen dudana da eta hori ezin dut aldatu. Beharbada, gutun hau alferrik idatzi dut, ez dizulako ezertarako balio, baina ni lasaiago geratu naiz. Une askotan, negar egin dut, gaizki sentitu izan naizelako, oso gogorra delako ezagutzen duzun pertsona batetaz maitemintzea. Agian, obsesionatuta nagoela ere izan daiteke, baina hori ezin da kontrolatu.

Nirekin kontaktuan jarri nahi baduzu, begiratu gutunaren azala, nire helbidea dago idatzia eta, gutun hau, mila zatitan apurtu nahi baldin baduzu eta zakarrontzira bota, egin, zure eskubide osoa duzu.

Gutun honekin, nire sentimenduak erakutsi nahi izan dizkizut eta zuk jakitea neska baten bihotzaren jabe zarela.

Laburbilduz, maite zaitut. Muxu bat, Lara.

Mikaela Freundlich Zubiaga
Batxilergoa

F-GRIPEA

Telebista piztu zuen Milak, bazkaria prestatzen ari zen bitartean, berriak entzuteko asmotan: "...A gripea OMS-ek pandemia modura izendatu duenetik, pertsona kutsatu eta hildakoen kopurua areagotuz doa...". *Orain ere horrekin?,* pentsatu zuen. Egoera larria omen zen: kutsatutako jende mordoa, eskolen eta beste hainbat instituzioren ixtea, eta baita hildako baten batzuk ere. Hedabideen esanetan, ez zen txantxetako kontua. Milak bi seme-alaba eta senarra zituen, eta ez zion inolako graziarik egingo horrelako ezbehar bat euren artean gertatzeak. *Bueno, guregana iristen ez den bitartean*...eta bere baitan jarraitu zuen bazkaria prestatzen.

Joseba autoan zihoan lanerako bidean, bere pentsamenduekin solasean. Ospitalean gauzak lasai zeuden azken aldian, estresa zer zen ere ia ez zuen gogoratzen. Larrialdi-zonan egiten zuen lan Josebak, eta bertan zeramatzan urte guztietan hamaika egoerari aurre egin eta denetarik ikusi behar izan zuen. Baina gustuko zuen, bere lana ezbeharrak saihestea baitzen, beti lortzen ez bazuen ere. Irratia piztu zuen orduan, momentu horretan munduan gertatzen ari zenaz pixka bat jabetzeko edo. "... kalkulatzen da jadanik 10785 pertsona kutsaturik eta 98 hildako daudela Estatu Batuetan A gripea dela eta ..." *Berriro ere gripe madarikatu hori. Hain larria izango ote da?* Joseba ez zen hedabideez batere fio. Lehenago ere izan zituen gustu txarreko esperientzia bat edo beste, eta oraingoan ere ez zion usain ona hartzen.

Laster batean zihoan Itziar eskaileretan behera. Erlojuari begiratu zion, 08:27. *Kaka zaharra. Maisuak ez dit klasera sartzen utziko*. Hiru minutu zeuzkan institutura heltzeko. Hurbil-hurbil bizi zen, eta gaitzerdi. *Ez dut inoiz ikasiko, ez dut erremediorik*. Arnasestuka heldu zen klasera, eta suertez zebilen; maisua ere bere atzetik zetorren.

- Egun on. Momentuz ez atera liburuak, azalpen batzuk eman behar ditut A gripearen gainean.

Zurrumurruka hasi ziren batzuk, isilik beste batzuk. Itziarrek bazuen A gripe horren berri, baina ez zekien gauza handirik. Ameriketan gertatzen ari zen zerbait edo.

- Jakingo duzuenez, A gripea munduan zehar hedatuz doa, eta laster hasiko gara gu ere efektu horiek pairatzen. Oraindik ez digute zehatz-mehatz informazio guztia eman, baina institutuak neurri batzuk hartu beharko ditu.

Zurrumurruak berriro ere. *Ez da edonolako kontu bat, orduan. Ez nekien hain serioa denik,* pentsatu zuen Itziarrek.

- Ea, isilik egon ba.

Isiltasuna.

- Bueno, esaten nenbilen moduan, laster ahalbidetuko digute informazio hori guztia, egon lasai. Baina kontua da, zenbat eta kutsatutako pertsona gutxiago, hobeto. Horregatik, guztion parte hartzea eskatzen da. Ulertzen?

Ikasleek baietz. Jakin-mina piztu zitzaion orduan Itziarri.

Roberto Garcia zen "Roche" multinazional farmazeutiko suitzarraren arduraduna Espainian. Madril inguruan zegoen laborategi bat, eta bertan,

Espainia guztian A gripearen sintomak baretzeko banandu beharreko "osetalmivir" antibiralak produzitzen zituzten. Mexikon bere existentziaz jabetu zirenetik, A gripeak sekulako zabaltzea egin zuen denbora laburrean. Noski, jendea kezkaturik zegoen, Espainian ere infektatutako gaixo kopurua areagotuz baitzihoan, eta berarekin batera baita eskaera kopurua ere. Kontua zen, sendagai mota ezberdin gutxi zeudela, industria farmazeutiko gutxi batzuk baino ez baitzituzten produzitzen, patentea bereganatuta zuten eta. Horien artean zegoen "Roche", "osetalmivir"-en patentearen jabe.

Garcia inoiz baino pozago sentitzen zen sendagaiak zeukan arrakasta ikusita; salmentek konturatu barik sekulako gorakada jasan zuten. "Osetalmivir"-en patentea eurena zen, eta ez beste inorena, eta honek abantaila handia ematen zien. Ameriketan gertatutakoa ikusita, hedabideek lan paregabea egin zuten jendeari ikara sartzen. Garciak irribarre egin eta zigarroari zupada bat eman zion.

Etxeko atea zabaldu zuen giltzaz Itziarrek. Usain gozoa nabaritu zuen segituan.

- Kaixo, ama. Zer dago afaltzeko? Goseak hilik nago.

- Kaixo, Itziar. Bai, ondo nago, eskerrik asko galdetzearren.

Hasperen egin zuen Itziarrek.

- Bai, barkatu ama. Zer moduz joan da eguna?

- Ba ondo, beti bezala. Entzun duzu A gripe horrek hil duela aitaren laneko bat, ezta?

- Bai, zoritxarrez. Bueno, institutuan protokolo bat dago martxan kurtsoa hasi zenetik. Ez nizun ezer esan?

- Ba, ez. Aspaldian ez didazu zeure eskola kontuez ezer esaten. Egia esan, sarritan ez dakit nondik nora zabiltzan ere.

Mila arduratuta zegoen bere alaba zaharrenaz. Itziar jaio zen egunetik zin egin zion bere buruari ama ona izango zela, ganorazkoa. Baina dagoeneko Itziarrek 17 urte beteak zituen, eta bere kontuetan zebilen, inori gauza handirik esan barik.

- *Bueno, ba protokoloaren arabera,* - jarraitu zuen Itziarrek, amak ezer esan izan ez balu bezala. – *irakasleak ikasle bat egoera txarrean ikusten duenean, "sorospen-gelara" eraman behar du segituan. Hemen, ikaslea zeharo isolaturik mantendu behar da, harik eta bere gurasoak bila etorri arte. Noski, irakasleak deitu behar die gurasoei egoera azaltzeko eta ikaslearen bila etortzeko.*

- Ulertzen dut.
- Prebenitzea da helburua. Apur bat gehiegizkoa, nire ustez.
- Ez pentsa. Gripearen asunto hau ez da broma bat. Telebistan hori baino ez dut entzuten, eta hildakoen kopurua, zoritxarrez, areagotzen doa.

Zerbait esan zuen Itziarrek ahopeka, baina Milak ez zuen aditu.
- Banoa eskolako lanak bukatzera. Asko daukat egiteko.
- Baina ez duzu oraintxe esan, ba, goseak hilik zaudela?
- Ez naiz gose.

Eta sukaldetik alde egin zuen, ama sukaldean geldi-geldi utziz.

Amaitu ziren aspaldi Josebaren lanegun lasai eta estresik gabekoak. A gripe madarikatuak Espainiako estatua jo zuen, baita kolpe ederra eman ere. Ospitaleak gainezka zeuden: infektatuak, txertoak behar zituztenak, euren senideak... Infernua zirudien hark. Jendearen beldurra nabaria zen, eta txarrena, A gripearen sintomak gripe arruntaren oso antzekoak zirela, eta beraz, zaila zen diagnostikatzen. Hala ere, beldur hark ez zuen justifikazio koherenterik. A gripearen sintomak, orokorrean, nahiko apalak ziren, eta ez ziren hilgarriak. Arazoa, oso erraz kutsatzen zela pertsona batetik bestera. Baina horixe zen dena. Egia zen, hiltzeko arriskua zuten gutxi batzuk bazeudela, hala nola haurdun zeuden emakumeak eta gaixotasun kronikoak zituzten pertsonak. Horiek bazuten ikaratzeko nahikoa arrazoi. Baina beste guztiek?

Birus honen aurkako tratamendua sinplea zen: "osetalmivir" errezetatu eta etxean atsedena hartu, nola ez, besteengandik isolatuta, erabat sendatu arte.

Zer nolako kaosa, pentsatu zuen Josebak.

Ingeleseko klasean Itziar ez zen ondo sentitzen. Sekulako buruko mina zuen, eztarriko minaz ez hitz egitearren. *Klase hau amaitutakoan etxera noa*. Tamalez, irakasleak lehenago igarri zion, eta institutuko protokolo madarikatua jarraitu behar izan zuen. Eskerrak ama agudo etorri zitzaiola bila, ernegatzen hasia zegoen eta. Itziarrek ohean sartu eta lo egitea besterik ez zuen nahi, baina ospitalera joan behar zuela tematu zen Mila. Itziarrek ez zuen eztabaidatzen jarraitzeko gogorik, ezta indarrik ere.

- Itziar Intxausti? – dei egin zuen Josebak itxarongelan.
Aurpegi onik ez zekarren neska gazte bat hurbildu zitzaion ama kezkati batekin.

- *Zer duzu, ba, Itziar?* – ekin zion Josebak ohiko galderarekin.

Itziarrek gertatutakoa azaldu zion goitik behera, zehatz-mehatz.
- *Argi dago gripearen sintomak direla, baina ezin dizuet ziur esan A gripea denik* – esan zien Josebak azterketa batzuk egin ostean.
- *Dena dela, sendagai hau errezetatuko dizut, eta noski, etxean gelditu beharko duzu sintomak desagertu arte. Bai?*

Itziarrek errezeta-papera irakurri zuen: "osetalmivir".

Mila inoiz baino kezkatuago zegoen. Hiru egun pasatuak ziren Itziar ospitalera joan zenetik, eta ez zuen sendatzera zihoanik ematen, txarrera zihoala baizik. Ez zen ohetik mugitzen komunera joateko baino ez bazen. Jan ere apenas egiten zuen, eta jaten zuen apurra bota egiten zuen. Buruak eztanda egin behar ziola zioen gainera, minaren minaz. Azkenean berriro ere ospitalera eramatea pentsatu zuen Milak, ea medikuak zer edo zer argitzen zien.

- *Hauek ez dira gripearen sintomak, ez.*

Joseba harriturik zegoen. Ez gripe arruntak, ezta A gripeak ere, ez zituzten sintoma hauek azaleratzen, edo behintzat, ez hain neurri handian. Botagura itzela zuen neskak, eta oreka oso erraz galtzen zuen. Ez zeukan indarrik ezertarako ere, eta angina nabarmenak zituen. Sukarra ere oso bortitza zuen.
- *Bueno, egia esan, A gripeak ekar ditzake botagura eta muskuluetako mina, baina ez hainbesterako.*
- *Ez da gripea orduan?* – itaundu zion Milak.
- *Bai, bai. Gripea seguru, etorri zineten egunean sintomak argiak ziren. Eta seguruena, gainera, A gripea dela. Hmmm....*

Pentsakor zegoen Joseba. Bazeuden posibilitate desberdin batzuk, baina ziurrenik...
- *"Osetalmivir" agindu nizun, ezta?*

Buruaz baietz Itziarrek.
- *Begira: litekeena da zure gorputzak sendagai horren aurrean erreakzionatu izana alergia batengatik, edo bestela, kasu txarrenean, sendagai horrek zuregan efektu sekundarioak sortarazi izana.*
- *Eta zergatik diozu kasu txarrenean?* – galdetu zion Milak jakinguraz.
- *Ba, horrela bada, sendagai hau ez delako guztiz eraginkorra, eta ez*

dagoelako erabat ondo prestatuta gaixo guztientzat. Bere instrukzioek ez dute inongo efekturik adierazten.

Ama-alabak elkarri begira zeuden, sinistu ezinik. Josebak sendagai madarikatua hartzen ez jarraitzeko eta bestelako bat hartzeko agindu zion neska gizajoari. Hauek joandakoan, kontu bat argitu nahi izan zuen, ordea: Ba al zegoen honelako beste kasurik ospitalean? Edo hobeto esanda, estatu osoan?

Itziar askoz hobeto sentitzen zen; pare bat egun amesgaizto moduko batean igaro eta gero, anginak joanak ziren, eta oinez ibiltzeko ere gai zen. Gainera, buruko mina gutxitan etortzen zitzaion, eta eztulak edota mukiek baino ez zioten enbarazu egiten. Medikuak agindu bezala, sintomak apaldutakoan ospitalera abiatu zen amarekin. Ama ere alaiago nabaritzen zuen Itziarrek, eta horrek bera ere pozten zuen.

Ospitalean, medikuak hainbat proba eta azterketa egin zizkion, baita "osetalmivir" delako horren berri eman ere.

- Egun hartan zure egoera ikusita, ospitaleko beste medikuekin hitz egin nuen, zure sintoma berberak erakusten zuenik izan bazen jakiteko. Eta suposatzen nuen moduan, beste hiruzpalau kasu egon dira. Orduan, Bizkaiko beste hainbat ospitalerekin jarri ginen kontaktuan, eta hauek ere izan omen dituzte kasu batzuk.

Itziar eta Mila adi-adi zeuden.

- Kontua da, efektu horiek jasan dituzuen gaixo guztiek "osetalmivir" hartu duzuela guk aginduta. Ez gaizki pentsatu, guk ez dakigu ezer. Eta horregatik, sendagaia aztertu ostean, konturatu gara pertsona batzuengan efektu sekundarioak dituela, eta ez edonolakoak gainera. Zureak nahiko larriak izan ziren, bai, baina egon dira kasu batzuk non efektu horiek larriagoak izan diren.

Mila aho-zabalik zegoen. Itziarrek, ordea, ez zekien ondo zergatik, baina kontu hark ez zuen ezustean hartu.

- Eta? Zer erabaki duzue? – galdetu zion.

- Ba guk gure eskuetan dagoena egin dugu: "osetalmivir" fabrikatzen duen enpresarekin hitz egin, efektu horiei buruz ezer ez azaldu izanagatik. Baina salatzea, aldiz, zuen eskuetan dago. Nik behintzat, hori egingo nuke.

Milak bere alabari begiratu zion, harridura aurpegiarekin.

- Zergatik? Zergatik salatuko zenituzke zuk? – jakin nahi zuen Itziarrek.

- Ba begira, nire ustetan kontua argi dago. "Osetalmivir" produzitzen

duen enpresa, multinazional farmazeutiko bat da, "Roche" izena duena. Enpresa honek, A gripea dela eta, diru mordoa irabazi du bere sendagai horiek saltzen. Eta mordoa esaten dudanean, ez da txanpon eskukada bat. Ulertzen didazue ezta?

- Bai, bai, noski. – Itziarrek.

- Bueno, ba esaten nenbilen moduan, izugarrizko irabaziak eduki dituzte sendagai akastun bat farmazietan salduz. Hor dago koska, sendagaia ez dagoela ondo egina. Eta ez hori bakarrik. "Roche"-k mundu osoan zehar dauzka bere industriak, eta beraz, oso aberatsa eta ospetsua da. Horrek zer esan nahi du? Ba sekulako indarra eta boterea duela. Ondorioz, agintari gorenen artean "lagunak" ditu, eta hauek, publizitate izugarria egiten diote "osetalmivir"-ari, komunikabideak kontrolatzen baitituzte.

- Horregatik zebiltzan telebistan A gripea gora, A gripea behera. Hildakoak, infektatuak, txertoa, botikak...

- Horixe. Jendeari beldurra sartu eta hain zuzen ere "osetalmivir" eta antzeko sendagaiak erosteko gomendatuz.

Itziar jesarlekutik altxatu, ama kolpatu, eta Josebari begiratu zion.

- Eskerrik asko zure laguntzagatik. Eta lasai egon, salaketa jarriko dugu eta. Agur.

Eta besterik barik alde egin zuten ama-alabek, bata paralizatuta moduan, eta bestea, konbikzio osoz.

Garcia eta bere multinazional "Roche"-k sekulako kolpea jasan zuten salaketa horren ostean. Epaiketa mordoa egon zen, abokatu, lekuko eta guzti. Horien artean zen Itziar, eta bera bezala beste biktima asko. Azkenean, merezitako zigorra jasan zuen "Roche"-k. Hala ere, badaude beste hainbat enpresa A gripearen arazoaz aprobetxatu eta poltsikoak dezente bete dituztenak. Azken finean, aberats egin eta boterea lortzea da kontua, gezurrak esan, beldurra sartu, eta manipulatu behar bada ere. Fartsa-gripea, F-gripea. Horrela deitu zion Itziarrek.

Pello Intxausti
Batxilergo 2. maila
"Lagunak, musika eta jaia hirukote ederra"

APIRILAREN 27a, ASTELEHENA

Patxadatsu, lasai, hiztun nabil, betetzen nauena egiten bainabil. Ricardo, Etxeandia, Etxaniz eta laurok mus jokoan gabiltza, egunero legez, apostuak gora eta behera.

Gutxigatik baina, lehen hiru partidak galdu ditugu, eta laugarren hau ez galtzearren ekinean gabiltza. Egia esateko, partidara baino gehiago nire pentsamenduetan murgildurik nabil, mundu honetatik at.

Goizetik egun kaxkarra izan da gaurkoa, nahasi darabilt burua, eta bizia atontzeko, bizitzeko gogoa piztu zaidanaren sentipena daukat, baina badakit

pozoitutako masuzta dela bilatzen dudana. Gaurkoa ez da atzokoa bezalako egun itzalia.

Penagarria iruditzen zait hirurogeita zortzi urte beteak izanda, ohetik altxatu eta pijama bustita izatea, baina hala tokatu da, eta sustraietara jotzea erabaki dut, ez baita normala. Urte dexente daramatzat gorputz zahar honekin, hau ondo baino hobeto ezagatzeko, baina egunetik egunera gehiago harritzen nau.

Atzo, afaria jan nuen, ezer berezirik gehitu gabe, eta betiko antzera, telebista saioren bat edo beste ikusita oheratu nintzen, besterik gabe. Orduan, bote prontoan, ene biziko gau luze era sakonenetako bat bizi izan dudala konturatu naiz, beste behin ere.

Mus partida ez da berez motibatzen nauen solasa, benetako lagunak ditut Felipe, Etxaniz eta hirurak, baina nahiago nuke arratsaldero tabernarik taberna, zulorik zulo ez ibiltzea. Imajinazio askoko tipotzat hartzen dut nire burua, eta nire ideia korapilatsuen artean igeri agitea atsegin dut, eta baliteke horregatik, gaztetasun falta handia somatzen dut. Nire burua trapu zahar baten antzera sentitzen dut maiz, bere egunen amaiera itxoiten dagoen untxiaren antzera. Ez da samurra horrelakoak uste izatea, eta eguneko detaile txikietan aurkitzen dut nire zoriona, benetan kezkatzen nauen amets honekin gertatu zaidanaren berdintsu.

Kontua da, Dolores delakoa, neure ametsen erregina eta aldi berean tabernako anderea, nire sentipenen jabe egin dela eta ez dakidala nola askatu bere atzapar imaginario luzeetatik. Gurea ez da lagun arteko tratua soilik, begiradaz beteriko momentuen zain dauden bi txoriren arteko norgehiagoka da, eta inoiz azaleratuko ez ditudan sentipenez blaitzen nau. Arima kilikatzen dit, eta badakit horrek zer esan nahi duen, lehen ere Izaskun nire emaztea izan zenarekin sentitu izan dudalako horrelakorik, goian bego.

Kontuak kontu, kezkatzen nauena ez da atzoko gauza. Arratsaldeko 8ak. aldera partida bukatu eta Etxaniz zein Etxeandia erretiratu egin ziren tabernatik, hurrengo egunean goiz jaiki behar zutela argudiatuz. Hasiera batean Ricardo nirekin geratu zen arren, denbora luze barik alde egin zuen. Ni, luzaroan geratu nintzen, Doloresen usainaren babesean gustura, bere oina-tzen arrastoei jarraitu nahiean disimuluz. Taberna itxi behar zuela esan zidan halako batean, begietara so, eta zer egingo zuen galdetu nion joango ez banintz. Alkondaratik heldu eta arrastaka aterako ninduela erantzun zidan, eta

horrela jarraituz gero, laster izango zela. Egiteko proposatu baino lehenago, ezpainak ezpain, desioak egia bihurtu ziren. Batuta zegoen taberna guztia hankaz gora jartzeaz aparte, mahaietan, komunetan, futbolinean... bitartean nire ohea nola jarri nuen gogora datorkit.

Hortxe bukatu da ametsa, fantasiak alde egin du eta errealitatera itzultzeko momentua iritsi dela somatu dut. Une beroz beteriko ametsa izan arren, amaierarik gabekoa izan da. Agian patuak neuk bukatzeko ordena eman dit, eta horretan nabil. Baliteke nire irudimen gaitasuna maila gorenera iritsi eta garunak gehiago ezetz esan duela, baina jarraitzeko gogoz nago.

Sesioan genbiltzala, bat-batean geratu eta zertan genbiltzan galdetu zidan Doloresek. Harriduraz begiratu nion, eta urrundu egin zen laupabost metro. Distantzia nahiko gaueko aire hotza sentitu ahal izateko. Isiltasuna nagusi, neure kolkorako hitz egin nuen, ez zegoen ezertaz damutzerik.

Orain, bost txikira, argitausnez ikus dezaket egoera, sarri lortu ezinezko helburuak irudikatzen ditugu garaipen gisa, eta itsu jokatzen dugu. txarrena, edo onena, adimenak sinetsi egiten duela eta ametsetan aktuatzen du.

Ustezko amaiera erreala da, sinesgaitza baita bere onenean dagoen hogeita lau urteko neskatxa bere bizitzaren amaieran dagoen jubilatu batekin maintemintzea, baina ederra da gure artean zerbait egotea, ametsetan bakarrik baldin bada ere.



Haritz Bidaburu
Batxilergoa 2. maila

POESIA

Azterketaz jositako ikaslea

Ekaina heldu da azkar,
esaminak egin behar,
paper artean aurkitutzen naiz
nerbioso xamar,
ikasten nabil su ta gar,
egunez ta gauez zehar,
urte guziko alferkeriak
ondoren hau dakar.

Lorik egin ezinean,
hori nengon jakinean,
urduritasun franko badaukat
modu bikainean,
dardara begi gainean,
hitzik ez det mingainean,
eta guztia ahazten ari zait
ikasi heinean.

Txuleta eta papera
aurrera eta atzera,
Iberdueron faktura ere
doblea gainera;
maisuari aditzera noa
hitzetik hortzera:
Oilasko batzuk izango dira
portatzen bazera.

Isiltasuna

Isiltasuna ona da baina
ez edozein egunean,
aitzaki hutsa gerta diteke
ez saiatzeko lanean,
hainbat haundiki ikusten dira
beraien hitz emanean,
itxura hutsez ta orbel hutsa
jarioa azkenean,

Batzutan hitza eta bestetan
isiltasuna nahiago,
egia esan herri honetan
zertaz hitzegin badago,
baina alperrik zabaltzen dira
hamaika profeta dago,
esan beharra esana dela
sarritan pentsatzen nago,

Gaur zirkura joan naiz

Hainbeste tigre ta mono baita
antze dabiltzala saltsan
nire haurtzaroan horren moduan
ez nintzan ibili dantzan
Behin aukera on bat eduki eta
tentazinoa ezin jasan
nire aitatxogaz hara joan naiz
haurtxo txikitxuen gisan
Umeak legez gozatu dot gaur
nahiz ta umea ez izan

Pailazoaren funtzinoa be
izan da hain nabaria
Sekula ere ez dot ikusi
zirko bateko argia
lehenengo aldiz hori ikusita
begiak diz-diz adia
Askotan horra ez joatea da
orain dodan arrabia
Lehenengo aldi hau ez da izango
nire azkenengo aldia.

Iratsargailua

Asteburuan izaten
dira nire afanak
alde batera utzirik
lehengo eguneko lanak.
Astelehenez esnatzeko
esaten dausta amak
beraz ahaztu egin behar
ordurarte izanak,
trasto honek esnatzen dauz
bere inguruko denak
soinu horrekin hasten dira
aste osoko penak.

Domeka edo astelehena
ez da izaten bardina
gaur goizean altxatzeko
egin behar ahalegina.
Logura izaten naz beti
eta ez da atsegina
baina jeiki egin beharrak
niri ematen daust mina,
soinu horrekin altzatzea
niretzako ezina
hobe egunen batean
estropeauko bazina.

Leire Batiz Undabarrena
Batxilergoa
"Bizitza joko bat da, baina kontuz jokatu beharrekoa"

KONPONDU EZINEZKO AKATSAK

Gaur ere, egunero legez eguzkiarekin batera esnatu zara, edo hobeto esanda, esnatu behar izan duzu. Jadanik bankua zabaltzeko ordua da, eta zure kartoizko ohe deserosoa desegin eta hortik alde egin ezean, bankuko segurtasuneko langileak ostikoka botako zaitu. Nolatan ez du botako, bada, zu bezalako eskale zikin eta kirasduna!

Nola heldu zara egoera honetara, baina? Oraindik gogoan dituzu zure emazte lerdenaren ondoan esnatzen zinen egun haiek. Horren urrun daude, ordea! Maindire goxo haiek, berotasun hura, etxeko larrosa usain hura, zure emazte kuttuna... ai, zure Miren maitea! Berriz eskura bazenitzake!

Jadanik ohitura bihurtu zaizun moduan, kartoi horiek ondo tolestu eta txukun-txukun ezkutatu dituzu zabor artean. Usain txarra hartzen duten arren, beste norbaitek hartuko ez dizkizun toki bakarra da. Aspaldian ez da batere erraza horiek bezalako kartoi onak eskuratzea eta! Krisia dagoenetik kartoiak ere gero eta ganora gutxiagokoak egiten dituzte, bidaian zehar osta-osta irautekoak. Horrenbestez, leku seguru batean gorde eta pare bat astean kartoi berberak erabiltzea beste erremediorik ez da. Ai, Agustin, zer egingo diozu zuk!

Orain unerik txarrena dator. Tripak orroka ari zaizkizu, elefante bat jateko moduko gosea daukazu, beraz janaria eskatzea egokitzen zaizu. Atzo ere egun osoa eman zenuen ezer jan gabe. Horregatik gaur, nahiz eta lotsa ikaragarria eman janaria eskatu beharrak, zerbait jan beharko duzu. Zure lagun ohi Joxerengana joatea otu zaizu, zauden lekutik oso hurbil okindegi bat baitauka. Denbora da kale horretatik ibili ez zarena, eta dena zeharo aldatuta ikusi duzu. Guztia dago berriztuta, zu zara kale hartan zahartu eta usteldu den gauza bakarra. Heldu zara. “Joxeren opil–okindegia” dioen dendaren aurrean zaude. Han dago behin zure lagunmina izandako gizona, beti bezain alai, beti bezain jator. Bizpahiru minutu erdi ezkutuan hari begira egon ostean, janaria eskatzea lotsagarriegia iruditu zaizu. Mesedez, Agustin, zu izan zarenarekin, orain limosna eske! Ezta pentsatu ere! Eta sumintasunez buelta hartu eta horren egun zoriontsuak gogorarazten dizkizun kale horretatik urrundu zara orain dagokizun zonalderantz, hiriaren parte txirorantz.

Berriz ere zabor artean ahora eramateko balio duen zerbaiten bila. Hori ez da bizimodua. Zu eta zu bezalako beste koitadu batzuk “Eroski”aren atzealdeko zaborrontzietan iraungitzeke dauden jogurtak eta fruitu erdi ustelduak jaten ibili behar izatea ere! Ez dago eskubiderik, tamalgarria da.

Lehen hiru jatordu egunean, hamaiketakoa eta merienda gehituta, eta orain eskura dezakezun apurra bakarrik jaten, hau da, ia ezer. Nahi izanez gero, zertxobait gehiago eskura zenezake, baina iguingarri bezain lotsagarria iruditzen zaizu besteen soberakinetatik jan behar izatea, eta are gehiago eskean aritzea. Harrotasuna ez duzu galduko, ez horixe. Kalean bizi behar baduzu etxerik ez duzulako, biziko zara; langabezian bazaude, ibiliko zara noraezean egun osoan zehar; lagunik ez baduzu, egongo zara bakarrik. Laguntza eskatu? Besten kontura bizitzen ahalegindu? Baita zera ere! Egunak igaro behar badira jan gabe, tira, zeure erruz zaude horrela.

Bai, zeure eta ez beste inoren erruz zaude horrela. Orain onartzen duzu, bai, azkenik, ulertu duzu. Dagoeneko berandu da, ordea! Orain ikusten duzu-

na bere momentuan ikusteko gai izan bazina... ene! Zein desberdina izango litzatekeen guztia! Agian lehengoa bezalakoa...

Baina ez. Momentu hartan zure ingurukoei egotzi zenien erru guztia, benetan maite zintuzten haiei. Hori izan zen zure akatsik handiena. Maite zintuen jendea zeneukan, bizitza honetan izan daitekeen altxorrik handiena, eta pikutara bota zenituen. Apustuak gora, apustuak behera, familian eta lagunengan pentsatzeko astirik ere ez zeneukan. Kasinoen eta apustu-etxeen nenonargiek guztiz itsututa zintuzten, mundu horretan guztiz murgilduta zeunden.

Zure enpresa, zure aita eta aitonarena izandako enpresa, okerrerantz joaten hasi zenean hasi zen dena. Ordura arte ondo bizi zinen, hiriko auzo aberatsenetako batean zeneukan etxe eder batean, emazte eta seme-alabekin. Persona atsegina zinen, lagunkoia eta irekia. Lagun asko zenituen, lankide guztiekin harreman onak zenituen, eta baita auzokoekin ere. Egia esan, orain pentsatzeko astia daukazula, familiarekin denbora gehiago pasatu ez izanaz damutzen zara apur bat. Igande gehiagotan beraiekin mendira edo zinemara joan ez izanaz, Jokinen futbol partidak ikusi ez izanaz, zure emazteari merezi zuen besteko maitasuna eman ez izanaz. Hala ere, zure seme-alabek heroitzat zintuzten, eta Mirenek sutsuki estimatzen zintuen. Azken finean, ez zinen horren aita eta senar txarra; hori bai, agian, lanean larregi murgilduta zeunden. Baina, zure aitonak eta aitak zure esku utzi zuten beraien esfortzu handienarekin eraikitako enpresa, zutaz fidatu ziren, eta zuk hau aurrera ateratzeko erantzukizuna zenuen.

Hori dela eta, enpresaren gainbera hasi zenean zeharo larritu zinen. Egun batetik bestera gertatu zen, aurrerago pistarik eman gabe. Bat-batean erosle gabe gelditu zineten, bankuak interes handiagoak kobratzen hasi ziren, eta kontuak ez ziren inola ere ateratzen. Ezinezkoa zen gastu guztiak ordaintzea irabaziekin. Irtenbide bakarra langileak kaleratzea zen, betidanik lagun izan zenituen langile leialak besterik gabe kale gorrian uztea. Ezinegonak gainditzen zintuen, ezin zenuen lorik ere egin, egunak ofizinan ematen zenituen zigarroa eta kopa lagun zenituela; lur jota zeunden. Ezin zenuen zure langileria fidela kanporatu. Gainera, hala eta guztiz ere, ez zeunde ziur horrela arazoa konponduko ote zenuen.

Irtenbideren bat egon behar zen, nahitaez. Zure arbasoak enpresa mantentzeko gai izan baziren, zuk ez zenien beraien lan guztia pikutara botako. Nola edo hala aterako zinen kinka hartatik. Dirua behar zenuen eta, gainera, arin.

Lorik egin ezineko gau luze haietako batean, berokirik beroena eta txapela jantzi eta kalera atera zinen, neguko haize hotzak ideiak argituko zizkizulakoan. Eta haize hotza izan ez bazen ere, gau hartan aurkitu zenuen zure arazoarentzako irtenbidea. Behin-behineko irtenbidea, behintzat. Geroko arazo guztien sortzailea ere izan da hori berori, ordea.

Gau ilun hartan, kale ilun eta bakartietatik barrena zindoazela, kasino bateko milaka koloretako argi disdiratsuek liluratu egin zintuzten. Soberan zenenekien kasino hura existitzen zela, baita han, zure etxetik pare bat kaletara zegoela ere, baina gau hartan beste begi batzuekin ikusi zenuen. Diru arina behar duenaren begiekin, alegia. Gaueko iluntasuna argitu ez ezik, kasino hark zure bizitzaren iluntasuna ere argitzen zuen. Azkenean, aurkitu zenuen zure arazotik irteteko modu bat.

Barrura sartzean are argi gehiago ikusi zenituen, mugitu eta dirdir egiten zuten hainbat argi. Leku zaratatsua zen, musikarekin nahastuta joko bakoitzaren hasiera eta amaiera iragartzen zuten sirena-hotsak eta irabazten zuen jendearearen zorion oihuak entzuen baitziren. Orokorrean toki alaia eta kaltegabea zirudien, jendeari dirua eta zoriontasuna ekartzen ziola zirudien, eta zeuri ere halaxe gertatuko zitzaizula. Ez zenien parte txarrei so egin. Ez zenien etxezar hartako zigarro eta puruei zerien kez erabat estalitako aire kirastunari eta jokoan ari ziren emakume lerdenez inguratutako gizon handiputz haiei erreparatu. Zu zeurera zindoazen eta komeni zitzaizuna baino ez zenuen ikusten.

Jokoan hasi bezain pronto, patrikak diruz betetzen hasi zitzaizkizun. Irabazi eta irabazi, horixe egiten zenuen, arrazoia ere jakin gabe. Jadanik bazenituen hirulau neska lirain zurekin, zure jokoa txalotuz eta noizean behin laztanen bat eginez. Hura bai gorakada! Zein momentu lasaigarria! Hainbat diru irabazten ari zinen; horrela jarraituz gero, enpresa berpizteko aukera izango zenuen, zure aita eta aitonaren enpresari bultzada on bat emateko aukera, hainbat langile langabeziatik at uzteko aukera.

Biharamunean atera zinen kasinotik. Oraindik ez duzu ulertzen nola, baina sartu zinenean gauerdia orduantxe pasatua zen, eta gutxi gorabehera ordu erdi barruan egon ostean, irten zinenean, jadanik egunak argitua zuen.

Etxera bueltatu zinenean Mirenek besarkada dardarati batekin hartu zintuen, negar arteko besarkada batekin. Eguerdiko ordu biak ziren, eta ez zuten zure berririk izan gauetik orduraino. Oso arduratuta pasatu zuen gau osoa,

zu non ote zinen pentsatuz. Beste inoiz horrelako sustorik emango ez zeniola agintarazi zizun. Zuk, gau hartan egindakoagatik errieta baizik txalo zaparrada merezi zenuela uste zenuelarik, emaztearekin haserretu zinen. Oso ziur zeunden zeure buruaz, zeure familia aurrera ateratzeaz gain, beste ehunka familia ere aurrera atera zenituen, edo ateratzeko esperantza zeneukan, irabazitako guztia enpresan inbertitzean.

Ia ordubeteko eztabaida izan zenuen emaztearekin. Sekulakoak esan zenizkion: ez zekiela zer zioen, ez zuela zu beragatik egiten ari zinenaz tutik ere ulertzen, ergel hutsa zela, hobe izango zitzaizukeela kasinoan ezagututako neskaren batekin joan izana, haiek benetan apreziatzen zintuztela... Gainera, izugarrizko pena aurpegiarekin eta maitekiro "Agustin, maitea, hamabi ordu baino gehiago egin dituzu hor barruan, benetan diotsut" esan zizunean, sutan jarri zinen. Ezta pentsatu ere! Zuk ondotxo zenekien zenbat denbora eman zenuen jokoan, eta lepoa jokatuko zenuke ez zela ordubete baino gehiago izan. Zuri irakatsiko al zizun emakume ezjakin batek orduak zenbatzen? Ez zenuen inolaz ere horrelakorik onartuko.

Zein tentela zinen, baina, Agustin garai hartan. Zu gizon ikasia zinen, beti izan zinen argia. Kasino-gau batek, ordea, guztiz lelotu zintuen. Nahiz eta betidanik entzunda izan, jokoan aritzen direnek burua galtzen dutela, berekoi hutsak bihurtzen direla, eta amaigabeko jokoan harrapatuta geratzen direla, ez zenuen uste zuri halakorik gertatuko zitzaizunik. Hori txoriburuei soilik gertatzen zitzaien, ez Agustin? Ba horrela bada, zeu txoriburuen errege! Mozolo halakoa!

Lantokira heltzearekin batera kafe bero bat eta betaurrekoak prestatu zenituen. Esku batean kafea eta bestean bankuko paperak zenituela, zure begiek kontuen zerrenda goitik behera arakatzen zuten, kalkuluak buruz eginez, kalkulamakinaren beharrik gabe. Zenbaki guztiak zure buruan sartzen ziren, eta han antolatzen ziren ez zenien ihes egiten uzten. Halako batean, zure baitan murgilduta zeundela, oraindik irakitan zegoen kafeari zurrut egin zenion, eta hain bero zegoen, ezen dasta papilak ere dantzan hasi baitzitzaizkizun. Aulkitik altxatu eta hamaika juramendu bota ostean, zure aurpegian irribarre bat agertu zen. Bazegoen gastuak ordaintzeko beste dirutza.

Lehenengo egin zenuena zure lagun Joxeri deitu eta berri onak ematea izan zen. Jarraian, Mireni deitu zenion, baina beste tonu batekin kontatu zenion guztia. Meritu guztiak zeure buruari atxiki zenizkion, zuri esker enpresa salbu zegoela eta bera oker zegoela erakutsi nahi izan zenion. Orduan ondo geratu zinen,

eta zeure burua txalotzeko, puru bat piztu zenuen, hankak mahai gainera igo zenituen, eta gela kez bete arte halaxe egon zinen, zeure buruaz harro.

Une horretara artekoa ez zenuen guztiz gaizki egin, izan ere arazoa konpontzeko gai izan zinen. Empresa diru harekin manten zatekeen. Hala ere, ingresuak oraindik ere apur bat eskasak ziren. Diru gehitxoagorekin dena hobeto joango zen, irabaziak gehitu egingo ziratekeen. Beraz, lehen aldiz kasinoan egon eta astebetera, berriz bueltatu zinen leku zoragarri hartara.

Eta berriz irabazi zenuen. Oraingoan, gainera, zaldi lasterketa batean ere zaldi baten alde postura egin zenuen. Hark ere irabazi, hura bai marka. Gau hartan ere poltsikoak ondo beteta eta irribarrea aurpegian irten zinen etxe zorion ekoizle hartatik.

Enpresak diru nahikoa bazuela eta, oraingoan zeuretzako oparitxo bat erostea erabaki zenuen. Primerako Mercedes gorri bat, hain zuzen.

Hurrengo gauean ere kasinora joan zinen eta handik apustu-etxe batera. Hasierako egunetan beste irabazten ez bazenuen ere, oraindik irabazitakoa gastatutakoa baino gehiago zen.

Zerraikion egunean ere bueltatu zinen, baita ondokoan ere. Gaueroko bueltatxoa ematea ohitura bihurtzen ari zitzaizun. Gauerdian joan, kopatxo bat edo beste hartu, gau hartan jolasten ari zen partidaren batean talde baten alde jokatu, karta jokoan egin, purotxoa erre, makinetan jokatu, mahai jokoetan ere dema egin, hainbat neskato ederrekin gero eta solasaldi luze eta esanguratsuak egin... zure txikitako maisu Aita Pedrok esango zukeen moduan, “bekatu bat bestearen segidan” egiten ari zinen.

Etxean, bitartean, guztiak zenituen arduratuta. Familia eta lagunak gaueko irteera haiek egiten uzteko esan eta esan. Beti izorratzen ari zitzaizkizula zirudizun, zu ez zinen ezer txarra egiten ari. Dibertsio apur bat baino ez zenuen behar, besterik ez, eta modu hartara lortzen zenuen.

Baina ez al zenuen postura egiten enpresarentzako dirua lortzeko? Bai zera! Orain badakizu ezetz, gustatu egiten zitzaizulako egiten zenuen, beharrizan bat bihurtzen ari zitzaizulako.

Egunak lozorroan ematen zenituen gau luzeen ostean, eta esnatu bezain laster berriz ere apustu etxeetara bueltatzen zinen. Baliteke astebete baino

gehiago igaro izana Miren edota Jokin eta Nagore ikusi gabe. Baina zuri bost. Joxeri ere nola zihoakion? Ezta ideiarik ere. Baziren egunak berarekin hitzik egin ez zenuela. Eta, egia esan, zertarako? Ludopatiari buruzko erretolikak entzuteko? Ordurako zure lagunak beste batzuk ziren, ulertzen zintuzten haiek, gauero zurekin biltzen ziren haiek. Haiek bazekiten zer zen dibertitzea, eta ez Miren eta Joxek.

Ene bada! Oraindik ez duzu ulertzen nola itsutu zinen horrenbeste! Zure betiko adiskideak eta emaztea handikeriaz beteriko gizon eta diru gosea zuten emakumeengatik aldatzea ere!

Orain, zer eginik gabe egun osoan zehar hiritik bueltaka zabiltzala, iraganeko mamuak atzetik dituzula, ezin duzu burutik kendu zure bizitza benetan pikutara bota zenuen egun hura. Kasinoan ezagutu berri zenuen Tamararekin oheratu zinen eguna izan zen, bai hori izan zen zure bihotzeko Mirentxoren pazientziak muga jo zuen eguna.

Miren, ohi bezala goizeko bederatzietan umeak eskolara eramateko, garajera jaitsi zen autoaren bila. Eta han ikusi zuen zure Mercedes gorria ere aparkatuta, beti bezala lekutik at. Bart ere parrandan ibiliko zinela pentsatu zuen eta mozkor helduko zinela, autoa edonola botata utziz. Bere aparkalekuan uztekotan autora hurbildu, eta han ikusi zintuzten. Zu, zuela hamabi urtetik bere senarra zinen hori, eta plastikozko ile hori nazkagarria alde batera eta bestera mugitu baino egiten ez zuen neska titihandia. Minutu batez han egon zen, geldi, eszena sineztezin hari so, bihotza ere geldituta. Zure ezpainak Tamararenetatik bereiztean eta burua biratzean ikusi zenuen, han kanpoan tente, begiak malkoz beteta zuei begira. Zuen begiek topo egin zutenean, buruarekin ezezkoa egin zizun, eta hanka egin zuen.

Hura izan zen ikusi zenuen azken aldia. Hura izan zen emaztearekin batera guztia galdu zenuen unea. Etxera bueltatu zinenerako hutsik zegoen, han ez zen arimarik ere gelditzen. Mireni hots egiten saiatu zinen, baina ez zinen harritu ez zizunean erantzun.

Beste neska batekin joatea ere! Ai Agustin, a zer nolako akatsa! Gainera, zertarako eta, arropa garestiak eta bitxiak eskatu eta dirua galtzen hastean, segituan bertan behera uzten zaituztenen moldeko neska batekin hilebete eskas egoteko.

Miren eta umeekin batera zortea ere joan zitzaizun. Dirua galtzen ari zinen, sakukadaka, gainera. Enpresatik agertu ez zinela bazen hiruhilabeteko

bat, eta lantzean dei gehiago jasotzen zenituen. Erantzun ere ez zenituen egiten, nahiago zenuen zelan zihoakien ere ez jakitea. Ondotxo zenekien zuk han ez zegoela zereginik. Inork ezer ordaintzen ez duenean ezinezkoa da aurrera egitea. Eta zuk, behintzat, bazeramatzan hileak empresa, etxea eta autoak ordaindu gabe.

Halako egun batean, kasinotik ere bota egin zintuzten zor gehiegi zenituela eta. Ez hasierako iseka eta biraoek ez geroagoko erreguek ez zizuten ezertarako balio izan; zure alegiazko lagunei bost axola zenien eta atezainei are gutxiago.

Kale gorrian zeunden, dirurik gabe, autorik gabe, etxerik gabe, eta garrantzitsuena lagunik gabe. Bakar bakarrik zinen.

Eta halaxe segitzen duzu. Inor gabe, ezer gabe. Hau ez da bizitza, mesedez. Zuk zeneraman bizitza oparoaren ondoan, gainera, are penagarriagoa da egoera hau. Zuk zeuk apurka-apurka zure bizitza galdu duzu, beste inoren laguntzarik gabe. Zeu zara istorio honetako txar bakarra, errudun bakarra. Zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta gogorragoa egiten zaizu aurrera egitea. Zeure burua gorroto duzu, nazka diozu. Miren gaixoa! Lokartu aurretik azkenengo aldiz ikusi zenueneko Mirenen aurpegiarekin topo egiten duzu, beti maitasuna erakutsi izan zizuten begietan pena irakurri daitekeelarik. Zugatik pena, bihurtu zarenagatik. Ez zegoen gorrotorik begi haietan, pena bakarrik.

Gaur goizean poliziak eskale baten gorpua aurkitu du hiriko parte zaharrean, BBK bankuaren ate ondoan. Dirudienez, hogeita hamabost urte inguruko gizon hau, inolako identifikazio paperik gabekoa, hipotermiaz hil da. Hala ere, autopsiaren zain gaude. Papertxo bat zeraman berarekin, ondokoa dioena: "Aita, aitona, Miren, Jokin, Nagore, Joxe, barkatu, benetan. Maite zaituztet."

Marta Gaspar
HHIko ikaslea
« Zalantzak minduko zaitu »

NON IBILI ZINEN ATZO?

Leire eta Mikel senar-emazteak dira. Orain hogeita hamabost urte ezkondu ziren. Bi seme-alaba dituzte, Eñaut eta Eider, baina orain ez dira etxean bizi. Alaba iaz ezkondu zen eta semea Ingalaterran bizi da. Mikel gutxi ibiltzen da kanpoan eta oso goiz etortzen da etxera egunero. Gehienetan hamarretan afaltzen du eta hamaiketarako ohean egoten da. Honela egin du ezkondu zirenetik.

Duela urte batzuk, ordea, Mikelen errutinak ehun eta laurogei graduko bira eman zuen, bere bizia markatuko zuen bira hain zuzen. Bederatzietan ogitarteko txiki bat jan zuen eta bulegoko lagunekin rock jaialdi batera zi-

hoala esanez etxetik atera zen. Leire haserretu egin zen hori entzun zuenean: bere senarra jaialdi batera?

Leire bakarrik gelditu zen etxean. Hurrengo egunean bere ahizparen etxera joan behar zuten bazkaltzera, haren urtebetetzea baitzen. Emakumeak bere soinekoa garbitu zuen eta Mikelen alkandora plantxatu zuen. Gero denbora pasatzeko telebista ikustera joan zen. Egongelako erlojuak ordu biak jo zituenean, nahiko berandu zela eta Mikel laster etorriko zela pentsatu zuen Leirek. Itxaroten gelditu zen hirurak arte, baina bere senarra ez zen agertu eta nekatuta, azkenean, ohera joan zen.

Hurrengo egunean zortzi eta erdietan esnatu zen Leire. Bere gizona ohean zegoen bai, baina, berak ez zekien ze ordutan etorri zen eta lo egiten utzi zuen.

Leirek, ohetik jaiki, gosaldu eta ahizparekin telefonoz hitz egin ondoren, etxea garbitzen hasi zen eta bitartean irratia piztu zuen, justu jaialdiaren berri ematen zeudenean;

«Atzo Bilbon ospatutako rock jaialdiak jende pila batu zuen, dena oso ondo zihoan, baina bonba abisu bat dela eta bertan behera utzi behar izan zuten... Gaur jakin dugu abisu hori zaratagatik lo egin ezinik zegoen auzotar batek eman zuela...»

Berria entzutean gelara joan zen, lehioa ireki zuen eta eguzki ederra sartu zen barrura. Ohe ondoan jezarri zen eta bere senarra esnatu zuen azalpenak eskatzeko:

-Altxa zaitez hortik, alfer hori! Hamabiak dira eta zu oraindik ohean! Badakizu nire ahizparen etxera joan behar dugula bazkaltzera falta gabe bere urtebetetzea da eta!

Senarrak buelta eman zuen eta ez zion kasurik egin, baina Leire ez zen isiltzen oso hasarratuta baitzegoen:

- Non ibili zinen atzo? Jakin ahal daiteke zer ordutan etorri zaren? Hirurak arte egon naiz zure zain eta ez zara agertu.

- Badakizu jaialdira joan nintzela bulegoko lagunekin. Jaialdia amaitu zenean, zuzen zuzen etorri nintzen etxera.

- Gezur galanta! Jaialdia bertan behera geratu zen!! Irratiak hori esan du behintzat. Nora joan zinen gero? Ertzainekin inguru arakatzera ea bonba aurkitu zenuen?- Leire gero eta urduriago zegoen.

Mikelek ohean eseri eta honela hitz egin zion, begietara begiratu ezinik, burumakur;

- Entzun eta mesedez ez zaitez haserretu. Zer gertatu zen kontatuko dizut:

Jaialdia bertan behera geratu zenean, autoan sartu ginen, baina kilometro batzuk egin ondoren, gelditzen hasi zen autoa. Lagunak autotik jaitsi eta bultzaka hasi ziren. Baina autoa ez zebilen. Depositoa begiratu genuen eta hutsik zegoen, gasolinarik gabe. Arazotxo hau dela eta oinez etorri behar izan dut etxerarte, horregatik iritsi naiz berandu, zazpiak bueltan.

Leirek ez zuen hori sinesten eta begietatik negar malkoak ateratzen hasi zitzaikion, bere senarra gezurretan ari zen!

- Gasolinarik gabe gelditu zinetela? Ez dizut sinesten nik bete-beteta utzi nuen depositoa. Zer egin zenuen? Norekin egon zinen?! - ohiukatu zion neskak.

Senarra mutu geratu zen zer esan jakin gabe.

- Ez dakizu gezurti bat errezagoa dela harrapatzea koixoa korrikan baino! Leire sutan zegoen.

- Egia kontatuko dizut, jaialdian nire eskolako lagunekin topo egin nuen eta haiekin joan nintzen trago batzuk hartzera. Nire neska lagun ohia, Amaia, ere han zegoen eta horregaitik ez dizut aipatu nahi izan ezer zuk gauza arrarorik pentsa ez dezazun eta gaizki pasa ez dezazun - erantzun zion senarrak oraingoan begietara begiratuz.

- Lehenengotik egia esan bazenit ez nintzen hasarratuko - esan zuen Leirek malkoak lehortzen zituen bitartean.

- Barkatu laztana, ez dut berriro egingo egia kontatuko dizut beti, eta hurrengoan animatzen bazara biok joango gara beste jaialdi batetara, ikusiko duzu ze ondo pasatuko dugun!

Leirek irribarre batekin erantzun zion senarrari. Mikelek dutxatu, jantzi eta buruko mina kentzeko aspirina hartzen zuen bitartean Leire ere ahizparen bazkarira joateko apaintzen hasi zen. Aspirina hartu ondoren, Mikel konturatu zen etxeko giltzak galdu zituela, baina ezer ez esatea pentsatu zuen bilatuko zuela une egokiago bat. Hiruretarako Mirenen etxean zeunden oso egun atsegina pasatu zuten, inoiz baino maiteminduago eta lasaiago zeunden senar-emazteak batez ere Leire, goizeko liskarraldia pasatu ondoren. Dena ondo zihoala zirudien, baina, gauean, etxera heldu zirenean telefonoan argi gorria piztuta zegoen, mezu bat zutenaren seinale. Leirek entzuteko botoia sakatu zuen.

«*Mikel atzo gauean oso ondo pasatu nuen zurekin, iraganeko garai zoriontsuak gogorarazi zenizkidan. Eskerrik asko, muxu bat.*»

Emakume baten ahotsa zen. Amaia ote? Leire zurbil-zurbil jarri zen, senarrak ez zion egia esan! Edo zerbait iskutatzen zuen. Mezua ezabatu eta ezer ez esatea erabaki zuen, baina Mikeli jaramonik egin gabe ohera sartu zen.

Asteak pasatu ziren eta bere senarra normal ikusten zuen, ez zuen ohikoa baino denbora gehiago etxetik kanpora ematen eta dena ahaztea erabaki zuen.

Baina egun batean Leirek senarraren alkandora garbitzen zihoala ezpainetako marka ikusi zuen bertan. Ordutik aurrera dena hasi zen korapilatzen aldrebesten; mezu piloa jasotzen zituen etxean, Amaia jartzen zuen txartel bat telefono zenbaki batekin topatu zuen senarraren txaketaren poltsikoan... Oso engainatuta sentitu zen, ez zekien zer egin. Atsekabetuta zegoen. Mikelek arraro samar sumatzen zuen Leire eta zer gertatzen zitzaion galdetu zion:

- *Leire, laztana, zer gertatzen zaizu? Azken aldian ia ez didazu hitzik ere egiten, zerbait egin dizut?*

- *Ea zerbait egin didazun? Galdetu egiten didazu? Ze lotsagabe mota zara zu?*

- *Baina, baina...* -Mikel harrituta zegoen ez zekien zertaz ari zen emaztea.

Une horretan norbaitek atea ireki zuen. Amaia zen:

- *Aupa Mikel atzo nire etxean utzi zenituen giltzak* -Leireri begiratu zion- *Ui!! Uste nuen etxean bakarrik zeundela... beno, ba, iritsi da gure artekoa zure emazteari kontatzeko ordua.*

- *Zer diozu?!* -erantzun zion Mikelek- *Non aurkitu dituzu nire giltzak?*

Leire paralizatuta zegoen, ezin zuen sinetsi entzuten ari zena.

- *Maitea* -esan zion Mikelek Leireri besarkada bat emanez- *hori ez da egia, giltzak jaialdian galdu nituen, baina ez dakit nolatan dituen berak. Ia ez dut Amaiarekin hitzik ere egin, gure artekoa aspaldi bukatu zen. Nire bihotza zurea da, zurea bakarrik.*

- *Gezurra! Eta alkandoran ezpainetakoa, telefonoko mezua, zure jakako poltsikoan aurkitutako txartela... Nola azaltzen didazu guzti hori?!* -erantzun zion Leirek aurpegia malkoz beteta zuelarik.

- *Zertaz ari zara? Ez dut ezer ulertzen!* -esan zuen Mikelek.

- *Ez izkutatu bistan dagoena laztana* -esan zuen Amaiak irribarre maltzur bat eginez.

- Ia Amaia, gauzak asmatzen ari zara, badakizu gure artekoa orain dela asko bukatu zela eta utzi genuetik ia ez dugula elkar ikusi ere egin. Urteak dira zure bizitzari buruz ezer ez dakidala. Zu ez zaude ondo, obsesionatuta zaude. Laguntza psikologikoa behar duzu neska! -esan zuen Mikelek genioa iz kutatu ezinik- *Oraintxe etxetik ez bazoaz ertzainei deituko diet.*

Leirek Mikeli begiratzen zion, sinetsi nahi zion, baina bazegoen zerbait bere barruan uzten ez ziona. Bapatean Amaia buelta eman eta etxetik korrika atera zen. Eskilereteran behera zihoala gizon batek harrapatu eta «*Azkenean aurkitu zaitugu*» ohiu egin zuen.

Leire eta Mikel ateraino hurbildu ziren eta Amaiari lasaitzeko indekzio bat eman ziotela ikusi zuten.

- *Zer gertatzen da?* -galdetu zuen Mikelek.
- *Amaiak arazo psikologiko larriak ditu eta duela bi hilabete zoroetxetik ihes egin zuen, ordutik bere bila ibili gara eta azkenean aurkitu dugu.* -azaldu zion gizonak.

Orduan Mikelek Leireri begiratu zion eta esan zion:

- *Esan nizun gehiago ez nizula gezurrik esango maitea.*
- *Barkatu* -esan zion Leirek eta besarkada handi bat eman zion.

Ordutik aurrera ez dira etxetik bata bestea gabe ateratzen.

Goizalde Zearreta
HHIko ikaslea
"Mendekua eta gero, bakea ote?"

GAU ILUNAK

Goizaldeko lauak eta Astrid ez zen etxera heldu. Kattalin, bere ama, behin eta berriz atetik lehiora joan eta etorri bere alaba heltzekotan zegoen. Hamabost urteko alaba ez zen ia inoiz berandu heltzen, baina horrela bazen beti deitzen zion amari.

Udako gaua zen, baina oso ilun zegoen, izarrak hodei lodi artean ezkutatuta, seguraski ura zekarten, udako ekaitza somatzen zen. Hegoaldeko haizeak astiro jotzen zuen, abuztuko gau hark zeozer txarra zekarren izkutatuta.

Goizeko bostak pasatu ziren eta Kattalinen kirioak dantzan, bere alabatxoa ez zen heltzen. Bhitzak esaten zion helduko zela hala edo nola, baina bere burua behin eta berriz errepikatzen zion ezbeharraren bat gertatu zitzaiola bere Astrid maiteari.

Kattalin andra gogorra zen. Txikitatik hamaika pasatu behar izan zuen. Aita marinela, oso gutxitan ikusten zuen. Ama, berriz, hamar urte zituela hil egin zitzaion. Bilboko izekoen etxean hazi zen, baina haiek ez zuten Kattalin alabatzat hartu, neskame gisa baizik.

Hemeretzi urtekin ezkondu egin zen, maiteminduta zegoelako edo etxe hartatik irten behar zuelako nahi eta nahi ez. Ezkondu eta pare bat hilabete pasatuta haurdun gelditu zen. Begoñako Ama Birginaren aurrean zin egin zuen bere alabatxoari inoiz ezertxo ere ez zitzaiola faltatuko. Astrid jaio eta gutxira, Astriden aita hil zen auto istripu batean lanetik zetorrela. Kattalin gazterik alargun gelditu zen.

Goizeko seietan urrutizkina jotzen hasi zen. Bazekien dei hark ezer onik ez zekarrela. Altzatzean, beste aldean Ertzaintzako gizon baten ahotsa entzun zen eta aldi berean ateko txirrinak jo zuen. Urrutizkina bertan utzi eta arineketan abiatu zen atera. Atearen beste aldean bi ertzain agertu ziren. Gizon haien begietan zorigaitza somatu zuen. Gurutzetako ospitalera laguntzeko eskatu zioten ezertxo esan gabe.

Ospitalera heldu zen bi ertzainek lagunduta. Ateak zabaldu ziren eta gelatxo batera eraman zuten. Barruan aurpegi iluneko tipo bat zegoen eta bere alboan lasai itxurazko emakumea. Eseritzeko eskatu zioten eta beren buruak aurkeztu zituzten. Gizona Iñaki Zelaieta poliziako inspektorea zen eta emakumea Itsaso Garaitonandia psikologoa. Lasaitzeko eskatu zioten baina, zer gertatzen zen? Zergatik inork ez zion ezer esanten? Sentikortasunik gabe, inspektoreak esan zion bere alaba maitea bortxatua eta eraila izan zela.

Bostehun labankada sentitu zituen bere bihotzean. Hain haundi zen bere mina ez zuela kontsolamendurik topatu, eta horren ondorioz konortea galdu zuen. Berrehun eta hirugarren gelan esnatu zen, entzundako hitzak behin eta berriro etortzen zitzaizkion burura: bere alaba maitea bortzatua eta eraila madarikatu baten eskuetan. Kattalinek bere buruari amets gaiztoa baino ez zela errepikatzen zion. Baina ez zen ametsa. Inork ez zion bere Astrid maitea itzuliko.

Alabaren hileta egunean, Kattalinek mamua zirudien. Bere bihotzean pena eta tristura sentitzen zituen; bere barnean mendekuaren grina. Ez zen geldi egongo puta seme hura hilda ikusi arte. Ez zuen epaitegiko justizia nahi, bere justizia soilik; madarikatua hilda ikustea lortu arte ez zen gelditukо.

Egunak azken bakoak ziren, eta gauak zer esan. Bere alaba falta zenetik nekatuta, betilun, goibelduta sentitzen zen, baina batez ere bakarrik. Inork edo ezerk betetzeko itxaropen gabeko bakardadea.

Bost hilabete igaro ondoren, urtarrilaren hemetzortzian, urrutizkina jotzen hasi zen. Zelaieta inspektoreak madarikatua harrapatu egin zutelaren berri eman zion. Pentsatu gabe jantzi eta Bilboko Radio Taxi bat eskatu zuen. Negar batean heldu zen Bilboko komisaldegira.

Ertzaintzako atean, inspektorea zegoen zigarro baten kearen artean. Kattalin urreratu zen. Lasaitzeko eskatu zion, dena amaitu zela esan zion. Baina emakumearentzat hasi baino ez zen egin.

Komisaldegiko gela batean sartu zen. Ameriketako filme bateko gela zirudien, bere aurrean ispilu antzerako pareta eta beste aldean madarikatua. Ispilura hurbildu eta hantxe zegoen berrogei urtetako gizon argal, ile hori itxurosoa. Astriden gimnasiako irakaslea zen. Kattalinek ez zuen gizon hura ezagutu, bere alaba maitearen irakaslea izan arren.

Zelaietak azaldu zion nola izan zen Astriden hilketa. Dirudienez, tipoak, Astridekin apetatuz, egunero bere mugimendu guztiak zaintzen zituen eta zapatuko gau hartan bere helburuak amaiera arte eraman zituen.

Martin Errotak auto barruan Astrid gaztea itxaron zuen. Neska etxerantza zihoala konturatu zenean, bere albora hurbildu eta itzelezko ukabilkadaz

konorte gabe utzi zuen gaztea. Kotxean sartu eta Artxandako mendira abiatu zen. Han bortxatu eta hil egin zuen hamabost urtetako gaztea.

Epaiketa otsailaren hamalauan hasi zen. Epaileak hogeita bost urtetako zigorra ezarri zion. Kattalinek ez zuen sinetsi entzundakoa. Akaso bere alaba txikiaren bizitzak hori baino ez zuen balio? Pentsatu gabe bere zorrotik atera zuen arma bat, Bilboko Kortes auzoan erositakoa. Lau tiro eman zizkion; tiro batek bihotza zulatu zion eta bertan behera hil egin zuen.

Bost urtez zigortua izan zen, baina ez zuen kondena bete, denbora gutxi zeramala Basauriko gartzelan penaz hil egin zen.

Orain ama eta alaba bakean dira.

GERNIKA LUMO
gure sustraiak

GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HPS)

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia